

JOKIN URAIN

Gatibu sortu nintzen

SS narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2000 Jokin Urain

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2000ko ekaina

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Hurbilketa

Zarata handiz aldarrikatu zuen Espainiako Gobernua, 1999ko irailaren aurrenean, ehun preso inguru *hurbilduko* zituela berehala. Halako letanietara ondotoxo ohituak gaude presook, eta jukutria nolakoa zatekeen galdetu nion neure buruari berria entzun nuenean, Bonxeko kartzelan. Biharamunean egunkarietan irakurri nituen zerrendak: hurbilduko omen zituztenen izenak, nondik norakoak izango ziren aldaketak. Neure izena ikusi nuen haien artean, Palenciara hurbilduko nindutela. Eta Itziar (Bonxen zegoen haur ere) Avilara, bere lagun Errota lehengo lekuan utzita eta, era horretan, elkarrengandik bananduta. Gure lekuak betetzeko, Galiziara, Bonxera alegia, beste bi hurbilduko zituzten, Valenciatik bata eta Herreratik bestea. Besteren bat Valenciatik Ourensera, Jaendik La Lamara hurrengo bat, edo Puertotik Jaenera. Eta tankera horretan asko-asko.

Kartzela aldaketek amorrua, deserosotasuna eta tristura eragiten dizkigute presooi. Zauden

lekura ohituta zaude nola edo hala, kartzelara egundo ohitzen ez zaren arren; espetxean egin-dako lagunekin sortua duzu halako harreman berezia, lotura estua, anaia edo neba bilakatzen zaituena. Beraz, bat-batean eten eta zapuztu egingo dizute espazioa. Inoren jolas zikineko osakin sentiaraziko zaitu kartzeleroaren gazti-guak trasteak prestatzeko agindutakoan, bazoa-zela-eta.

Oraingo kasuan, gainera, Espainiako Gobernuak halako zaratarekin aldarrikatu duen mugimenduaren fitxa zarela ikusita, zeure izaera eta kolektiboarena deuseztatzeko, senideei eta lagunei beste burla bat egiteko mugimendua baino ez dela ohartuko zara, lehengoak, urteetako murrikak, aski ez balira bezala.

Egonezinean eman nituen Bonxeko azken egunak, kunda heldu zen arte. Fiti, Joxe eta Errotarekin azken solasalditxoak egin nituen leihotatik, adio gisa, auskalo noiz arte; Itziarri ere agur, bisitetako kabinetako leihotik.

Hurbilketa eguna heldu zen, bada, eta Bonxetik Palenciara bidean Leonera lehenengo jauzia. Bonxen furgoirara igo bezain bizkor ohartu nin-

tzen bazirela han beste adiskide batzuk, euskaraz ari baitziren. Ourensetik zetozen bi: Jokin Santxo eta Bizkai; Monterroxotik bestea, Zubeldia agian; ezagutzen ez nituenak hirurak ere. Leonen furgoitik jaistean egingo genuen elkarren ezagutza. Bi egun lehenago Leonera helduak ziren Rego aita-semeak, eta egun hartan bertan Leonen zen Espainiako erregea ere, beste kunda batean joana, jakina.

Leonen gaua pasa eta hurrengo goizean, Gerbaxio hartu ondoren, Valdemorora abiatu ginen. Urteak ziren Gerbaxio ikusten ez nuela; duela hamar-hamaika urteko berbera begitandu zait... baina hark ere halaxe ikusiko nau agian. Zenbat kontu ez ote dauka kontatzeko. Kundek duten gauza on bakarra horixe da, lagun zaharrak berriro ikusteko aukera ematen dutela, eta lagun berriak egitekoa ere bai.

Ostiral arratsaldean heldu ginen Valdemorora. Hainbat kartzelatik gentozen hogeit hamar lagun inguru elkartu ginen han, denok batera patioan ibiltzeko aukerarekin: Roki, Goazen, Jota, Fernando, Mario, Zunbeltz, Astola... Lehendik ezagunak nituen batzuk, baina gehiago ziren ezeza-

gunak. Beste espetxe batzuetara sakabanatuak izan aurreko egonaldi laburra izango genuen elkarrekin, lagunarteaz gozatzeko. Presaka hitz eginez, presaka paseatuz, ekonomatoko arduradunak zeuzkan kafe guztiak presaka hartuz igaro genuen ostiraletik astelehen gauera artekoa. Motz egiten da hiru-lau eguneko tartea, epe laburregia da urteetan egin gabeko berriketaldietarako. Urteetako pasierak eta kafeak beharko genituzke azken aldiz elkar ikusi genuenetik tolestu eta pilatutakoak esateko. Urteak beharko genituzke elkarrekin hartu gabe geratutako kafeak hartzeko, azken eskutitza heldu zaion galdetzeko, halako edo holako zelan dagoen jakiteko.

Goiz esnatu gaituzte asteartean. Amerikantant gosaldu dugu Burgosera bidean joango den furgoian sartuko gaituztenok. Entzutegi Nazionaleko epaiketaren batera doazen batzuk ikusi ditugu. Badira guretakoak haien artean! Diosala egin diegu, animoak ematen. Furgoiko karioletan binaka ipini gaituzte pikoloek, baina euskaldunik ez elkarrekin. Ohituta gaude pikoloen mende-kuetara.

Valladolideko kartzelan Fermin igo dute furgoira, Topastik datorrena. Palenciara iritsitakoan agurtuko dut furgoiko karrajotik, bere kaiolako leihatilatxotik; nik agur eta hark irribarre. Oihu egin diet aurrera jarraitzen duten beste lagunei ere: Fer, Gerbas, Bizkai... Burgosen igaroko dute gaua.

Palencian Jokin Santxo jaitsi da nirekin, poltsak hartuta. Sarreran papeleoan ari dira kartzeleroak eta pikoloak. Arakatzek eta gainerako zerak egin ondoren sarreretako moduluan gaude, hemen, Palenciako Dueñas-La Moraleja presondegian. Berria da, bi urte izango dira ireki zutela, eta berri itxura dauka denean, garbi itxura. Txaboloan dutxa dagoela ohartu naiz sartu eta berehala, nire atzean atea automatikoki itxi dutenean. Leihotik haratago: dorre handi bat, kartzelaren itzulian dauden alanbre hesiak, hormak nonahi. Moduluak ageri dira, kiroldegia dartekeena, eta beste zenbait eraikin. Egituran ez du Bonxeko kartzelaren antzik.

Herri oso bat izan zitekeen, dena hain simetrikoki egina ez balego, hainbeste alanbre eta hesi eta burdina ez balego.

Txapela

Modulu arruntetara garamatzaten egunean, hirugarren egunean, beste lagun bat heldu da sarretarako honetara; Castellondik dakartena. Eup! egin dit norbaitek atetik, janari erretilua pasatzeko atea daukan leihatilatxotik. Eskutitza idazten ari naizen lekutik antzeman dut Antxon, txapela buruan. Ez diot aurpegi osoa ikusten, baina txapelagatik ezagutu dut bera dela, eta begiratzeko moduagatik seguru asko.

Hamabi urte izango dira Antxon Garcia del Molino ikusi gabe, Herreran egon ginenetik hain zuzen. Han ere modulu ezberdinetan egon ginen, baina bisitara bidean ikusi izan nuen inoiz edo behin, eta ez zait akordu hartatik bere irudia ezabatu. Orduan bezala darama, orain ere, txapela buruan. Nire ziegako atearen alde banatan makurtuta, hura kanpotik eta ni barrutik, leihatilatxotik elkarri begira, berriketari ekin dio: ia hamabost egun daramatza bidaian; Picasentetik dator, Langraiztik bueltan; zer moduz gauden

galdetu dit, nola dauden hemengo gorabeherak...

- Etxera deitu beharko dut, iritsi naizela esateko.

Ez gaude astiro mintzatzeko paradarik ego kienean, eta aukera apurra laster izorratu digu kartzeleroak.

Arratsaldeko lehen orduetan gauzak prestatzeko agindu digute Jokin Santxo eta bioi. Kartzeleroa atean azaldu gabe, interfonotik ematen dituzte hemen horrelako aginduak; ezin asmatu, beraz, zelako muturkerarekin agintzen diguten. Modulu arruntetara goaz, Jokin bigarrenera eta seigarrenera ni. Ez dakigu zer-nolako egoeratan izango garen aurrerantzean, elkar noiz ikusiko dugun hurrengo.

Luze egin zait bidea 6. modulu honetara. Lorategi eta zelaitxoan ondotik joan naiz: 7-8 moduluak ikusi ditut eta, horien aurrealdean, 5-6 moduluetakoa eraikina. Bi lagunekin topo egin dut seigarrenean: Koldo Basaurikoarekin eta Karlos Iruñekoarekin. Berehalaxe abiatu gara patiora paseatzera, jo alde batera eta jo bestera, berriketan. Bigarrenean hiru lagun daudela azal-

du didate, eta Jokin hara eramán badute lau izango direla; emakumeenean badirela hiru neska; eta Antxon hona ekartzen badute, lau izango garelá hemen.

Lehen egunak bizkor doaz kartzelan. Kosta egin zait ordutegia ikastea, noiz goazen txabolo-etara, noiz jaitsi, nola den bisiten kontua... Oharkabean joan dira egunak, eta oharkabean hasi naiz leku berriko trikimailuak ikasten. Irrati txikiarekin ezer gutxi hartzen dut. Badirudi uhin guztiak ezabatzen direla inguru honetan. Telebista, osterá, oso ondo eta garbi hartzen dá, hainbat kate gainera. Kartzelaren erdi inguruan ageri den dorre handia antena parabolikoak diruditez beteta dago. Alferrik, nire telebista galego alu bati oparitu bainion Bonxen.

Egun batzuen buruan ekarri dute Antxon 6. modulura; biaoaren ondoren patiora jaisteko ateak ireki dizkigutenean iritsi dá neure galeriara. Poltsak igotzen eta txaboloa apur bat atontzen lagundu diot. 70 urte ez ditu urruti izango; ez dago gaizki zaindua itxura batera, baina gazteagooi ere arnasa berotzen zaigu bigarren solairura poltsak eta trasteak igotzen. Ziegan lixiba

botila hustu du harraskan, komunean, dutxan... Gauean izango du lana bazterrak txukuntzen, bi-zilekuari itxura airosoagoa ematen.

Harmailetan behera goaz Antxon eta biok. Burutik txapela inoiz kendu gabe, ezin dut asma-tu burusoila den edo ez. Karlos eta Koldorekin el-kartu gara patioan. Berriketarako gogoz dago Antxon, hitz egiteko eta galdetzeko, heldu be-riak beti ohi duen eran. Castellonen zelan zeu-den kontatu digu; aspertuta zegoela hainbeste urte baldintza haietan, zulo hartan sartuta, hango kartzeleroen lerdokeriekin. Adiskideez go-goratu da: Estanis, Pello... Eta handik hona bitar-teko kartzeletan topatutakoak, Langraitzen batez ere. Puerto eta Herrerako garaietako lagu-nak orain ikusi ditu, hainbeste urtetako sakaba-naketagatik ikusi ez zituenak.

- Berdin-berdin daudela ematen du, duela hamabi edo hamabost urteko itxura berarekin.

- Neuk ere irudipen hori izan dut, baina geu ere zahartu garelako izango da. Batzuk burusoil-du egin gara, beste batzuei zimurrak ageri zaiz-kie aurpegian, edo ileak eta bizarrak urdindu

zaizkie... Denoi utziko zigun arrastoren bat urte hauen joanak.

- Geuk uste baino sakonagoa seguru asko, eta ez zimurretan edo buru soilduetan bakarrik, tamalez.

Kafea hartzera hurbildu gara ekonomatora. Antxonek ez du nahi ez kaferik ez antzekorik. Botila bat ur eta garbiketarako gauzak erosi ditu. Jangelako mahaietako batean eserita gaudela ohartu da Antxon, moduluko laurogeiren artean dozena-erdi baino ez direla izango espainiarrak; arabiarak dira gehienak; latinoamerikarrak ere mordoska bat; ingelesak, alemanak, frantsesak eta asiarrak bat edo beste, eta bakarra beltza.

Gurekin eta beste ehun preso ingururekin oraintsu egin duten mugimendua dugu mintzagai, irratan entzundako zerbaiten kariaz. Espainolak mundu guztian joko zikinean eta maltzurkerian ibili direla beti, diosku Antxonek, egundo ez dutela gizatasunik izan gauzak gizalegez egiteko garaian. Saharan edo Kuban egin izan zituztenak aipatu dizkigu.

- Gu ere begitan izan gaituzte beti, etsaitzat beti. Menderatu edo akabatu ezin gaituztenez,

joko zikinaz baliatzen dira. Begira zer egin zuten Gernikan 36an. Sarraskiak errebindikatzeko porrotik ez zuten izan orduan, eta gaur ere ez dute duintasunik egiten dituzten txakurkeriak aitoritzeko. Ez dakigu ba ondo zer pelajetakoak diren hauek.

- Zenbat urte dituzu -galdetu dio Karlosek.
- Batzuk bai. Hirurogeita zortzi.
- Zaharra ez, aspaldikoa zara zu -diotso Koldok.
- Hara, 36ko gerran, Durangon bonbak bota zituztenean, hango eliz-atarian nenbilen jolasen...

Jangelaren beste aldera begiratu du, egongela eta patioa banatzen dituen kristalari gero. Irribarre amultsua egin du azkenik begirada mahaira itzultakoan, antzinako irribarrea txapelpetik, betaurrekoen ostetik. Historiaren irribarrea dela begitandu zait, patxadaren irribarrea beharbada, kutxa ireki ondoren harribitxia erakusten duenarena. Eta igarri diot, orain erakutsi digun horren moduko harribitxi asko eduki behar duela kutxan gordeta. Eta otu zait: nork daki 36ko gerrako

ume bat Euskal Preso Politikoon kolektiboan dagoela gaur egun?

- Memorian duzun gordailua zabaldu eta idatzi egin behar zenuke -esatera ausartu naiz-. Presarik gabe, baina memoria horren kontaduria egin beharko genuke -proposatu diot.

Begira geratu zait, baina ez du ezer esan. Agian, Durangoko bonbaren eztanda entzun du berriro; abioi haiei begira sumatu dut bere aurpegiko keinu behartuan. Oinaze zaharraren keinua.

Elkarri gabonak eman eta nor bere txabolora erretiratu gara. Ziegan, atea itxi dizkigutenean, koaderno hartu dut eta honainoko zirriborro hauek idatzi ditut. Baiezkorik ez dit agindu, baina hasierako lerro hauek prestatuta jaitsiko dut bihar koaderno; amua prest.

- Gau osoan ez dut begirik bildu -aitortu dit Antxonek goizean-. Atzoko kontuei itzuli-mitzulika, gomutetan joan zaizkit orduak, ohean jira hara eta buelta hona.

Barre txikia egin du. Harrapatu dut.

-Txaboloan dutxa edukitzea ondo dator goizeko nagiak astintzeko -gaiez aldatzeko itxura egin du; animoso dago.

Jendea patiora agertzen ari da poliki-poliki. Ziegak itxiko dituztela adierazi dute bozgorailutik. Ordu erdi baten buruan hasten dira gosaria ematen, eta ilaran jarri gara geu ere. Kafesne modukoa ematen dute, eta ogia, gurina eta mermelada poto txikietan. Karlos korrika dabil patioan; geroago egingo du bere gosari partikularra: bizpahiru azenario, sagar edo horrelako fruituren bat, limoiren bat... Bejeta integrala da gure nafarra. Koldo, Antxon eta hirurok eseri gara mahaietan. Kontu kontari hasi da Antxon gosaldutartean. Gauean harilkatu dituen orotzapenak dakartza, tolesturarako astirik gabe. Trumilka datozkio kontuok. Ezer esan gabe entzuten diogu Koldok eta biok. Mahaia garbitu dut, eta koadernoak eta luma ateratu ditut poltsatik. Prest nago dena idazteko.

Gerra

Ordizian jaio nintzen, Etxezarreta kalean, zinema eta elizaren artean, 1931ko irailean. Errepublikara garaia zen, apirilaren 14an aldarrikatua. Josefa zen gure ama, tolosarra jaiotzez, baina lau urterekin Ordiziara joana. Aita, berriz, Jose Luis, Sestaokoa. Aitaren familia ere Ordizian bizi zen, Urdaneta kalean. Gure aitaren aita Plazaolako makinista zen. CAFeko makinista izango zen geroago, maniobretako lokomotoraren makinista. Garai hartan batzokia zenaren gainean bizi ginen gu. Orain Alkartetxea dela uste dut. Hiru anai-arreba ginen, ni zaharrena.

Egizu kontu artean oso umea nintzela. Iruditzen zait edozein umeren lehen urteak zoriontsuak izaten direla, edo zorioneko bezala gogoratzen direla. Ume izateak berak, beharbada, ematen dizu irudipen hori, oso lazzeria gorrian eta zoritxar latzean igaro ez badituzu urte txiki horiek. Niretzat ere zoragarriak izan ziren lehen urte haiek, edo horrela iruditzen zait, behintzat. Gogoratzen dut, adibidez, gure aitak poltsakada

bat kanika oparitu zidala, eta kanika haiek etxe-ko leihotik jaurti eta noraino heltzen ote ziren begira egoten nintzela. Nire ariketa moduetako bat izango zen leihotik jaurti ondoren kanika haiek biltzera joatea, ostera leihotik jaurtitzeko.

Lau urterekin mojen eskolara eramán ninduten. Mojek kriskitinak eramaten zituzten eskuetan, eta haien doinura edo erritmora ikasten genituen abestiak-eta. Zigortzean ere kriskitin haiekin ematen zizkiguten kaskarrekoak. Ospitale modukoa zen mojek eskolak ematen zizkiguten etxe hura, eta zaharren egoitza ere mojen eskuetan zegoen. Buruan txapel handi bat erabiltzen zuten mojek, eta esango nuke ateetatik pasatzean alboka jarri beharko zutela.

Aro hura, baina, laster amaituko zen.

Gerra hasi zenean mugimenduak izan ziren gurean. Aita, behintzat, gerrara joana zen etxe-ko eskopetarekin. Hala ere, Ordiziatik martxa egin genueneko gogoratzen dut nik beste ezer baino gehiago. Ordurako mataderia ondoan bizi ginen, eta etxe osteko mendietan bonbak erortzen ari ziren, egundoko eztandak eginez. Gu ez ginen egoeraren larriaz ohartuko, baina jende

helduarentzat begi-bistakoa izango zen handik alde egin beharra zegoela. Gure amak hala erabaki bide zuen, eta etxea eta etxeko gauzak zeuzkan-zeuzkanean utzita irten ginen Tolosara. Presaka eta larri, beraz, baina egunen batzuen buruan itzultzeko asmotan. Bere eskuturreko erlojua ere gau-mahaiaren gainean utzi zuen gure amak, eta janzkiak armairuan. Amaren aita geratu zen Ordizian. Amona, ama, izeba, izebaren seme txikia eta gu bi anaia -gutako hirugarrena, arreba alegia, gerraostean jaio zen-, beraz, sei lagun abiatu ginen Tolosara autobusean. Gurpil mazizoak zeuzkaten autobus haiek, inguruetako herrietatik Ordiziako azokara baserritarrak-eta eramaten ibiltzen zirenak. Amaren ahizparen etxera gindoazen Tolosara, baina han ere gerra mugimenduak izan, eta egun gutxi egin genituen. Trena hartu eta Donostiara joan behar izan genuen. Egun batzuetako kontua zirudienak luze jo behar zuen.

Zurriolako hotel batera eraman gintuzten, jende zibilaren babeserako antolatutako hotele-

ra. Telesforo Monzon zen orduan Euskal Gober-
nuko Barne ministro eta berak ziharduen, bes-
teak beste, modu horretako lekuak apailarazten.
Zurriolako hotel horretatik, Kontxa pareko etxe
batera pasako ginen, eta hantxe geratuko harik
eta, frankistak sartzeaz zeudela, Donostiatik alde
egin genuen arte.

Balkoi-lerro handia zeukan etxeak; handik
begiratzen nion ikuskizunari: itsasoan barratik
atzerago zegoen itsasontzi bat ikusten nuen
bonbak jaurtitzen. *Cervera* zen. *Cervera*-z hitz
egiten zuten behintzat orduan. Badakit *España*
eta *Velasco* ere ibili zirela han. Ni haurra nintzen
artean, eta, entzuten nuenaz aparte, ezer gutxi
nekien gertatzen zenaz eta han zebiltzan gerra-
tresnez. Kontua da balkoitik ikusten nuela itsa-
sontzia, Loiolako kuarterera bonbak jaurtitzen,
Aldakonea gaineratik. Aldakoneako maternida-
dean erori zen bonba haietako bat. Nik sua eta
kea ikusten nituen itsasontzian, tiro egiten zuten
bakoitzean, eta ondoren egundoko zarata,
oihuaren oihartzuna entzuten den moduan.
Baina ez pelikuletan-eta bezala, ez. Ez da berdi-
na. Oroitzen naiz denbora tartea egiten zuela

tiro batetik hurrengora, tarte luzetxo. Tiro haie-
tako baten ondoren bestea noiz etorriko zain
egoten nintzen balkoian. Esan dezaket balkoie-
tan igaro nuela gerra haren zati handi bat. Nik ez
nekien hura benetako gerra zela, balkoitik ikus-
ten nuen zer drama zegoen argazkiaren atzean.
Eskolarik gabe, ezer egin beharrik gabe, opor lu-
zeak ziren niretzat. Goseterik ere ez baitzegoen
artean, gero izango zen moduan. Dena festa,
beraz, haurren mundu propioan ohi denez, gura-
soek babesten gaituzten bitartean.

Ordiziatik alde egin eta Donostia hustu behar
izan genuenerako, urtea hortxe-hortxe joango
zen. Denbora osoa etxetik asko irten gabe egin-
go nuen seguru asko. Ez daukat kalera irten eta
jolasean ibili izandako oroitzapenik. Amak, amo-
nak eta izebak euren gonapean atxikiko gintuz-
ten hiru txikiok.

Donostia hustu beharra heldu zen halako ba-
tean; ihesari eman beharra berriro ere, soinean
generaman apurrarekin. Ez dut gogoan trenez,
autobusez edo oinez, baina Zumaiara jo genuen.
Gogoan dudana da, uhalez lotutako manta bat
zela nire ekipaje guztia, eta harekin egin nuela

gerra hastetik amaiera arteko ibili osoa. Euskal Gobernuak emana izan behar zuen manta hark.

Zumaiara, bada, eta hango hotel bakarrean hartu genuen ostatu, moilaren ondoan. Hotel handia zen oso, baina jende asko ginen. Donostian ez zen hori hainbeste nabaritzen, hiria bera handia zelako beharbada. Baina Zumaian ikusten zen iheslari asko ginela. Esango nuke orduantxe hasi zela ihesa, lekuak huste hura; jendeak orduan hartu zuela atarramentuaren kontzientzia. Ume, zahar, emakume... jende zibilaz ari naiz, eta gure ikuspegiak eta sentrazioez. Frankistak Donostian sartzeaz izango ziren ordu-rako, sartuta ez baziren. Gure aita ere han zen. Maria Cristina hoteleko matraketan-eta ibilia izango zen. Hotel horrek oraindik baditu orduko zaurien arrastoak. Guk, hala ere, ez genuen aita-aren aztarnarik, eta gerra amaitu eta gerora arte ez genuen ikusiko. Zumaiako hotel hartako egonaldia ezin dut zehaztu, baina laburra izango zen edonola ere. Presaka antzean atera ginen handik ere, Durangora. Iheslari multzo haiek igaro ondoren zartarazi zuten Zumaiako zubia.

Etxe partikularretan hartu genuen ostatu Durangon. Oroitzapenak, memoriaren puzzle zati horiek, argazki moduko zartadaz edo flaxez osatzen dira sarritan. Agian horrexegatik, denbora eta espazioaren gainera jauzi eginez gogoratzen ditugu hain argi aspaldiko kontuak, gaur goizekoak baino hobeto. Data zehatzak galdu egiten dira, hari finkoren bati loturik ez badaude; baina gertakarien argazkiak argi eta garbi azaltzen dira burmuinetan, temati, ezabatzeari uko eginez euren egoskorkerian.

Durangon geundela, gogoan dut beste haur batzuekin jolasean nenbilela eliz-atarian, Durango erdian, beraz... gogoan dut abioien burrunba entzun nuela lehenengo, eta bonben eztanda gero. Zalaparta itzela izan zen, leherketaren trumoi izugarria. Haiek ez ziren edonon bota behar eta jaurtitako bonbak, apropos herrigunean botatakoak baino. Etxera joan nintzen korrika, izututa, laborrian. Behin etxera helduz gero salbu nintzen, etxekoen abaroan. Eta etxera iritsi orduko... balkoira, zer ikusiko.

Durangotik Bilbora. Bilbon ere etxe partikularretan hartu gintuzten, edo kolegioetan, ahal zen lekuan. Jende asko zen gerraren beldur eta ihesi zebilena, eta bidean aurrera egin ahala handitzen ari zen iheslarien saldoa. Ordiziatik abiatu ginenean familiaren kontua zirudiena, herri osoen hustea eta ihesbidean pilatzea izan zen Bilbon. Hango egonaldia arrunt luzatu izango zen. Ez nintzen beti etxezuloan sartuta egon. Behin kalera irten eta galdu egin izango nintzen, eta ama nire bila aterako zen, pentsatzekoa denez. Arenalean aurkitu ninduen, ibaiaren ertzean eserita, hankak uretara nituela. Kamioi gainean zeukaten bidoitik gasolinoa betetzen ari ziren langile batzuk, eta ni haiei begira, denbora pasa, etxekoen kezka arduratu gabe. Gaur ere martxan ibiliko dira gasolino haiek edo haien modukoak, ibaia zeharkatzeko.

Bilbon apuntatzen ziren kanpora irtetekoak: Errusiara, Ingalaterrara, Frantziara eta abar. Gure izena ere eman zuten, anaia eta biona, Errusiarako. Baina gure amak ez zuen egon behar guztiz konbentziturik, eta irtenaldi hura,

adio hura, atzeratzen eta atzeratzen joan zen, joatekoak joan eta gu bertan geratu ginen arte.

Gure amak, senarra non eta nola ote zen arrastorik gabe, umeak ondotik bidaltzea eta agian galtzea ez zuen pentsatu ere egin nahiko. Umeak igotzen ziren itsasontzira, Errusiara joateko, baina haien gurasoak eta jende heldua ez. Bederatzi-hamar urteko haurrek eramaten zituzten txikiagoak eskutik helduta. Itsasontzira igotzen zen ume bakoitzak txartela paparrean, bere datu eta destinoarekin. Familia bakoitzarentzat drama bat zen bereizketa hura, gerra berez zen dramari gehitutako beste drama bat. Modu hartan alde egindako haietako haur batzuk itzuli ziren 56an edo. Oroitzen naiz haietako batez, Gomez abizena zuena, Erreterian jaioa, Moskuko Dinamo futbol taldeko jokalaria izana. Gomez honekin ezagutza egin nuen nik, eta berarekin poteatzen eta berriketan ibilia naiz. Adiskide egin ginen. Baina ez zen ohitu Euskal Herriko bizimodura, eta ostera alde egin zuen Errusiara. Hango sentitzen baitzen jada, familia hemen eduki arren. Gerrak etendako haria josterik ez zuen lortu.

Bilbon, orduan, jendea ebakutzeko prestaketak egiten eta jendea ateratzen ari ziren. Guk Santander aldera jarraitu genion ihesari, Laredotik. Zalapartaka eta presaka egindako martxa izan zen. Laredoz gogoratzen dut hango ikuspegi ederra, zoragarria. Santanderren itsasontzia hartuko genuen Arroxelara, *Habana* izeneko merkantean. Baziren han gure adineko bi neskatok, Bilboz geroztik gurekin zetozenak bidaian. Bata Portugaletekoa zen eta Barakaldokoa bestea. Bietako bat, ez dut gogoratzen nor, bere aitonarekin zihoan. Besteak ere izango zuen senideren bat. Bidaia luze samarra egingo genuen elkarrekin, baina nahi bezain luzea ez, zoritxarrez. Donostiako neska koskor bat ere bazen bidaia osoan gure inguruan, Tinita zeritzana... eguerdian ahoratzen zuen haragi zatia hausnartzeko aritzen zen gauean oheratutakoan ere. Haur talde hartako nagusiena neu izango nintzen beharbada; sei bat urte izan behar nituen.

Habana ontzia hartu genuen, bada, iheslariekin irten zen azkena, oso oker ez banago. Umez eta zaharrez eta emakumez beteta dakusat ontzi haren irudia, jende asko eta asko, denak piloan

eta trumilean, kubiertan, kareletik begira, oka egiten, tripak irauli beharrean. Oraintxe neure aurrean ikusiko banu bezala gogoratzen dut hori, garbi-garbi. Euria egin zuen ontzian ginen bitartean. Pelikuletan-eta agertzen diren irudiekin parekotasuna badu horrek: irudi grisa.

Erbeste

Castellongo espetxetik etorrira, hemen ohitu ezinik dabil Antxon. Ziega batetik albokora aldarazten zaituztenean ere zapuztu egiten dizute ohiko martxa, zereginen erritmoa, eta kartzela batetik bestera aldatzean egonezinean ibiltzea ez da harritzekoa. Bidaian aste pare bat pasa badituzu, zer esanik ez.

Lehen graduan daukate oraindik. Castellonen goizean patiora irten eta arratsaldean txaboloan egon behar izaten zuen. Lau orduko patioaldia, beraz. Hemen, ostera, lehen graduan jarraitu arren, goizez eta arratsaldez irteten da patiora. Eskutitzen interbentziorik ez daukala ere esan diote, eta bitxia egiten zaio, harrigarria, kartazala berak ixtea eskutitza sartu ondoren, gutunontzira bota aurretik.

- Hemezortzi urte hauetan lehen aldia da neuk ixten dudala.

Lehenengo aldia, baita ere, postaz heldu zaion eskutitza entregatu baino lehen bere aurrean irekitzen diola kartzeleroak. Orain artean

aurrez irekita eta Madrildik edo auskalo nondik itzulia eginda heldu baitzaizkio, denboraldi puska baten buruan.

Jangelako mahaian eserita gaude, egunkariak hau dakarrela edo irratiak hori esan duela, su-etenarekin zer gertatuko ote den, dena geldi eta bare dagoela ematen duela, geldi dauden urak usteldu egiten direla denborarekin... Halako kabalak egiteaz aparte, eginasmo faltarik ez du Antxonek. Hanka egin du gure ondotik, eskularen aretoko atea ireki duten bezain laster. Itsasontziak egiteko materialak eta lanabesak lortzeko borrokan dihardu eguna joan eta eguna etorri. Katalogo eta materialak eskatuta, eskalan egiten ditu itsasontziak. Zurezko kutzak egiten ere ibilia da, eta gerrikoak eta horrelakoak. Baina horiekin aspertuta, zerbait kuttunagoa egin nahian, itsasontzien kontua dauka orain. Planoak erakusten dizkigu, itsasontzien izenak, neurriak, prezioak... Astirik gabe dabil ezertarako, ezin geldi egon; eta tartetxoren bat daukanean, paseatzera joan ohi da patiora. Ipurtarinaren irudia ematen du horrela esanda, baina gizon patxadatsua dugu, adinak emandako ten-

plearekin luzatzen da berriketan hasten denean. Kontalari ona da; badu ezpala. Zehaztasun harri-garriz gogoratzen ditu pasadizoak: Olotetik Ordiziara, Parisera edo Latinoamerikara, Iturriotzera... Hango eta hemengo zauriak erakusten dizkit, memoriako geografiaren zauriak eta lorategiak. Hitz-jarioaren mapan markatzen dit bidearen ibilia. Arima botatzen du mahai gainera, bere suan eta bere izotzean.

- Badirudi eskulanak egin ahal izateko traba ugari ipiniko dizkidatela hemen ere. Horretaz arduratzen den hezitzaileak zerbait konpontzen lagunduko omen dit, maketak lortzen edo.

Nire koadernoari begiratu dio, orrien ertzetan idazten ditudan oharrei, orriak aurrera edo atzera eginez hartzen ditudan apunte, zenbaki eta azpimarrei.

- Dena zirriborro dirudi idazten ari zaren horrek -esan dit-. Nola demontre asmatuko duzu gero hori dena garbira pasatzen.

- Asmatuko nuke, zerekin egina baneuka -erantzun diot-. Idazmakina Bonxen utzi nion Joxeri. Hemen ordenadorea sartzeko baimena eskatu dut, baina auskalo noizko izango den hori.

Gainera, nik ez duk egundo ordenadorerik ukitu, eta traste malapartatua omen da oso.

- Ederki gaude orduan.

- Gero gerokoak. Orain gatozen geure harira.

Santanderren *Habana* ontzia hartu eta Arroxelara abiatu zineten.

Habanan familiako umeak eta emakumeak gindoazen, gizonik gabe. Gure familiako gizonak gerran izan ziren denak, gauza zirenak behintzat. Gure aita CNTkoa zen, bidenabar esateko. Munduko gerra guztietan eta historian zehar beti berdin gertatzen da: gizonezkoak gerrara eta *abenturara* joaten dira; eta emakumeek, zahar edo gazte, egin behar izaten dute haurren kargu, etxearen eta *erretagoardiaren* arduradun. Gizonak fusila darama, emakumeak bizitza guztiaren zama. Ez dut esan nahi gerran ez dela emakumerik aritzen, ezta gutxiagorik ere. Begira geure kolektiboan zenbat dauden. Baina, hara, emakumeek, gerraren ondorioz kartzelan daudenean ere, haurrak izaten dituzte, haurren kargua har-

tzen dute, heziketaz arduratzen dira. Horra Maitane bera, alboko moduluan daukaguna...

Kontuak kontu, emakumeak eta haurrak ginen, *Habana* ontzian, Arroxelara bidean. Lurre-ratu ginenean ohartu nintzen jende guztia gaixorik zegoela, denak zorabiatuta eta okaka, aurpegiera zurbilekin. Bidaiak iraun zuen denboran alde batera eta bestera ibili nintzen ontziko kubiartan, ahal nuen leku guztietan. Hala ere, Arroxelan bertan, lehorreratzeaz geundela konturatu nintzen zenbat eta zenbat ginen. Itsasontziaren tripetatik irteten zen jendea, saldo ikaragarria, xinaurrien moduan. Hustu ondoren, Ingalaterrara jarraitu zuen *Habana*-k.

Ez dakit trena non hartu genuen, baina handik Cerverara egin beharko genuen lehen bidaiia, geuretzat propio antolatutako tren batean. Katalunia jotzen zen orduan leku segurutzat, eta haraxe gindoazen. Tren bat baino gehiago izango zen Arroxelan, itsasontzian joandako jendetza eraman ahal izateko. Geltokietan geratzen ginen; Gurutze Gorriko emakumeak izaten genituen zain, euren txapeltxo zuriarekin. Janaria ematen ziguten: txokolatea eta gazta biribila,

bolazko gazta gorri hori, Holandakoa edo omen dena. Trena utzita, oinez egin genuen pasoa Cerveratik Port Boura, uste dut. Figueresera gero, eta han astebete egin ondoren, Olotera.

Oloteko palazio batean bizi izan ginen, bertako familiarekin. Beheko eta bigarrenengo estaietan etxeakoak, gu hirugarrenean, sei iheslariak. Beraien bizilekutik igaro behar izaten genuen *geurera* iristeko. Aurrerago eskailera ere egin ziguten harmaila-kaxatik gora!, zuzenean hirugarrenera igo gintezen. Jostailuz beteta zegoen palazioa, era guztietako jostailuz; egundo ez dut hainbeste ikusi: mapa puzzleak, Nafarroako zalgurditxoak, trepetak... eta irudika ditzakezun guztiak. Zer ez zegoen han! Zenbait belaunalditako haurrek erabili ostean pilatutako jostailuak, seguru asko. Oloteko egonaldi hartan, denen beharra izango zen-eta, ama eta izeba beste etxeren batzuetan aritu ziren lanean. Haurrak kalean edo bazterrik bazter ibiltzen ginenez, amak eta izebak lan egiten zuten etxeetara hurbiltzen ginen. Eta haietan ere jostailuak!; izebak leihotik ezkutuka jaurtitzen zizkigun jostailu haietako

zenbait. Bizi ginen palazioan geneuzkanekin nahikoa ez izan, nonbait.

Dena den, Oloten bazegoen lau muturreko iturri bat herri erdian, gainean harrizko untxia zeukana; huraxe nuen nik denbora pasatzeko lekurik gustukoena. Atzamarrez jarioa estutu eta ura hara edo hona bideratuz, ingurukoak zipriztinez bustitzen ibiltzen nintzen.

Oloten denboraldi luze samarra egin ondoren, Tortellatera eraman gintuzten, Torre Chiquet izeneko etxera, herritik apartatuxe. Gutaz gain, Tortellaten baziren beste iheslari batzuk: Tinita, haragi zatiez beti hausnarrean aritzen zen Donostiako neska koskorra, eta lehen aipatutako Portugaleteko eta Barakaldoko familiak.

Bi errazionamendu genituen orduan: Errepublikarena eta Euskal Gobernuarena. Garai hartan, artean ez zegoen janari faltarik. Baina azkenaldian abioien eta bonbardaketen faltarik ere ez. Egun batez, ez dakit Oloten edo Tortellaten izan zen, ume mordoska genbiltzan jolasean herrigunean. Abioien zarata entzun genuen, eta bonbaren leherketa segidan, ezertaz ohartzera. Geunden lekuetatik jaurti egin gintuen bonbaren

eztandak, gertu-gertuan erori baitzitzaitzun. Lurretik zorabiatuta jaiki nintzen, belarrian ezta-
dak eragindako txistuarekin, iinnn, luzaroan
iraun zidan txistu harekin. Leherketaren izua
apur bat pasa zitzaidanean itzuli nintzen ostera
jolasean ibilitako tokira. Bilbotik gurekin joanda-
ko neska koskorretako bat hil zuen bonbak; aito-
narekin joandakoa ez, bestea baizik. Burdinazko
farola odolez eta haragi zatiz zipriztinduta ikusi
nuen. Bete-bete harrapatu eta dena zapartatu
zuen bonbak.

Tortellateko etxeak bazuen baratza bat ondo-
an, frutarbolekin. Geurea balitz bezala erabiltzen
genuen baratza, barazkiak-eta landatzeko.
Behin batez, haur mordoska joanda, egundoko
jana egin genuen aranondoetatik. Mikatzak eta
berdeak egongo ziren, baina guk bapo jan.
Denok gaixotu ginen, larri gainera. Tripetako
minez, botaka, beherakoarekin... Hain larria izan
zen, gaixoaldi horretan hil zela Bilbotik gurekin
etorritako beste neska koskorra ere, aitonarekin
zegoena.

Olotetik Tortellatera ginenerako erretiran zen
Errepublikaren indarra, menderatua edo ihe-

sean. Haurrontzat ere agerikoak ziren arazo haien zantzuak. Oloten, esate baterako, kamioi-kada terraila aurkitu nuen, ihesean zihoazenek utzia, zalantzarik gabe. Bidearen albo batean lagata zegoen kamioia, erdi iraulita, matxura edo istripuren baten kariatz. Nola ez!, miaketan hasi nintzen. Zurezko kaxez bete-bete zegoen kamioia, eta zurezko kaxetan terrailak, itzela terraila piloa! Nik orduan ez nekien zer ziren eta zertarako, aztarrenik ere ez. Hartu egin nuen haietatik mordoska bat, jostailutzat. Ume kontuak, badakizu. Adreilu gisa erabiltzeko balio zidaten, etxetxoak-eta egiteko. Edozein umek kanikak gordeko lituzkeen moduan gorde nituen. Balio handikoak ziren, geroago jakingo nuenez, etxean, Ordizian nintzela; aitak ikusi zizkidan nire terrailazko jostailuak, eta beretzat hartu zituen, lanerako, mekanikaria baitzen gure aita. Gerraosteko urte luzeetan terrailarekin, errodamenduekin eta horrelakoekin kontrabandoa egin ez aberastu ziren batzuk. Aberasteko kinkan izan nintzen, bada, Oloteko aurkikuntza harekin! Zelan izaten diren gauzak.

Ahantzi dut...! Tortellaten bazen aireportu txiki bat! Bi hegazkin zeuden hangar handi batean barruan, eta kanpoan beste bat. Hangar hartara sartu, abioira igo eta, metrailadorea hartuta, tu-tu-tu-tu aritzen nintzen jolasean. Ez dakit metrailadore haiek balarik gabe zeuden, edo segurua jarrita ote zeukaten, edo zer demontre. Tiro egiteko prest egon izan balira, egingo zuten, ziur, eta auskalo nolako kalapita sor nezakeen. Inguruetako mendixketan bazterrik bazter eta zer ikusiko ibiltzen ginenean, egundoko munizio mordoa aurkitzen nuen. Kalibre handiko balak, txikikoak... orotarik bide bazterretan, sasipeetan, nonahi. Armarik bat bera ere ez, baina munizio pila handia. Egurra bildu eta sua egiten nuen mendian, eta sua indartzen zenean, bazterretan batutako balak botatzen nituen garretara. Ja! Zelako ziztuan ateratzen ziren sutan berotzen zirenean! Dziu-dziu-dziu egiten zuten txistu.

Gure amona gaixo samarrik zebilen azkenean. Nazionalak sartu ziren, eta Katalunia hartu

zuten, lehenago Euskal Herria bezala. Frankisten nagusigoarekin amaitu zen gerra hangoentzat. Etixerako buelta zetorren, beraz. Itzulera ahal zen moduan egin beharra zegoen; jada ez zegoen guretzat antolatutako trenik. Donostian bagenituen lehengusu batzuk; haiei pasa behar genien abisua, amona ekartzera joan zitezten. Amonarekin geratu ziren izeba eta lehengusua. Ama eta seme biok abiatu ginen Ordiziarantz. Bentzutuak ginen, garaituak. Kamioi batera igo ginen Tortellaten; hangar handian nik ikusitako hegazkinetako bat zeraman kamioi horrek, hegoak tolestuta, eta gu ere hantxe, ahal genuen moduan egokituta. Gironara heldu ginen kamioian, plaza batera. Hantxe ikusi nituen lehenengo aldiz txapel-gorriak. Buztanik eta adarrak ba ote zeukaten ikustea zen nire kezka bakarra. Ordura arte pentsatu izan bainuen frankista haiek adarrak eta buztana zeuzkatela; erabat sinetsita nengoen horrela zela. Gironako plaza hartan *Cara al sol* kantarazi ziguten, besoa altxatuta. Amona bat zegoen nire ondoan, emakume adintsu bat, besoa jasotzen ez zuena, eta gogoratzen dut nola jasoarazi zioten mehatxuka.

Gironatik Bartzelonara joan ginen. Tren geltokian bertan eman genuen gaua. Egunkariak, aldizkariak eta horrelakoak saltzen zituen emakumeak utzi zigun txoko bat lo egiteko, mostadore moduko baten abaroan. Hurrengo egunean hartu genuen trena Bartzelonan, etxerantz. Merkantzia trena zen, jendez betea, gure moduan etxera zihoan jendez betea. Ez dakit nondik norako ibiliak egin genituen trenean, nolakoak izan ziren bidaiako gorabeherak. Gogoratzen dudana da, gaua zela Ordiziara iritsi ginenean. Paperezko farolatxo zegoen herria, Madrilen erorketa ospatzeko. Gero jakin genuen, bezperan hil zela gure amona. Beranduegi zen, beraz, haren bila joateko. Oloten datza.

Ordizia

Gerra amaitu, Ordiziara itzuli, eta aita atxilotuta! Oviedon erori zen preso. Gero Mostoles langile batailoian egon zela uste dut. Eta azkenean Ondarretako kartzelan. Fusilamenduen garaia zen, *ley de fugas* eta hori guztia. Langileen batailoia heriotza zigorraren ataria zen askorentzat.

Lehenagotik hasiko naiz, gerraren hasieratik. Asturiasko CNTkoak etorri ziren laguntzera, eta gure aita ere CNTkoa zen. Ordiziako jauntxo batek bazuen denda bat... Asturiasko CNTko haiek heldu ziren herrira, eta jauntxo horren etxeari lehergailuak ipini eta dena leherrarazi nahi izan zuten, familia osoa barruan zela. Gure aita aurrean plantatu omen zitzaien, eztabaidan aritu ziren, eta azkenean konbentzitu egin zituen halakorik egin ez zezaten. Ez zen ezer gertatu. Gerraostean, gure aita langileen batailoian zela, denda hartako jauntxo hura hurbildu zitzaion gure aitonari, bere suhia non zen galdezka. Gure aitonak konfiantzarik ez zuen izango harengan;

beldurra bai galanta. Baina gerra aurreko kome-
ria, etxea leherrarazi nahi izan ziotenekoa ale-
gia, gogoan izango zuen delako jauntxoak, eta
bere zor morala kitatu nahi izango zuen. Halaxe
jakinarazi zion behintzat gure aitonari. Gizon
haren eraginez edo beste moduren batean, On-
darretako kartzelara eraman zuten aita. Itxuraz
egoera hobeagoxera, fusilatzetik libre; nahiz eta
kontu jakina den Ondarretako kartzelaren histo-
ria beltza.

Nik oporretan jarraitu nuen bien bitartean Or-
dizian. Ez baitzegoen maisurik. Fusilatu egin zi-
tuzten, barren! Ez zegoen maisurik, ez gurerik ez
beraienik. Beraz, etxera itzuli ondoren ere ni
oporretan. Fraideak ere desagertuak ziren. Den-
borarekin, ordea, moja aizun baten etxean hasi
nintzen eskolan. Txikienetik handienerainokoak
elkartzen ginen gela hartan, denak batera. Albo-
ko gela batean sekulako aldarea eta eliza modua
atondua zeukan sasi-moja hark, elizarik sakra-
tuena balitz bezala, tailazko aingeru eta guzti.
Irakasle oso ikasia ez zuen izan behar emakume
hark. Batuketa xumeren bat aginduko zizun ar-
belera aterata; eman dezagun, hamaika gehi ha-

mahiru idatzi eta zenbat zen kontua egiteko agintzen zizula; eta zuk, berdin hogeita zazpi ipintzen zenuela; «ondo» esango zuen, «ederki». Eta horrelaxe kontu guztiekin. Eskolako aurrera-tuenek erakutsi ohi ziguten irakurtzen eta idaz-ten. Niri neska batek erakutsi zidan. Aurkikuntza miresgarria izan zen irakurtzen ikastea, harribi-txirik ederrena aurkitzea adinakoa. Urte batzuk geroago Irunen-edo harrapatu zuten sasi-moja hura iruzurrean, komenturen baterako eskean zebilen aitzakian.

Irabazleen euforia zegoen bazterretan, harro-puzkeria eta erronka. Kanean desfileak egiten zituzten «geziek» eta «pelaioek». Falangearen gazteriak ziren hauek, alebinak edo. Eskoletako arduradunak derrigortuta zeuden ikasleok elizara eramatera; elizara, desfileetara eta parafer-nalia guztietara. Beti aurkitu izan nuen eskolatik elizara bitartean ihes egin eta nonbaiten ostentzeko eraren bat. Haurren desfile haietan kantuz eta musikaz aritzen ziren, kutsu militarrez, danborrak joz. Bentzutuekiko umilazioa zen. Etxean ere nabaria zen umilazio hori, isiltasuna eta au-tozentsura kontu horrekiko. Eta beldurra.

Nik ez nituen ikasi otoitzak eta elizarenak. Lehen jaunartzea ere ez nuen egin. Jaunartzea egin behar nuen egunean, ihes egin nuen mendira. Oraindik entzuten dut gure ama niri deika: Antonio!, Antonioooo! Baina nik jaramonik ez. Arratsaldera arte ez nintzen etxeratu, ezta bazkaltzera ere. Bazkaria galtzeak ez zidan pena makala emango, baina mendian beti aurkitzen nuen nik zer jana. Sagarra ez bazen gerezia, okarana edo pikua, inguruetan beti zerbait. Ordizia inguruko frutarbolak kontrolatuta neuzkan; ondo aski jakin ohi nuen zein baserritako sagarrak edo udareak zeuden heltzeko puntuan, nongo gaztainadiak zeuden biltzeko moduan. Perretxiko eta onddotan ere askotan ibiltzen nintzen, eta etxera eraman ere bai mordoska ederra.

Moja aizun haren ondoren, Antonio Hidalgo kontulariarekin hasi ginen eskolan. Bilore xaboi fabrikako zuzendari izango zen gizona aurrerago. Santa Ana kolegioan ematen zizkigun honek eskolak, benetako kolegioan. Antonio Hildalgoren anaia Victor egin zen txikienon kargu: matematika, lengoaia, geografia, gramatika eta algebra

apur bat. Victor arras gogorra eta zitala zen, baina ez gintuen jotzen behintzat. Hala ere, kolegioko ikasle zaharragoen artean bazen bat Lonbide zeritzana, begitan hartua nindukana eta joka aritzen zitzaidana. Eskolaren azpian frontoia zegoen, eta behin, pilotan ari ginela, bat-batean joka hasi zitzaidan Lonbide hori; Munduate atera zen nire defentsan, Oreretako apaiz izango zena. Eskola sasoa amaitu ondoren ere, lanean hasita nengoela, berdin jarraitzen zuen Lonbide horrek. Bere frustrazio eta zapuzkerien askabidetzat hartua nindukan, nonbait. Azken topaldi erabakigarria izan genuen bion artean: gure etxebizitzaren azpian Rikardo Monteroren bizikleta tailerra zegoen; egun batez tailer horretara eramanean zuen bere motoa Lonbidek; mekanikaria konpontzen ari zen bitartean, ni albotik begira; eta hara non datorren Lonbide, eta zapla! niri egundoko lepagainekoa esku zabalarekin; eta nik, orduan, lurretik alikate handiak hartu eta zait! kolpea hankartean; barrabilak ez nizkion harrapatu izango, baina bai inguruko zerbait... eta estutu egin nion; berak zapladaka ekin orduan, baina

nik askatu ez, estutu baizik. Han amaitu ziren istiluok.

Tristea zen gerraosteko giroa, iluna... Baina egia da umeok aise aurkitzen genituela alaitasun umeak. Bizikleten gurpilekin karrerak egiten genituen, alanbre kaketu batez bultza eginez, Legorretaraino joan-etorria, Itsasondotik igaroz. Herriko jaietan txirrindulari lasterketa izaten zen, txapel-okerrek zaindutako karrera. Espaloiak jendez beteta zeuden txirrindulariak ikusi nahian, eta neuk ere zerbait ikusi nahi. Jendearen atzetik edo artetik ezin nezakeen nahi beste gozatu. Orduan, makurtu eta lau hankan, errepi-de ertzera heldu nintzen, baina justu txapel-okerren ondora heldu; eta hala makurtuta ikusi ninduenean, egundoko kulatazoa eman zidan goitik behera bizkarrean. Hura zartakoa eman zidana.

Bihurriak izaten ikasi genuen. Auzoen arteko liskarrak antolatzen genituen, adibidez, Urdaneta kalekook San Bartolomekoen aurka; harrika aritzen ginen, trenbidean-eta. Haietako aldi batean, harria jaurti eta buruan bete-betean jo nuen San Bartolomeko mutiko bat, Gregorio Bar-

cos. Egundoko zauria egin nion buruan, eta Jau-regi botikara eraman nuen sendaketa egin ziezaioten. Gerora oso lagunak izango ginen Gregorio eta biok, koadrilakoak. Gazterik hil zen hala ere.

Behinola, Juanito Erauskinekin joan nintzen gereziak hartzera. Juan Centella deitzen genion Erauskini, sasoi hartako komiki pertsonaia baten izena duzu. Igo ginen, bada, gereziondo banatarra; hura mauka, jan eta jan. Halako batean ordea, han ikusi dut Rompecamisas deitzen genion baserritarraren zakurra gereziondoaren azpian. Rompecamisas hau, Iriarte baseritik Aramarako bidean zegoen baserri bateko nagusia zen; bereak izango zituen fruituak, eta oihuka hasi zitzaigun. Beldurtuta, nik lortu nuen ezkutatzea. Baina Erauskin jaitsi egin zen zuhaitzetik. Mutikoari epelak eman zizkion baserritarrak, arropa guztiak kendu ere bai, eta ondoko errekarra bota azkenik, Alkarte errekarra, oker ez bana-go.

Herria ederra zen haurtzaroan. Zortzi-hamar urte nituela, pasteleria zeukaten Ariztimuño-Imazarrek. Oraindik han egon behar du pastele-

ria hark. Kafea ekartzen zuten kanpotik, eta pasteleriaren atzealdean xigortzen. Begira egoten nintzaien danbolinean zelan egiten zuten xigorketa. Herri osoa eta inguruak gozaten ziren kafe usainez. Oiangu inguruan nenbilenean ere hartzen nuen usain hura, kafea xigortzen ari ziren seinale. Beste denda batean malbabisko karameluak egiten zituzten, tableta moduko karameluak. Haurron artean berehala hedatzen zen albistea, malbabisko karameluak egin berri zituztela. Nabarrikaren dendara ere joaten ginen, Santa Maria kalera. Gaztak, gatzariak eta horrelakoak eduki ohi zituen; gazta zaharra ere bai mostradore gainean, lurrezko ontzi batean; ogi opil batekin sartzen ginen hara; mostradore gaineko lurrezko ontziari tapa kendu, zurezko koilara sartu eta ogi opilean oreztatuko zigun gazta zaharra, garratza, baina guk gustura asko jaten genuena.

Hamaika urte nituela, gabardina luze bat opa-ritu zidan amak. Gabardinari lehenengo egin nion konponketa sakelak zulatzea izan zen. Ho-

rrela, eskuak sakelan sartuta, hondorik gabe, behera luza nitzakeen eskuak. Modu horretan presatuta, puntua egiteko orratz handi bi amari hartuta joaten nintzen azokara. Otzarakada sagarraren ondo-ondoan jarri eta gabardina ipintzen nuen sagarren gainean, *gonapean* erdi ezkutatzekeo aleak. Disimuluan apur bat makurtuz, sakelan behera luzatzen nituen eskuak, orratz handiei helduta, eta sist-sist! sartzen nizkien sagarrei; ostera zuzen jarri eta aurrera, ezer gertatu izan ez balitz bezala, baina orratz bietan sagar banarekin. Gosea maisu zorrotza da; niri asko erakutsi zidan. «Bi orratz ikusi al dituzu inon?», galdetzen zidan batzuetan amak. Hartutako lekuan uztea ahaztu egiten baitzitzaidan.

Barraskiloak eta kardantxiloak saltzen ere aritzen nintzen azokan. Barraskiloak, ehunekoa duroan. Ogerlekoa, halaber, kardantxilo bakoitzaren prezioa. Likaz edo sareharrapatzen nituen. Neure kaiola eta guzti joaten nintzen gero azokara. Baserritarren trasteen artean ipintzen nuen kaiola, norbaitek txoria erosi arte. Aldi batean, kardantxilo izugarri kankailua harrapatu nuen; biligarro edo zozoaren tamaina hortxe-

hortxe izango zuen; ez zen kardantxilo arrunta; ez dut inoiz halakorik ikusi; kaiolako txotxean zegoenean ere, bazterraren kontra egoten zen; kantari aparta, harrigarria, inguruko guztiak aspertzeko modukoa. Txorizaleren batek entzungo zuen zelan kantatzen zuen, eta gustatu, nonbait. Bost durotan saldu nion!

Baina kontuz ibili behar izaten nuen azokan, Patxi Handi aguazila han ibiltzen baitzen bazterrik bazter, zer ikusiko. Hark ondo ezagutzen ninduen, lehenago egina bainion egitekoren bat. Hauxe, hain zuzen ere: estazio ondoan akaziak zeuden, akazia inausiak, parketan eta egon ohi diren platano horien tankera samarrekoak; etxean untxiak edukitzen genituen, eta haiek gobernatzea aitonaren zeregina edo nirea izango zen seguru asko; behin batean bururatu zitzaidan, estazio ondoko akazia haien hostoez egingo niela untxiei egun bateko gobernu, eta baita joan ere, zakua hartuta; akazia buruxketara igo eta soildu nizkien neguan inausi ondoren uda bitartean botatako kimu edo adaska guztiak, zotzak bertan tente utzirik, batere historik gabe, nire zakua ongi beteta; nola edo hala, Patxi Han-

dik jakin zuen nork egin zuen egiteko modu hura, eta Inspekziara eraman ninduen.

Gure aitona eta bien artean prestatu zuten sustoa emateko plana: kalabozora sartu ninduten, eta atetzarra itxi zidaten bizkarrean.

Eskulanak

Kezkatuta dabil Antxon, eskulaneen kontua ez baitu argitu oraindik. Itsasontzien maketak ekarriko zizkiotela agindu bai, baina ez da horien aztarrenik. Lan tresnarik ere ez. Denari baietz esaten diote tailerretako arduradunak eta hezitzaileak. Dena da erraztasun itxura batera, baina ez da fio, ez du fidatu nahi, Castellonen ere gano-razko lanabesik edukitzen utzi ez ziotelako.

- Bizarra egiteko kutxillekin jardun behar, itsasontzirik egin nahi banuen.

Beste egitekorik ez daukanez, hari batzuek eta kartoiez gerrikoren bat edo beste egiten aritu da. Koldo ere eskulanak egitera joaten hasi zen lehengo astean, baina ezezkoa eman diote gaur; ezin daitekeela joan, zerrendan ez dagoelako. Karlos da joaten uzten dioten bakarra. Ondorengo egunetan ikusiko dugu zer asmorekin dabilzan.

Bazkalostean patiora joaten ikusi dut Antxon, gu kafea hartzen geratu garen bitartean. Zutik eta geldi egonda, laster hasten omen zaio gerri-

ko mina; erosoago omen dabil paseatzen, ibilian. Hernia lunbarrak ez du bakean uzten, eguraldia hotz eta heze dagoenean batik bat. Castellondik honako bidean ere, furgoietan erasan omen zion ederki, eta oinazez iritsi. Castellongo hezetasuna aipatzen du behin eta berriz.

- Oheko izarak ere beti bustixeak egoten ziren hezetasunarekin. Baina, tira, min horiek ez dira ezer Menier sindromearen aldean!

Patioan, trabestia edo trabesti izan nahi lukeen beltzarana hurbildu zaiola ikusi dut: eskuak atzean, aldakak dantzatzen, musajea bihurritzen. Patioaren alde batetik bestera bi-hiru joan-etorri egin orduko, besoak eta eskuak halako moduz mugituz ari zaio trabestia esplikazioren bat ematen. Ez dut uste asko aztoratuko duenik Ordiziako txapelduna. Joan-etorrietan asko luzatu gabe, hurbildu den moduan joan da trabesti modukoa beste batengana. Bere ibiliari jarraitu dio Antxonek. Beste batzuekin mintzatu da ondoren, txapelaren gerizpean irribarre zantzoa duela. Horrela aritu da goizean, Puertoko kartzelaz-eta lezioak eman asmotan hurbildu zaion matrikulatu-uste batekin: zazpi urte daramala

kartzelan eta Antxoni hau eta hura esplikatzen. Zazpi urte urte asko da kartzelan egiteko, baina hemezortzi daramatzen bati lezioak emateko adina ez agian. Ahozabalik geratzen dira 18 entzuten diotenean; kartzelan sartu berria zela uste bide zuten.

«Ez du meritu makala gizonak», esan dio Karlosi hezitzaileak. Urrutitik ezagutu gaituztenak, prentsatik edo irratitik edo telebistatik ezagutzen gaituztenak, alde zuzenetik trokelatuta daukaten irudia lotu ezinik aritzen dira aurrez aurre ezagutzeko ikusten duten irudiarekin. Gironako plaza hartan Antxonek txapel-gorriari begiratzen zien moduan begiratzen digute kaletik etortzen diren irakasle, monitore, hezitzaile eta gainerakoek: buztanik eta adarrik ba ote daukagun frogatu nahian, antza.

Aita Ondarretan bi urte inguru preso egonda, gaixo samarrik etxeratu zen. Esango dizut nola.

Gure amaren aitak, aitonak alegia, Inazio del Molino Ilarregik, «Molinos»ek, CAFeko tailer batean lan egiten zuen, baina bazuen bere tailer-

txo bat ere, josteko makinena. CAFetik irten ondoren, josteko makinak konpontzen zituen inguruetako baserrietan. Haiek diruz ordaindu ezin, eta arto, gari, sagarrekin itzultzen zen etxera. Eta jakinik gure etxean elikagai eskasia nabarmenik ez zela, gerraoste hartan sarritan etortzen ziren eskaleak, jateko zerbaiten galdezka. Preso ohiak izaten ziren batez ere, kartzelatik irten eta etxera bidean zihoazenak.

Preso ohi haietako bat egun batzuk igarotzen geratu zen Ordizian. Baina ogia lortzeko eskean aritzea ez zen nahikoa izango, eta, zerbait egiten hasita, Ordiziako elizaren irudia egin zuen buztinaz, dotore egin ere; jateko zerbaiten truke eman zuen.

Horrelaxe, bada, askotan ohi zutenez, etxeko atea jo zuten batean neu joan nintzen irekitzera. Gizon bat agertu zen, buzo urdinez jantzia. Ezer-tarako astirik eman gabe hartu ninduen besoetan. Oraindik ere sumatzen dut masailean haren bizarraren latza. Gure aita zen: oso argal, zikin eta zahartua. Haren eskuek liluratu ninduten: handiak, langilearen esku handitu eta zartatuak, zailduak. Batzuetan gurekin lo egiten zuen, ipui-

nak kontatzen zizkigun, xakean jokatzeko erakutsi zidan. Aitaren liburuetako bat izan zen osorik irakurri nuen lehenbizikoa: *Barre egiten duen gizona*, Victor Hugorena. Urteak geroago, Parisen nengoela, berriro irakurri nuen liburu hori, eta Hugoren gainerako guztiak. Irakurri beharko zen nuke *Barre egiten duen gizona*.

Gerra aurretik aritzen zen lantegian ez zuten aita onartu. Aitonak, orduan, bere tailertxoa eman zion, josteko makinak konpontzeko eta saltzeko zeukana. Sasoi hartan miseria handia zegoen bazterretan, eta jendeak saldu egiten zuen etxeko josteko makina piezaren bat izorratutakoan. Konpontzeko modurik ez zuten izango; salduta, txatarratarako izanda ere, egun batzuetarako janaria erosteko adina emango zien. Gure aitak, beraz, txatarrerian erosten zituen matxuraturutako makina haiek, tailerrean konpondu eta pintatu ondoren, berriro saltzeko. Neu ere aritua naiz josteko makinak pintatzen. Pako Galarza zen txatarreriararen ugazaba, eta aitari deitzen zion halako makinaren bat zeukanean.

Alabaina, aita gaixorik itzuli zen kartzelatik. Gero eta gaixotzenago zihoan. Ez dakit tuberku-

losia ote zuen; urearen kontua zelakoan ere bano. Donostiara eramán zuten ospitalera, Nafarroako etorbidera, gasolindegia ren ondora, Okendo jaio zen baserriaren aldamenean zegoen ospitalera. Han hil zen, gerra amaitu eta lau bat urtera. Urtebete edo bi egingo zituen etxean, gure arreba txikia Nieves jaiotzeko lain. 36 urte zituela hil zen. Gure ama hiru seme-alaba txiki-ekin geratu zen alargun, 34 urterekin, bakarrik.

Ordurako aitona Madrilera joana zen. Madrilén bazuen seme bat, gure osaba Jesus, hango CAFeko tailerren zuzendari zena. Baina horrez gain bazuen bere tailertxoa ere, forja tailerra, metalikakoa. Tailer horren kargu egitera joan zen gure aitona Madrilera. Hari horri jarraituz bide batez, urte mordoá geroago, ni Carabanchelen preso nengoela, osaba Jesusen semea, neure lehengusua alegia, bisita egitera etorri zitzaidan bere alaba txikiarekin. Halaxe esan zidan: «Kartzela honetako barroteetatik batzuk gure forja tailerrean eginak dira», bere aitaren, osaba Jesusen tailerrean alegia. Ustekabeak ematen ditu bizitzak edozein jiraunerén ostean.

Aita hildakoan hasi nintzen lanean, hamabi urterekin. Goenaga kutxilleriako ugazabaren emaztearekin adiskidantza zuen gure amak. Julian Goenaga zen ugazaba, eta Barandiaran emaztea. Adiskidantza hori bitarteko hasi nintzen kutxillerian, bazterrak garbitzen, enkarguak egiten eta horrelakoetan. Baita hango langileei euren zereginean laguntzen ere. Ajuria zeritzan arduradunak bere ondoan nahi izaten ninduen lanean erakusteko. Betaurrekorik gabe eta begietarako babesik gabe soldeatzen ikusi dudan gizon bakarra hura zen; zahartuta ere, hark ez zuen betaurrekoen beharrik izan. Harrigarria da, baina egia. Bi orduetan egiten zuen labanaren ezkutua matrizean. Limatzen ere han ikasi nuen, Miralles ajustadorearekin.

Lantegi hartan batera eta bestera bidaltzen ninduten enkarguak egitera, eta bizikletan joan ohi nintzen. Neure kontuko enkargu moduak ere izaten baintuen nik, beti bizikletan. Inork ezer esaten ez zidanez, iruditzen zitzaidan ez zirela nire faltaz ohartzen. Norbaitek nitaz galdegin eta falta banintzen, laster pentsatzen zuten, non-bait, bizikletarekin joana izango nintzela zerbai-

tera. Oraindik ere izan behar du Ordizian horretaz oroitzen denik; Anza abizeneko emakume bat bai, behintzat; «Non eta nola ote dabil Antxon?» edo antzeko galderaren bat norbaitek egiten duenean, «Orain ere bere bizikletarekin nonbaitera joana izango da» erantzuten omen du.

Nieves Santamaria zen kutxilleriako ofiziniستا. Ni baino bost-sei urte nagusiagoa izango zen. Nieves honek meza-liburua oparitu zidan behin; mezatara joan bakoitzeko duroa emango zidala agindu zidan. Eman ere bai, baina Gurrutxaga maisua organoa jotzen entzutearren joaten nintzen elizara, ez mezagatik. Umetatik gustatu izan zait musika klasikoa, eta musika entzutearren elizara eta edozein lekutara joango nintzen.

Goenagarenean oso ondo portatu ziren nirekin. Ezin gusturago ibili nintzen han.

Koskortutakoan hasi ginen Tolosara joaten. Han ikasi genuen dantzan. Trenez joaten ginen, eta gauean itzultzeko hamarretan izaten genuen berriro trena hartu beharra. Baina beti galtzen

genuen hura, gero hamabietan pasatzen baitzen merkantzia. Merkantzia Beasainen geratzen zen, ordea, eta handik Ordiziara oinez itzuli behar. Garai hartan sekulako giroa izaten zen Tolosan, Ordiziakoa baino askoz irekiagoa eta alaiagoa. Neska koadrila baten ezagutza egin genuen han, geltokian gu iritsi zain egoten zitzaiguna. Neska koskor haietako bat oso lagun egin nuen, Margari. Egun batean bere argazkia oparitu zidan, marko eta guzti. Argazki harekin etxeratutakoan zeharo aztoratu zen gure ama. Bizitzako lanak eta planak antolatzen hasi gabea, artean gazte-txoegia nintzela pentsatu bide zuen.

Gure ama aski pentsamolde irekikoa zen hala ere. Beti utzi izan zidan neure kasa ibiltzen. Meztara-eta joatera ere ez ninduen egundo behartu. Batzuetan jakingo zuen nondik nora nenbilen eta beste batzuetan ez, baina inoiz ez zidan egiten nire ibilerekiko galdeketarik eta errietarik. Eguneroko beharretan izango zuen nahiko kezka eta buruhauste niri kargu hartzen ibili gabe. Boladaren batean behintzat, Acumuladores Oxibol enpresan lan egin izan zuen.

Gerraostean errazionamendua zegoen gauza guztietarako, badakizu. Bakoitzak bere zedula zeukan, bere txartela edo agiria, beharrezko gaiak erosteko eskubidea ematen zuena. Nik hamahiru urte nituela ez neukan tabakoaren errazionamendu eskubiderik, jakina. Hemezortzi behar nituen horretarako. Beraz, zera asmatu nuen... 13 zenbakiko 3aren gainean beste 3 bat ipini nion alderantziz, 8 bilakatzeko. Eta hor noa estankora; eman diot txartela hango andreari; eta hark: «norena da hau?»; eta nik: «Anaia nagusiarena», lotsagabe eta lasai asko erantzun. Hark bazekien ondo nik ez neukala anaia nagusirik, neu nintzela anai-arrebetan zaharrena; ondo ezagutzen baitzuen gure familia. Baina «hara, hara; zoaz!» esan zidan, hemezortzi urtekoari zegokion tabakoa emanda. Hilero joango nintzen estankora nire tabako bila, eta hilero emango zidan. Tabako hartatik gehiena saldu egiten nuen taberna batean, eta bestea neuk erre, Abadie papertxoarekin zigarroa eginda. Orduan hasita, berrogeita zortzi urte inguruan jarraitu nuen erretzen, duela zortzi utzi nion arte.

Goenaga kutxillerian lanean urte pare bat neramalarik, sasoi hartan ezkondu zen berriro ama, Rafaelekin. Aitaordeak konbentzitu zuen gure ama ni lantokiz aldatzeko, eta CAFeko forja batera joanarazi ninduten. Hamabosten bat urte izango nituen. Oso lan gogorra zen forjako: aurpegia eta aurrealdea sutan eta bizkarra izoztuta lanean, ofiziale guztien pintxe gainera. Urtebete iraun nuen han.

Goenagaren kutxillerian eta gauetan Arte eta Ofizioetako eskoletan ikasi nuenarekin, Beasaingo tailer baterako ofiziale frogara aurkeztu nintzen. Primerako eta segundako ofiziale postua eskaintzen zuten. Miru isatsa eman zidaten egiteko; ar eta emearena egin behar nituen, eta baita egin ere. Lehen edo bigarren mailako ofizialearenik ez zidaten eman, baina bai hirugarren ofizialearena.

Andazarrate

Urteak dira aurrez aurreko bisitarik egin ez duela Antxonek. Herreran horrelako bisitarik ez zegoelako, eta Castellonen arazoren batzuk jar-tzen hasi zitzaizkielako denei eta gehiago eska-tu ez zuelako. Kontua da bere arrebaren biloba txikiak, adibidez, inoiz ez dituela besarkatu. Hemen badirudi ez dagoela arazo berezirik bisitatarako. Eskatu egin du, eta baita onartu ere. Larunbatean urduri sumatu dut, aurreko egune-tan baino urduriago. Astean zehar, tarteka egin ditu larunbateko bisitaren aipamenak, nortzuk etorriko zaizkion, zelan izango ote den egoera... Goizetik dabil egon ezinik, arratsaldeko bisitan darabil gogoia, ez dugu zalantzarik. Koldok ere ordu berean izango duenez, elkarrekin joango dira.

Bidea dago hemendik bisitetako egoitzara. Modulutik irten eta espaloi modukoan aurrera joan behar duzu, kiroldegiaren ingurutik igaro eta aurrera, espetxearen erdiguneko dorre han-dia ezkerrean lagata. Hormetan egindako pintu-

rak ikusiko dituzu, paisajeak: aintzirak, mendiak... Hormetan margotuta dago errealitatean ageri ez dena.

Bazkalondoan laster igo gara ziegetara. Ordu bietarako ixten dizkigute ateak, eta lau t'erdietan irekiko dizkigute ostera, patiora jaisteko. Siesta garaian joango dira eurak bisitara.

Arratsaldeko bostak pasatxo, badatoz bisitatik Koldo eta Antxon. Irribarre zabala dakar Antxonek txapelpean. Serioago dator Koldo, haserre itxuran. Bisitara joanda, jende multzoa elkartu omen dira; hemen alboko moduluan dauden hiru nesketako bik ere aurrez aurreko bisita eizuten ordu berean (Itziar geratu da moduluan, Onditz txikia zaintzen); elkar agurtzeko eta momenturen batean elkarrekin egoteko aukera izan dute, baina Maitanek eta Amaiak kasurik apenas egin omen diote Koldori; Antxonekin izan dituzte kontu eta mimo guztiak, musuak eta besarkadak. Antxonek barre egiten du, Koldok marmarrean kontaktzen digun bitartean.

Bisita zoragarria gertatu dela diosku Antxonek.

- Arreba Nieves etorri zaidak, bere alabarekin eta suhiarekin... eta hauen bi haurrak ere bai!

Auskalo zelako eskandalua sortu dioten txiek. Ikusi bezain bizkor hurreratu omen zaizkio. Haurrek ba omen zuten mila kontu, helduek ez gutxiago. Pozez gainezka dago, poz kutsakorra dario.

Aitaordearekin ezin konpondua, etxeko itomena, adinaren ezinegona eta ihesi-nahia, dena nahastu zitzaidan apur bat. Gu hiru anai-arrebagin, eta aitaordeak bazituen beste hiru bereak. Eta gure amarekin beste bi seme izan zituen, gainera. Zortzi ume ginen etxean, eta ez da harritzekoa itolarria izatea. Bi aldiz ihes egin nuen etxetik, eta guardia zibilek ekarri ninduten ostera, Nafarroatik, Faltzestik aldi haietako batean behintzat. Azkenik, 1951ko abenduan alde egin nuen Donostiara, hogeituroterekin.

Ortiz y Abellan tailerrean hasi nintzen Donostian. Leku horretan lanean hastean, ordea, medikuarengana bidali ninduten, Don Emiliano Eizagirrereingana. Aztertu ninduen, eta tuberkulosia

neukala esan zidan. Garai hartan heriotza zigorra zen tuberkulosia edukitzea; gaixotasun oso larria zen, sendaezina ia, ez baitzegoen sendagairik. Eta hala ere, tuberkulosi eta guzti, onartu egin ninduten tailerlean. Hilabete batzuen buruan sukar handiz oheratu beharra izan nuen arte. Lanean aritu nintzen denboran jarraitu izan nion sendagilearengana joateari, hark aztertzen ninduen, baina ezer askorik ezin zuen egin, zer neukan jakinda. Ondo jatea eta atsedean osoa hartzea ziren orduan tuberkulosiaren kontrako erremedioak. Atsedean hartzekotan ezin zenuen lanik egin, eta lanik egin ezean ezin zenuen jan, ez ondo ez gaizki. Beraz, aukera bakarra zen lanean jarraitzea, eta halaxe egin nuen, erabat jota geratu nintzen arte.

Osaba Juanitoren etxean bizi nintzen Donostian, aita zenaren anaiaren etxean. Emiliano Eizagirre doktoreak etxera egiten zizkidan bisitak. Sanatoriora batera joatea izango zen niretzako konponbidea, baina sanatoria ez zen edozein joaten, beteta egoten zirelako. Osabaren etxera egiten zizkidan bisitetan konturatuko zen sendagilea, han ez nindutela oso gogoko, ez nindutela

trapu zahar bat baino gehiago zaintzen. Inork inguruan nahi ez duen krakadunaren moduan nindukaten traste zaharrak gordetzen zituzten gelaitsu batean, beste traste zahar bat gehiago, etxean edukitzeko baino jaurtitzeko hobea nintzena. Horretaz guztiaz ondo ohartu bide zen Don Emiliano sendagilea, eta Andazarrateko sanatoriora joan nahi al nuen galdetu zidan isilka. Aia eta Asteasu bitartean zegoen Andazarrate sanatorioa. Don Emilianok Andazarrateko zuzendariarekin eginak bide zituen ikasketak, adiskideak ziren. Lortu zuen niretzako lekua. Nik banekien ondo nolako gaixotasuna zen tuberkulosia; banekien sendagairik ez zegoela; eta etsita nengoen, hilko nintzela. Hogeita bat urte nituen orduan, eta hogeita bost arte bizitzea asko izango zela iritzita nengoen.

1952. urteko iraileko igande batez joan nintzen Andazarratera. Sarriegi plazan Asteasuko Agotetarren autobusa hartu eta, nire orduko ustez, azkena izango zen begirada bota nion Kontxari. Arraunlariak ziren goiz hartan. Agur Kontxari eta agur Donostiari, nire artean.

Lan egin nuen fabrikako nire baja osaba Juanitok eta bere amak kobratzen zuten, baina behin bakarrik joan zitzaizkidan Andazarratera bisitan, kilo bat platanorekin.

Gure amak jakin zuen Donostian gaixorik nengoela, baina hain gaizki nengoenik eta gutxiagorik ere ez; ezta sanatoriora joatekoa nintzela ere. Andazarraten nengoela jakin zuenetik, ahal zuen guztietan etorri zitzaidan, hutsik egin gabe, jakiz kargatuta: eltzekaria, fruta... Fabrika-ko nire bajarekin eta osabaren etxeko gorabehe-ekin zer gertatzen zen ohartutakoan hasi zen zuzenean fabrikara joan eta baja kobratzen. Horri esker eramaten zizkidan jakiak. Neuk ez ezik, inguruan nituenek ere jaten zuten hartatik. Ordiziako koadrilakoek ere ipintzen zuten zer-bait, eta horrekin guztiarekin pila ekartzen zidan amak.

Ahal zen ondoen jan eta atsedean hartzeaz gain, ezer gutxi egin nezakeen. Penizilinarik ez zegoen artean, blokeoagatik. Berrogeita hamabian sinatu zuten blokeoaren azkena Franco eta Eisenhowerren artean. Geroxeago estreptomizina iristen hasiko zen.

Gogoan dut intsulina ematen zietela apeturik ez zeukaten gaixoei. Nik ez nuen halako arazorik. Andazarrate aurrean bazegoen baserri bat, Maria izena zuen hango etxeko andreak. Sarritan joaten nintzen hara, sekulako txorizo zatiak jaten nituen arrautza frijituekin.

Gaixoz leporaino beteta egoten zen Andazarrate, bakar bat gehiago sartzeko lekurik gabe. Baina ez ginen beti berdinak egoten. Jendea aise aldatzen zen han, batzuk hiltzen zirelako eta haien lekua betetzera beste batzuk ekartzen ziztuztelako. Gaur musean-edo ariko ginen lauokotea mahaian eserita; hurrengo egunean berriro eseriko zinen beste saio bat egin asmoz, baina ohartzen zinen bezperakoetatik bat falta zela, edo bi agian. Hil egin zirela, alegia. Egun batetik bestera hiltzen eta desagertzen ikusten genuen jendea. Urte haietako miseria eta lazeriaren ispilugarbia zen leku hura. Donostiako osaba eta amona platano kiloarekin bisitan etorri zitzaizkidan hartan, harmailetan behera jaisten ari gine-la, nik ere eskua barandan ipinita nuela, baranda hura gaixoeak ukitzen zutela eta eskurik han ez ezartzeko esan zieten. Apestatuak ginen gai-

xook, tuberkuloso apestatuak. Ez zuten gudan itxaropen handirik. Bazen han zestoar gazte bat, sasoirik onenean zegoen mutila... Indartsu zegoela zirudien arren, egun batetik bestera hil zen. Beasaindar bat ere bai, Mata abizena zuena; neumotorax tratamendua egin zioten, baina hobe-kuntzarik eragin ez zionez, plastia ebakuntza egin behar; ebakuntzaren ondoren bisitan joan nintzaion, animatua ikusi nuen goiko gelan; hurrengo goizean hil zen. Arruabarrena zeritzan bat ere bazen, marrazten artista zena; Merced egunean jaia antolatu zuten mojek, eta batzuk mozorrotuta ibili ginen marrazkilariari adorea ematen, baina ez dakit zer atarramentu izan zuen. Mendaroko bat ere hil zen, eta beste asko ere bai. Eguneroko ogia zen.

Heriotza-giroa zen Andazarratekoa. Eta hala ere, txikitan ohi nuen moduan, likarekin kardantxiloak harrapatzen ibili ohi nintzen, kardantxiloen ordeztantxangorriak harrapatu arren.

Bazen Asteasuko baserritar bat, Korta zeritzana, Andazarrateko lorategia eta inguruak atontzera joaten zena. Guk bageneukan hara nonbaitetik agertutako ardi-zakur bat. Nonbaiten

galdu egingo zen eta haraxe agertu. Jateko zer-
bait ematen genionez, geurekin ohituta zegoen,
neurekin batez ere. Egun batez, Asteasuko Korta
hori aitzurrarekin ari zela, hurbildu egin zitzaion
gure zakurra. Kortak aitzurkada eman zion bu-
ruan, eta akabo gure txakurra! Seko akabatu
zuen.

- Zakur bat besterik ez zuan. Lehen ere gar-
bitua nauk paparrean gurutzerik ez zeraman
zakur bat baino gehiago!

Erreketea izana baitzen Korta hori, eta erre-
keteek gurutzea eraman ohi zuten paparrean,
edo Jesusen Bihotza. Horrek erakusten du zela-
koa zen gerraosteko giroa, irabazleen harropuz-
keria, gerra amaitu eta oso gerora ere. Edozein
kakalardo izan arren, harro eta boteretsu ager-
tzen zen irabazleen bandokoa zenean.

Sei hilabete egin nituen Andazarraten. Den-
bora gutxi zen hori orduko egoeran. Tuberkulo-
sia ez baitzen, onenera jota ere, hain bizkor eta
aise gainditzen. Dena dela, ez dut esango sei hi-
labete haietan sendatu egin nintzela, baina sus-
peltu bai apur bat. Handik alde egitean amak
etxera eraman nahi izan ninduen. Nik ez neukan

Ordiziako etxera itzultzeko asmorik, neure kontura bizitzeko erabaki tinkoa hartua baizik. Andarratetik elkarrekin jaitsi ginen ama eta biok Billabonara, Agotetarren autobusean. Amak Ordiziarako trena hartu zuen, eta nik Donostiara. Penaz eta minez zegoen ama berarekin etxeratu nahi izan ez nuelako, baina nik ezin nuen aitaorde harekin eta giro hartan bizi.

Osaba Juanito eta amonaren etxean jo nituen ateak. Ireki bezain bizkor esan zidaten han ez zegoela niretzako lekurik. Sanatoriotik jaitsi berria, ahul eta aterperik gabe, sendagilea lanik ez zitzaidala komeni esanez, haatik lehengo lantegira itzulirik... txarto!

Garai hartan, sanatorioak ez ezik etxeak ere gaixoz beteta zeuden. Aurkitu nuen, ordea, lo egiteko ostatua Amara Zaharreko familia baten etxean. Tuberkulosia ugaria zen orduan. Etxeetan perretxiko antzeko bat eduki ohi zuten kristalezko ontzietan uretan ipinita; ur hori edan ohi zuten tuberkulosiaren aurkako txerto moduan. Emiliano Eizagirre doktoreak estreptomizina hartzeko aholkatu zidan. Urtebetera Bravo doktoreak aztertu ninduen, erradiografiak eta abar

eginda: ostera sanatoria joan behar nuela! Lehendik animoso ez banenbilen, lur joa geratu nintzen hori entzutean, eta pikutara bidali nituen sendagile guztiak. Denbora luzean ez nintzela biziko etsita nengoen, baina Don Emilianok agindutako estreptomizinarekin neure kontura saiatu nintzen. Egunean hogeita bi pastilla hartuz iraun nuen 1958ra arte.

Donostia

Herrira agertzen nintzen noizean behin, amari bisita egitera, baina ostera Donostiara itzultzen nintzen, neure barruti bakartira. Arreba txikia Nievesek ere gaizki pasako zuen garai hura etxean. Gure ama Beasainen hil zen oraintxe bost urte, arrebaren etxean. Nieves ere Beasainen bizitzen hasiz geroztik ez dut uste hurbilduko zenik Ordiziako jaiotetxera. Ez du, nonbait, hango oroitzapen onik. Nik beti izan nuen ama-rekin harreman ona. Oso zahartuta egon arren, kartzelara ere ahal zuen guztietan etortzen zitzaidan, Castelloneraino azken urteetan, pentsa! Laurogeitaka urte zituen! 1987ko udan besarkatu nuen azken aldiz, Carabanchelgo ospitalean egon nintzenean.

Donostian hainbat ofizio eta lantokitan ibili nintzen. Gero eta hobeto nenbilela igartzen nion neure buruari, bai osasun aldetik eta bai gainerakoan. Nire gaixotasuna, etsipenak, hogeita bost edo hogeita hamar urtera arte biziko ote nintzen eta kontuak... ahazten joan zitzaizkidan

poliki-poliki. Lagunarte berriak egin nituen. Alde Zaharrea hartzen genituen txikitoak. Oso animatua egoten zen Alde Zaharra igande goizetan batez ere. Gazte eta zahar, nahasian ikusten zen jendea han. Hala ere, bazen nahasmen hartan murgildu gabe Alde Zaharrea, Bulebarrea eta inguruetan beti elkarrekin ibili ohi zen bikote bat, anaia bi. Egundo ez nituen ikusi taberna batera sartzen eta ardoa edaten, edo lagunartean parrandan. Beti elkarrekin eta beti besteengandik berezi zebiltzan, zut-zutik biak, tente, hara eta hona begiratzen... Mujika Herzog anaiak.

Nire lagunartekoak futbolzaleak ziren, baina ni ez nintzen futbolaren lagun. Atotxa futbol zelaian behin bakarrik izan nintzen; Realak eta Atletico Aviacionek jokatu zuten. Nahikoa. Zerenketara ere beste behin, eta horrekin ere aski. Maiteago nuen kantu gregorianoa, esate baterako. Camino kaleko kaputxinoen elizara igotzen nintzen igandero. Elizara ez, behera ez, jendea meza entzutera joan ohi den lekura ez. Elizako atetik gabe, Okendo kaletik, fraideen etxebizitzatik sartzen nintzen; elizaren goiko pasillora heltzen nintzen, eta handik korura baino gorago.

Oso gustukoa nuen musika. Hangoa bukatu ondoren, Victoria Eugeniara askotan, Usandizagak zuzentzen zuen kontserbatorioko orkestra entzutera. Anfiteatroko sarrera: pezeta bat. Hantxe entzuten zen ondoen, anfiteatroan.

Esan beharrik ez dago frankismoaren parafernalia oso nabaria zela sasoi hartan. Hiriko jaietako Salbean Udaletxetik Santa Mariaraino paliopean eramaten zuten Franco. Donostiako egonaldian Aieten izaten zenez, denboraldi horretan Aieteko etxera eramaten zituzten Gipuzkoa Plazako ahateak ere, eta beste batzuk Ondarretako kartzelara.

Bai Donostian, eta lehenago Ordizian ere bai, zinemara joaten ginen maiz. Pelikula hasi aurretik Francoren irudia azaltzen zen, eta kristo gutiak zutik jarri behar izaten zuen, besoa jasota, *Cara al sol* abesteko. Horretarako egoten zen zinemaman, eskolako maisua egoten zen moduan, txapel-oker bikotea, gazteak esertzen ziren inguruan. Behin, Ordiziako zinemara sartuta -*Raza* filma eman zutela esango nuke; Alfredo Mayo, Jose Nieto eta aktore horiek zirela uste dut-, iskanbila itzela piztu genuen. Zinemako ardura-

dun Antolinek esan zien guardia zibilei ni izan nintzela zalapartaren sortzailea. Kuartelera eraman ninduten, zaplada batzuk eman zizkidaten han, eta 250 pezetako isuna ezarri.

Hernia lunbarraren oinazez dabilela diosku Antxonek. Hezetasunak edo hotzak ukitzen duenean, edo zerbaiti postura deserosoan indarrez heltzen dionean, orduan batez ere, minari ezin eutsirik ibili ohi da.

Castellondik honako bidaiari egindako egunak aipatzen ditu:

- Ordu asko izan dira furgoiko kaiola deseroso horietan eserita, zutitu ezinik, mugitu ezinik eta egon ezinik. Zeharo minberatuta geratu zait gerri aldea.

Arropa eta janzki gehienak Castellonen utzi zituen, bidaiari ez ibiltzearren traste guztiekin tarraka. Bera baino lehen helduko zela hona han utzitako paketea, esan omen zioten, baina egunak eta asteak aurrera doaz eta paketerik ez da agertzen inon, eta hemen fresko samar egiten du goizetan eta gauetan, hotz ere bai behe-lai-

noa sartzen denean. Batari eta besteari galdezka jarduna da, baina sorbaldak jasotzen dituzte hemen. Paketearen bidaia kobratu diotela ageri da pekulio kontuan, baina paketearen arrastorik ez. Horrelakoxe misterioak gertatzen dira etxe hauetan sarritan. Aldatzeko arropak, oinetakoak, liburu eta gainerakoak, denak hor nonbait ibiliko dira, ganoragabekoren baten eskuetan.

Hala ere, Menier sindromeak tarteka ematen dizkion larrialdiei die beldur handiagoa hotzari, hernia lunbarrari eta antzeko min guztiei baino; hutsaren hurrengoak omen dira Menier larrialdien aldean. Dagoen lekuan dagoela, aulkian eserita edo ohean etzanda, oreka galarazten dio sindromearen larrialdiak. Oka hasten omen da, izerditan, inon ezin egonik. Aulkian eserita bada-go, erori egiten da larrialdiak emanaz gero...

- Gaizki pasatzen dut bost-sei orduz. Belarri bateko entzumena galdua dut gehiena. Eta bietako entzumen osoa galtzen badut bakarrik sendatuko omen zait Menier sindrome hau.

Entzumena gauza ederra dela dio. Oso maittea du musika ere. Baina nahiago lukeela erabat

galduko balu dena berehala!, sindrome horren larritasunik gehiago ez izatearen alde.

- Edozein eretzeko modukoa da. Lehen sarrigo izaten nituen larrialdiak; orain hilean behin edo bitan, batez beste. Zer egingo diogu bada!

Denbora luzean ibili da medikutan Castellonen, erresonantziak eta auskalo zenbat froga egin zizkioten han ospitalera eramanda. Azken hitzordu bat omen zeukan traumatologoarekin, kundan atera zuten egunean hain justu.

- Gauzak prestatzeko esan zidatenean, kartzeleroa oker egongo zela eta deia kontsultara joateko izango zela pentsatu nuen. Baina ez. Kontsultara abiatu ordez, hona abiatu ginen, kundan.

Goizetan, patiora irteten garenean, hotz egiten du; haize fina eta hotza dabil, hezurretaraino sartzen dena, ondo jantzita egon arren. Hezetasuna baino hobea dela haize hau, esaten du Antxonek; Castellonen zeukaten jasanezinezko hezetasun hura dela izan litekeen gauzarik txarre-na.

- Hormetako karea harrotuta egoten zen. Eskua edo erratza pasatuz gero, erori egiten zen karea. Lizun berde eta urdina izaten zen gelako bazterretan. Lurra fregatuz gero, ez zen egun osoan lehortzen.

Hemen, La Moraleja honetan, kanpoan ez ezik barruan ere haizea dabil; haizearekin funtzionatzen baitu berogailuak ere. Dena haize izango dugu, beraz, hemen.

Zaragozatik eta Madrildik, batez ere, etortzen ziren udatiarrak Donostiara. Francorekin batera etortzen zirela ematen zuen. Generalisimoa izaten zen egunetan txakurrez josita egoten zen hiria; euren etxean bezala ibiltzen ziren. Alcalde tabernan sartzea aski zenuen jauntxo haietako-
ren batzuk ikusteko lasai ederrean. Francoren alaba ikusi izan nuen han inoiz edo behin jabugo urdaiazpikoa jaten. Orduan jabugoaren eskusiba eduki bide zuen Alcalde tabernak. Geroago La Cepa tabernak eta Valles bodegoiak kenduko zioten eskusiba hori.

Ez dut esango zenbait gunetxotan, zenbait zirkulutan nolabaiteko «konfabulazio» edo «konspirazio» girorik, ernamuin moduan izanik ere, izango ez zenik. Baina orokorrean ez zen horrelakorik sumatzen. Bentzutuen sindromea eta autozentsura uste baino barrurago sartuta zeukan jendeak, eta entzun ere ez zuen egin nahi izaten politika konturik edo antzekorik. Futbola zen jendearen hizketagaia eta kezka nagusia, futbola gora eta futbola behera, nazkatzeko moduan. Hartarainokoa zen jendearen amnesia eta kontzientzien ezabaketa. Langileen arazoez, arazo sozialez, eta horrelakoez zerbait aipatzen banuen, berehalaxe erantzuten zidaten lagunek ohiko arrunkeriaren bat: «zu beti politikaz», «orain ere politika alu horrekin». Bazirudien, futboleko auziak konponduz gero, konponduta zegokeela munduko injustizia. Amorragarria zen, etsigarria erabat.

Inguruetako auzuneak eta herriak maite nituen. Hondartza ez nuen batere gustuko; mendia nahiago: Landarbasoko kobetara, Mendiola sagardotegira, Intxaurrondoko Argel baserrira... Oreretara ere joaten ginen sarritan, merienda-

tzera eta dantzara; dantzara batez ere, kioskora. Hara nahiago bakar-bakarrik joatea. Txuleta piperrekin, ardoa eta ogia bost durotan meriendatzen nuen; edo Madalena tabernako tripaki ka-xuelak; eta gero Alamedara dantzara.

Igeldoko erromeriak ere gogoan ditut, eta Hernanikoak. Meriendatzea izaten zen lehenengo egiten genuena, ahal zela txuleta. Hernanin, Tiloen kiosko inguruan zeuden tabernetan, karta moduko boletoak saltzen zituen gizon batek, eta tarta bat zozketatzen zuen gero, nata zuriz egingakoa. Askotan, izugarri askotan, beti gertatzen zela esango nuke, neuri tokatzen zitzaidan tarta hura. Zorte ikaragarria nuen horretan, bai horixe. Lagunak harrিতuta geratzen ziren; «gaur ezetz tarta hik atera!» esan zidaten behin; nik orduan: «zuek aukeratu karta!»; eta lagunek: «eska ezak bateko ezpata!»; eta, halaxe, bateko ezpataren boletoa erosi nion. Norentzat atera zen goxokia? Niretzat, jakina.

Neskalaguna

Zorte ona neukan, gezurra badirudi ere. Hara: Ordiziako jaiak ziren, Santanak alegia, uztailean. Urtero joaten nintzen Ordiziako jaietara; nola ez nintzen ba joango. Baina urte hartakoan ezinezkoa gertatu zitzaidan, lanarengatik. Neure kontura aritzen nintzen orduan, eta lan asko neukan, eta ezin libratua egokitu zitzaidan Santanetan. Nola edo hala ospatzeko asmotan, lanean jardun ondoren, bazkaltzera sartu nintzen jantoki on batean. Egundoko bazkaria egin nuen, arkumea eta guzti. Jatun ona izan naiz beti, eta sasoi hartan zer esanik ez. Hala bazkalduta, Santa Klarara joan eta siesta egitea pentsatu nuen. Moilara iritsi nintzen ontzia hartzera, eta han nire lehengusu bi eta euren lagun batekin egin nuen topo. Santa Klararako asmotan zirela esan zidaten, abiatzeko puntuan zeudela. Ezin egokiago, beraz, eta horrelaxe abiatu ginen laurok. Santa Klaran ontzitik jaitsi eta ibiltzen hasi besterik ez genuen egin... lau neskekin topo egin genuenean.

Bitxia izan zen, destinoak prestatuta, niretzat zain eduki izan balu bezala gertaera hura. Neskekin berriketan hasi ginen, bakoitza neska baten ondoan eserita. Eta zehaztasunik txikieneraino egongo zitzaidan patua halaxe prestatuta, nire neskalaguna izango zenaren ondoan eseritzea egokitu baitzitzaidan, berarekin hasi bainintzen berriketan. Han eta modu zehatz horretan elkartu ginen lau bikoteetatik hiruk aldarerainoko bidea egingo genuen gerora.

Uztailak 26 hartatik aurrerantzean uda osoan jarraitu genuen elkarrekin ibiltzen. Negua heldu zenean erabat deliberatua nengoen Maria Victoriarekin jarraitzera. Ez zait egundo damutu.

Elkarren ezagutza egin eta urtebetera, Principe zineman geundela, ondoeza sentitu zuen. Ez-tarriko infekzioren batekin zebilen, eta harengatik izango ote zen pentsatu genuen. Baina larrialdia erreuma artikularragatik izan zen. Bere gaitxotasunaren lehen zantzuak besterik ez ziren izan. Larritasun horren ondorioz oheratuta egon behar izan zuen hilabete batzuetan.

Bere aitaren esportazio negozioko kontuak eramaten zituen Maria Victoriak, arrain esporta-

zinoa, negozio joria, zinez. Nire lanari dagokionez, aldiz, pintura tailertxo bat neukan, etxeak-eta pintatzen aritzen nintzen. Hogeita bost urte izango nituen orduan, Maria Victoriak hogeita hiru. Nire asmoa, ordea, Venezuelara lanera joatea zen, eta Maria Victoria bera ere ados zegoen horretan. Aukera oso onak zeuden Venezuelan, 1958an hango diktadore zen Perez Gimenez erori arte; orduan inmigrazio guztia itxita edo etenda laga zuen gobernu berriak. Horren ondorioz aldatu behar izan genuen gure xedea.

Urte hartako irailean ezkondu ginen, Groseko San Inazion. Ezkondu aurretik elizan frogatu moduko batzuk gairatu beharra zegoen; elizako kontuak, edo apaizenak, garai batean lehen jaunartzerako egiten zuten moduan. Otoitzak bazenekizkiela eta abar erakutsi behar zen, baina nik otoitzik ez nekien bat bera ere. Ezkonduko gintuen abadeak bazekien horretan ez nenbilela sobrante. Ikasi egin behar nituela esaten zidan berak, nik ezetz. Tirabira eduki genuen egun batzuetan. Ordiziara informeak eskatuta-edo, bazekien nonbait lehen jaunartzerik ez nuela egin, confirmaziorik ere ez, beraz. Horregatik zebilki-

dan hain temoso. Ezkondu bezperan Maria Victoria eta bi koinatugaien aurrean esan zidan:

- Otoitzak ikasten ez badituzu, ez zaituztet ezkonduko.

- Abade jauna -errespetuz erantzun nion-, zuk ezkontzen ez bagaituzu, bihar bertan ezkonduen moduan bizitzen hasiko gara.

Amore eman zuen, amorrarazita baina... Ezkontza egunerako prestatu zidan amarrua, bere azken lakioa: jaunartzeko unean ostia atzamarretan zuela etorri zitzaidan, hura irentsaraztera. Bistan da, hura ez zen eztabaidan hasteko momentua; denen aurrean nik ezezkoa egin nion mutur aurrean jarri zidan ostiari, burua alde batera eta bestera jiraturaz. Etsi egin behar izan zuen abadeak.

Eztei bidaian Segoviara iritsi ginen. Gogoan dut, Acueductoaren azpian zegoen bizargin batengana sartu nintzela; bizarginaren telebistan ikusi nuen Joan XXIII.a aita santuaren ke zuria, 1958ko irailean. Segoviatik Toledora: Juderian ibili, El Grecoren pinturak begiratu eta abar. Katedralaren azpian bi sala handi zeuden, sotano moduan; sala horietako batean elizaren harribi-

txi eta ondasunak zeuden, eta haien artean Ameriketako hartutako lehen hamalau kilo urreak ere bai, sagrario bihurtuta. Bigarren sala handia Inkisizioari eskainia da; eta sala honetan, besteak beste, torturatzeko erabiltzen zituzten trankankuluak daude. Traste haien artean oso berezi nabarmen zen Ama Birjinaren burdinazko irudi bat, besoak zabalik zituena; Ama Birjina haren kontra lotuta ipintzen zuten zutik galdekatu behar zuten akusatua; Ama Birjinaren atzealdetik giltza bati eragiten zion inkisidore galdetzailerak; giltzari koska bat estuago eragin ahala, besoak itxi egiten zituen Ama Birjinak, akusatu bekataria besarkatuz; eta besoak ixten eta besarkada estutzen zihoan heinean, titimuturretatik biltze zorrotz eta mehe irteten zitzaizkion Ama Birjinari, akusatuaren haragian sartzeko. Ama Birjinaren besarkada amoros hura amaitzean, erabat damututa geratzen zen bekataria madarikatua, nola ez!

Baina ahantz ditzagun orain torturak. Etorriko dira gero ere.

Aldi batez Maria Victoriaren gurasoen etxean bizi beharra izan genuen, Intxaurrondon geure etxetxo bat aurkitu genuen arte.

1959-60ko Ley de Estabilización zeritzana kausa, gaizki zebilkidan langintza. Ez baitzegen. Aitaginarrebaren eskaintza onartzea beste erremediorik ez zitzaidan geratu, eta lau urtez aritu nintzen kamioiarekin arraina partitzen, Donostia inguruetakoko herrietara, Nafarroara, Zaragozara... Orduak eta orduak egiten nituen kamioiaz, atsedetik gabe, egunean hogeita hiru ordu askotan. Astelehena izaten nuen soilik atsedeen eguna. Astelehena, eta hura ere ez osoa, arratsaldera arte baino ez. Arraina partitzeaz gain, erosi ere neuk erosi behar izaten nuen bazuetan. Atera kontuak. Eta hori guztia hilean lau mila pezeta ziztrin irabazteko; eta Maria Victoriak beste bi mila, nire erdia.

Inork ez nau ustiatu aitaginarrebak bezainbat, inork ez.

Paris

Irungo emigratio erakunde baten bitartez lortu nuen lanpostua Parisen. Espainiako hogeitaka beharginekin batera joan nintzen trenez 1962ko irailean. Aukeran eskaini zizkidaten Michelin Clermont-Ferrandekoa edo Simca Poissykoa, Paristik hurbil, 30 kilometrora. Simca aukeratu nuen, Poissyn. Paristik lantegira metroan eta autobusean egiten nuen bidea.

Maria Victoria ni baino hilabete geroago iritsiko zen Parisera, eta hilabete horixe izango zen elkarrengandik bananduta bizi izan ginen denbora bakarra.

Faktoriak berak eman zidan ostatua Parisen, galego batekin eta andaluz batekin. Manolo zen galegoa, eta andaluziarra Eusebio. Ezer asko gabe joaten zen hara jendea. Eusebio horrek, esate baterako, aldatzeko arroparik ere ez zeukan; neuk eman nizkion; oinetakorik ere ez, etxean egoteko zapatila pare bat besterik ez; baina labana handi bat bai ordea, bandoleroen tankerakoa, beti aldean erabiltzen zuena. Egun

batez, lanera bidean, autobusera igo eta, ez dakit nola, nahi gabe inondik ere, oina zapaldu nion han zihoan arabiar bati. Nik ez nion jaramonik egin hala ere, eta esertzera joan nintzen. Baina Eusebiok ikusi egin zuen arabiarrek gaiztoz begiratu zidala; eta ez hori bakarrik, arabiar hark sakelatik labanatxo automatiko bat atera zuela eta harekin mehatxu-jolasean hasia zela. Andaluza arabiarren atzean jarri, bere bandolero labana sakelatik atera eta, krak-krak-krak, ireki zion nabarmen erakutsiz. Kito... anaien arteko kontu bat balitz bezala.

Irailaren lauan Parisera heldu eta bostean hasi ginen beharrean. Egundoko errebisioak egin zizkiguten sendagileek, bai iritsi orduko bai ondoren. Beldur nintzen nire tuberkulosiaren aztar-nak ez ote ziren agertuko, hamar urte igaroak ziren arren Andazarrateko kontuetatik. Ez zidaten, baina, ezer aurkitu. Eusebiori bai. Espainian bi errebisio pasatuta joan zen hura, batere kezkarik gabe, baina han egin zizkieten azterketetan tuberkulosiaren zantzuak topatu zizkieten. Laster batean bidali zuten etxera. Generaman kontratua amaitu eta beste hiru hilabete gehia-

go jarraitu behar izaten zen, laneko agiria eman-
go bazizuten. Agiri hori gabe ezin zitekeen inora
joan lan eske. Beraz, Eusebiok ez zuen kontratua
betetzerik izan, eta etxera.

Estreinako aldia zen Parisen nintzela. Hiri
ederra, zoragarria. Beti gustatu izan zaizkit
arteak, musika klasikoa, eraikuntza zaharrak eta
horrelako zerak. Hara heldu ondorengo lehen as-
teburuan bazterrik bazter ibili nintzen. Dena
ikusitako nahi nuen, dena ezagutu, nola edo hala
irentsi.

Lehen larunbat goizean Paris ikustera irten
ginen Manolo galegoa eta biok. Gennevillieretik
Place Clichyra, handik Pigallera. Denfert-Roche-
reauko auzo arabiarrean sartu ginen; 1962an
oso arriskutsua zen auzune horretan sartzea, Al-
jeriarekiko arazoagatik; ez zen Polizia bera ere
ausartzen. Gero Trinite-ko elizara jaitsi ginen,
Operara heltzeko. Operatik Chatelet antzokira.
Hortik La Concorde jardinetara, eta jarraian Tro-
caderora. Jarraian, Place Etoiletik pasa, Marceau
bulebarretik igaro eta Place Clichyra itzuli ginen
ostera, hemen autobusa hartuta Gennevillierse-
ra iristeko azkenik. Ibilaldi hau guztia lau lerro-

tan esaten den arren, itzuli izugarria da. Egun oso bat behar duzu bide hori dena egiteko. Oinez egiteaz gain, gu La Concordeko jardinetan doi-doi geratu ginen ogitarteko bat jateko. Lehertuta iritsi ginen etxera. Nik odoletan nituen oinak. Manolo gizajoak ohean egon behar izan zuen hiru egunez.

Aurrerantzean ere, libre neuzkan larunbat gehienetan ibiltzen nintzen Parisen batera eta bestera. Lanean gurekin jarduten zuen madrildar batek esan ohi zuen, Madril ederragoa zela Paris baino. Harekin kontrakarrean aritzea alferriakoa zenez, adarra jo nion.

- Ezagutzen al duk Ilustreen Panteoia?
 - Ezagutuko ez diat ba.
 - Eta Les Invalides? -Napoleon datzan lekua, alegia.
 - Bai horixe!
 - Eta Place Etoile?
 - Akabo ba ezagutuko ez banu!
 - Izan al haiz Eiffelen?
 - Beno, beno, Eiffel dorrea... galdetzea ere!
 - Han ere bai? -nik harrituarena egin nuen-.
- Nola igo hintzen haraino ba?

- Igogailuan. Eta punta-puntaraino.

- Igogailuan orduan...? Zenbat igogailutan haraino?

- Dagoen bakarrean!

- Baina, motel, Eiffel dorrera igotzeko igogailu bat baino gehiago erabili behar duk. Batean lehenengo estairaino, errestorant batera; han beste bat hartzen da eta gora jarraitzen, eta gero beste bat... eta horrela iritsiko haiz noizbait punta-puntaraino!

Madrildarra bere *chambre*-tik ez zen atera izango Parisen egin zuen denbora osoan.

Simcan milaka behargin ginen. Automobilen muntadura katean egiten genuen lana. Han ez zegoen txantxarik, hutsik gabe jarraitu beharra zegoen norberaren postuan. Nire lana auto barruan bosna zentimetroko lau kordoi egitea zen, soldadura automatikoarekin. Bi kordoi aurrean eta beste bi atzean. Lurraren gainean mugitzen zen katea autoa eramanez. Kotxe aurreko jesarlekuan eseri eta bi kordoi horiek soldeatzen nituen; atzeko eserlekura igaro gero, eta han beste bi. Katearen hasieratik amaierara, hasi eta bukatu egiten zen autoaren karrozeria, eta han-

dik pinturara joaten zen. Ez zegoen atsedetik, ezta komunerako ere.

Bazkaldu ere bertan egiten genuen. Bazkaldoan zigarro bat erretzeko edo halako zerbaiteko asti apur bat izan nahiez gero, ahalik eta bizkorren joan behar zenuen bazkaritarako ilarara. Azken aldean gertatzen bazinen, denbora gutxiago otordurako. Self-servicea zen jantokia, kristoren jantokia; aukeratzeko nahi adina eta oso merkea. Bazen segoviar bat, janariagatik beti kexaka aritzen zena.

- Espainian bezalako janaririk inon ez zagok!
- eta horrelakoak esanez ibiltzen zen.

Behin piper morroi gorri ederrak jaten ari girela, mespretxuka hasi zen:

- Piper nazkagarriok! Piper morroiak al dira ba hauek! Espainiakoak bai piperrak, Murciako piper morroiak! Harrapatuko banitu... -eta horrela, atertu gabe.

Nik pentsatu nuen, nondik edo handik jakin behar nuela jan genituen piperrak nongoak ziren. Eta bai jakin ere, asko kosta gabe.

- Nongoak dira piper ederrok? -galdetu nion sukaldariari.

- Espainiakoak -esan zidan-, Murciakoak.
- Onak. Eskerrik asko -agurtu nuen.

Maria Victoria heldu zenean are ederragoa iruditu zitzaidan Paris. Poesia merkea irudituko zaizu, baina egia osoa da. Beti izan ginen bata bestearen osakin; ondo konpontzen ginen. Ezin nuen ulertu nola bizi izan nintzen ordura arte bera gabe. Iruditzen zitzaidan berarekin hasi nintzela bizi izaten, bizitzen. Berari beste horrenbeste gertatzen zitzaion. Astean behin afaltzera joaten ginen norabait, zinemara ere bai... Autoa ere banuen ordurako... Frantsesez ikasten ere ari nintzen apurka-apurka lantegian. Maria Victoriak nik baino lehenago ikasi zuen, ordea. Dirudienez, hizkuntzak ikasten ere aurrea hartzen digute emakumeek.

Euriaren hotsa gustatzen zaidalako edo euri-minez nenbilerako, etxaurreko lorategira begira zegoen leihoari zinkezko aterpetxo egin nion, euriaren hotsa entzuteko. Zeinen ongi biok etxean. Nire bizitzako urterik zoriontsuenak izan ziren haiek, zalantzarik gabe; urte zoragarriak!

Oporrak

Udako oporretan, 1963an, Espainian ibilaldia egitera abiatu ginen. Gustatu egin zitzaigun Granadako Almuñecar... eta guk han pisu bat erosi! Orduan oso herri txikia zen Almuñecar. Goizean itsasotik etortzen ziren arrantzaleei erosten genien. Ez zegoen errestorantik. Maitagarria zen jendea. Goizeko laueta astoekin lanera zihoazenean ere kantari joaten ziren. Kilo bat mahats eskatu, saltzaileak bost pezeta zela esan, zuk hogeiturokoa eman, eta hark: «Tira, emango didazu bihar». Eskuzabalak...

Urtero oporretan herri horretara joaten hasi ginen. Bigarren urterako bizkaitar batek jatetxea ipini zuen: Restaurante Bizkaia, San Cristobal hondartzan. Urte batzuk geroago kanpotarrez betetzen hasi zen herria, eta orduko bi mila inguru biztanletik auskalo zenbatera igaroa den gaurdaino.

Almuñecarko bidean, Madrilen geldialdia egingen genuen, Maria Victoriaren lehengusinarenean etxean. Lehengusina horren senargaia Guardia

Zibileko komandantea zen. Nolabaiteko adiskidantza egin nuen komandante horrekin, eta kuartela ikustera eramane behar ninduela, Guardia Zibilaren sorrerako kuartelera, Duque de Ahumadaren kuartelera! 1965 inguruan izango zen hori. Dena erakutsi zidan, baita lau hankako zakurren heziketa lekua eta ospitalea ere, eba-kuntza-gela eta guzti. Diplomatikoren batek Carrero Blancori oparitutako dalmata eder bat ere erakutsi zidan. Delako komandante hau teniente koronel egingo zuten gerora. Almeria kasuagatik egin zen ospetsu. Carlos Castillo Quero zen.

Astean behin egiten dugu moduluan gauden laurok demandaderorako janari eskaria, fruta eta entsaladarako barazkiak batez ere. Erremolatxa gorriaren poltsa hartu du Antxonek eskuetan, erreparatu dio zer ote dakarren idatzita.

- Kontxo, Sanchonuño -esan du, erremolatxaren plastikozko zorroari beha-. Segovia eta Cuellar artean dago herri hau. Alkateak Jose Luis izena du, eta emazteak Sara, Sarita. Ezkongai zirenetik ezagutzen ditud, 1956an Sarita, eta Jose

Luis bi urte geroago. Maria Victoriak txikitatik ezagutzen zuen Sarita. Castellonen nengoela, kartzeleroen bitartez bidaltzen zizkidan goraintziak Jose Luis honek. Herri txikia da Sanchonuño, edo txikia zen behintzat. 1958 inguruan txaranga kontratatzen zuten herriko jaietarako, eta meza nagusian ere txarangak jotzen zuen organoaren faltan. Mierarena zen hango industria nagusia, pinuei urratuak eginez lurrezko ontzitzoetan biltzen den erretxina alegia. Aguarrasa eta trementina ateratzen dira, besteak beste, pinuen erretxina horretatik. Erremolatxa ere asko egiten zen lehen; udazken beranduan edo neguan biltzen zuten. Izoztearekin ere hantxe aritzen ziren nekazariak erremolatxa biltzen, eskuak zartatuta zituztela. Nork esan behar zidan niri orduko herrixka hartan erremolatxa faktoria bat ipiniko zutenik!... eta hango erremolatxatik jan behar nuela orain eta hemen, herrixka hura ezagutu eta berrogeita bat urtera!

Ehunka historia ditu honelakoak, lehenagoak eta geroagokoak.

Mundua

Tartetxo bat daukanean eskutitzei erantzuten ikusten dut Antxon. Duela egun batzuk Frantzia-ko espetxeren batetik heldu zitzaion eskutitza. Ordiziako neska bat omen da. Antxon atxilotu zutenean, duela hemezortzi urte, umea izango zen artean neska ordiziar hori, baina bide luzea egin du geroztik. Ez zuten elkar ezagutzen lehendik, baina kartzelan egoteak, kolektiboko kide izateak loturak sortzen ditu, adiskidantzak eta harreman berriak, belaunaldi bitakoak izanik ere.

- Kolektiboko emakumeak modu berezian zaindu behar ditugu -esaten du Antxonek-. Zintzoagoak dira eskutitzak idaztean, eta gainerakoan berdin. Ikusi besterik ez dago bisitetako kabinetan emakume eta gizonezkoen proportzioa. Emakume gehiago etortzen da beti, eta gehiagotan ere bai, nahiz arrebak izan, nahiz amak, emazteak edo neskalagunak, lagun soilak edo direnak direla. Enkartelada eta manifestazioetan

ere emakumeak dira hutsik gabe joaten direnak leku guztietara...

Eskutitza idazteari jarraitu zaio. Orri bat bete du eta bestea hasi. Orri biak tolestu eta gutunazalean sartzen ditu, eta arretaz itxi. Oraindik ere bitxi gertatzen zaio gutunazala ixtearena, hainbeste urtez zabalik botatzen aritu ondoren.

ETAren berriak Parisen nengoela izan nituen *Le Monde* egunkariaren bitartez. Aurki internazionalizatu ginen, beraz. Antonio Novais zen *Le Monde*-ren Madrilgo korrespontsala. Kazetari horren albisteez jarraitzen nituen Euskal Herriari buruzkoak, batez ere *europarrek* zelan ikusten gintuzten jakiteko. Egunkari espainiarrak, esan beharrik ez dago, patetikoak ziren orduan ere.

Donostiako gure lagunarteetan etsipen eta autozentsura giroa izan genuen. Ez nuen giro abertzalerik sumatu izan nire inguruan; arazo sozialez edo abertzaletasunaz hitz egiten hasi orduko gaitzesten zintuen albokoren batek. Edozein gogogabetzekoa zen. Baina, Euskal Herriko gazteren batzuek, ikasle gazteren batzuek, EAJ-

tik aldendu eta talde independentista bat osatu zutela esaten zuen prentsak. Hala eta guztiz, EAJ ezagututa, nolabaiteko sinpatia sentitu arren, ez zitzaidan interesatu. Garai hartarako irakurriak eta ikasiak nituen EAJren historiak, 36ko gerraz, EAJk Santoñan italiarrekin egindakoaz eta abar. Beste ezeren aurretik deskonfiantza sorrarazten zidaten EAJrekiko kontuek, eta alderdi horretatik sortutako ezer ez zitzaidan egiten erakargarri. Herri arazoaz txepel eta epel bazebilen EAJ, arazo sozialez ez zen batere arduratzen. Edo agian interesatzen zitzaion, edozein oligarkiari interesatzen zaion moduan. Eta hori gutxi balitz, herri arazoari zegokionean ere, begiratu besterik ez zegoen zelako tratuetan eta lanetan zebilen. Burgesak ziren niretzat, eta eskuindarrak; aber-tzaletasun ezkertiar baten aurrez aurre zeudenak, Espainiako erregimena bera bezain konfesionalak.

Noizean behin ikusten ziren izartxo batzuk ortzimuga gris hartan, hori egia da. Agirre lehen-dakaria hil zenean, esate baterako, Artzain Ona-ren katedraleko hileta elizkizunean izan nintzen. Mundu bat ikusi nuen han, ikusterik uste ez nuen

jendea. Paisanozko txakur pila bat ere bai, bide batez; liskar batzuk sortu zituzten txakurrek elizkizunaren ondoren, korrikaldiak izan ziren. Jende heldua ikusi nuen hiletetan, gerran ibilitakoak izango ziren asko. Pozgarri egin zitzaidan hainbeste jende eta halakoa han topatzea. Urte ilunak baitziren, nahiz eta gerra aspaldi amaitua zen. Gaur egun edozein herritan badaukazu lekuren bat, biltoki edo tabernaren bat, bertara joan eta edozertaz mintzatzeko, politikaz, herriko kontuez edo nahi duzunaz. Baina garai hartan ez zen halakorik. Beldurrez ibiltzen ginen leku guztietan, esatekoekin kontu handia edukiz. Azken batean, futbola-eta ziren elkarrizketa gai bakarra, kito.

ETAren sorreraren berri Parisen irakurri eta jakin arren, ez nintzen aztoratu, kontuak oinarrian nolakoak ziren oharturik. Alabaina, oportetean Donostiara etortzen nintzenetan, sumatzen zen ETA hor zegoela, burrunba bazegoela azpian, bizirik edo bizi berria hartzen ari zena, egoera itsu eta lozorro modu batetik zerbait iratzartzeko. Lehenagoko urteetan futbola eta pilota baldin baziren hizketagai, orain epai eta iritzizko so-

lasak agertu ziren, zerbait berriaren ernamuin. Gazteen artean nabari zen zalaparta, auzoetan... Eta egunkarietan ere bai; gerraosteko «bakea» kraskatzen hasia zen, politikaz ez hitz egitearen autozentsurazko araua pitzatzen. Aldaketa, alegia. Esango nuke, gerraoste luzean mugarri izan zirela 60etako lehen urteak; hutsune bat betetzera etorri zen mugimendu hura: pizkundea.

68ko maiatza

Gogorra izan zen niretzat; ez daukat ahazteko. Orokorrean garrantzitsua eta berezia izan zen maiatz hura, ondo jakina denez. Baina latza niretzat.

Maiatza heldu baino lehen sumatzen zen bazetorrela zerbait. Esan liteke apirilean hasi zela 68ko maiatza. Ikasleek apirilean ekin zieten mobilizazioei. Nanterreko Unibertsitatea izan zen pizgailua. Egunkarietan irakurtzen nuen protestan zebiltzala, eta greban. Lehenago ere gertatu ziren halakoak, eta hasieran inork ez zion bestetan ez bezalako garrantzirik eman. Protestaldiak, itzali orde, pizten eta berotzen joan ziren, antolatzen, langileekin bat egiten. Citroen eta Renaulteko langileak gehitu zitzaizkien.

Ikasleek zehazki zer eskatzen zuten... eurek ere ez zuten jakingo seguru asko. Dena eskatzen zuten, eta ezer ez. Aldaketa sozial osoa eskatzen zuten, iraultza; baina ezer ez zehaztasunez.

Egun haietako nire inpresioez ari naiz, ez maiatz hartaz gero irakurri dudana. Errebolta

nahaspilatsuaren antza hartu nion begiratu ba-
tean. Dena dela, hazten ari zen mugimendua,
handitzen, gainezka egitear. Buru zebiltzanak
eurak ere ez ziren konturatzen zer zeukaten es-
kuartean, zelako indarra eta ahalmena zeuzka-
ten mugimenduarekin.

Gizartea aspertuta zegoen, eskema zaharre-
kin gogaituta, Bigarren Mundu Gerraren ondoren
indartutako eskemekin. Ikasleen artean abiatu-
tako mugimendua gizarte osora hedatzen joan
zen, *kutsatzen*. Mugimenduari bultzaka hasi zi-
tzaion gizartea. Buruzagitza, eraketa, ahalmena
eta dena gainditu zituen gizarteak. Jakina da
ikasle mugimendua sindikatu eta alderdi politi-
koekin elkartu zela, edo alderantziz nahi baduzu,
gainera zetorkien eta uholde ikaragarriaren mo-
duan jaikitzen ari zen indar erraldoi hura gera-
razteko ziur aski, gerarazi edo kontrolatzeko
beste ezertarako baino gehiago. Egunak igaro
ahala masa indar erraldoia bilakatu zen. Ez zego-
en hura guztia gidatu, bideratu eta iraultza sozial
moduan antola zezakeen aitzindaririk. Gidariak
bazeuden, jakina, baina haietako inork ez zeu-
kan behar besteko karismarik, inor ez benetako

gidaritzatza egiteko gai. Maila politiko itzela eskatzen du horrek. Nire usteak dira, gogoetak.

Sorbonako Aula Magnan egiten ziren eztabaidak. Sarreran ere bai, taldeka. Barruan eztabaidatutakoa kanpoan jarraitzen zen, asanbladan, eta hartutako erabakiak banatzen ziren, egunerako erabakiak. Neu ere izan nintzen Sorbonako Aula Magna hartan behin edo behin. Ikasleak ziren autoritate bakarra; Unibertsitatea euren esku hartuta zeukaten; ez zegoen han aginduko zuen ez errektorerik, ez irakaslerik, ez arduradunik, ez kristorik.

Ez nukeen pentsatuko hain gertaera garrantzizkoak bizitzen ari nintzela. Gizartearen aldaketa sakona desio zen, iraultza soziala. Ilusioa, euforia, indarra nabari ziren bai Sorbonan bertan bai handik kanpora, gizartearen orokorrean. Honez gainera, sasoi berezia zen nazioartean: Vietnam, gerraren aurkako estatubatuar zenbaiten ekimenak, beltzen mugimenduak (Martin Luther King, Malcom X), Washingtingo martxak, Kaliforniako ikasleen protestak... Europako, eta bereziki Frantziako, giroari begiratu: Aljeriako gerraren zantzuak bizirik; Frantziaren alde gerra egin ondo-

ren Frantziara bizitzera joandako aljeriarren kontua, *harki*-en arazoa, eta abar. Oraindik ere arazoak dituzte harki haien seme-alabek, Marseilla aldean batik bat. Juduen Sei Eguneko Gerra aurreko urtean izan zen... Mundua irakiten zegoen, pil-pilean, aldaketa eske. Eta Pariskoa tartean.

Enfrentamendu bortitzak izan ziren Poliziarekin. Greba serioak. Gaur ikasleek egingo zuten greba, bihar trenak geratuko ziren, etzi metroa... Kaleetako harlauzak altxa eta jaurti egiten zizkioten Poliziari. Place Saint Michel, Boulevard Saint Michel eta Boulevard Saint Germaingo harriak! Ikusten nuenaz ari natzaizue: autoak erre, zuhaitzak bota, barrikadak eraiki, molotofak sutu. Horrelaxe egunero. Atxiloketa, hilketa eta ahal zuen guztiarekin erantzuten zuen Poliziak. Guk lanean jarraitzen genuen artean, baina mobilizazio haietara joaten nintzen, hurbiletik bizi nahi nuen.

Giza-oldea, greba, gatazka haren guztiaren puntu gorena maiatzaren 20an heldu zen, astelehenez. Greba orokorrari ekin zitzaion astelehenen; orokorra, erabatekoa, guztizkoa, salbuespenik gabe. Frantzia osoa paralizatu zen; gelditu

egin zen lanik egiten zuen oro. Trenak, metroak, ospitaleak, posta, telebista, irratia... Dena geratu zen, ez gutxieneko zerbitzurik ez arraiorik. Ezerk ez zuen funtzionatzen.

Maiatzaren 20ra arte, begien aurrean ikusiz bizi izan nuen hura. Baina egun horretatik aurrera oso modu ezberdinean biziko nuen, zoritxarrez.

Apirilaren 14an sendagile batekin kontsulta hitzartuta zeukan Maria Victoriak. Lehen ere sumatuak zituen gaixotasunaren aztarnak. Nerbioen ondoeza-edo izango zela esaten zuen berak. Kontua da, apirilaren 14ko kontsulta galdu egin zuela, eta hurrengo bisita maiatzaren 21erako lortu zuela. Bolada txarra zeraman Maria Victoriak, gero eta okerrago, baina lanean jarraitzen zuen hala ere. Ez baikenuen uste hain gauza larria izango zenik, hurrik eman ere.

Maiatzaren 20ko goizeko ordu batean hil zen Maria Victoria, bat-batean, bihotzekoak jota.

Hura niretzat zer izan zen, zelako zartada mingarria eta zelako barru urraketa sufritu nuen,

ez dago hitzez adierazterik. Ez naiz horretan alferrik hasiko.

Gertatuaren berri familiari emateko telefonoz deitu nuenean, Armadako soldadu batek hartu zidan hariaren beste aldean. Greba orokorraren isla nagusia da hori. Armadak hartu zuen telekomunikazioen ardura. Soldaduaren ondoren ofizial batek hartu zuen telefonoa. Zer gertatzen zitzaidan adierazi nion. Espainolez bazekiela berak, erantzun zidan, eta kontatu niona egia ez izatera, berehala moztu egingo zidala telefono komunikazioa. Familiari esaten ari nintzaiona entzuten geratuko zen ofiziala.

Maria Victoriaren ahizpa joan zitzaidan Parisera. Bera eta lagunak batzuen artean arduratu ziren denaz. Astebete eduki behar izan genuen etxean, inora eramateko aukerarik ez zegoelako greba orokorrarengatik. Ospitaleak hildakoz beteta zeuden, lur emateko erarik ez baitzen. Hilkutxarik aurkitu ezin genuenez, astebetetz eduki genuen gorpua etxean. Ez zegoen funeraria zerbitzurik batere. Astebeteren buruan azaldu zen funerariako nagusia bera, kutxarekin eta bi enbalsamatzaileekin. Ondoren, eliza bateko krip-

tara eramateko modua egin zuten lagunek. Hogeita lau egunez egon zen kripta hartan, beste inora ezinik. Hilabete baten buruan lortu nuen Donostiako Polloen hobiratzea.

Maria Victoria ehortzi eta gero, koinatuarekin joan nintzen Parisera nire gauza ezdeusen bila.

Zer esan ez dakidala geratu naiz. Antxonon historia entzuteko prest nengoela uste nuen hasieran. Baina ez nuen hau espero.

Parisko egunek urratu latza laga diote, egundo sendatuko ez zaiona. Ez naiz ausartzen urratu horietan arakatzen, oinaze horiek profanatzten. Badira minak eta urratuak bere horretan, beren osoan gorde nahi izaten ditugunak, zatitu eta astindu gabe, arakatzen ibili gabe; kuttunak ditugulako, geure izaeraren eta izatearen osakin ditugulako, osakinik behinenak beharbada, beste sakontasun baten osakin adierazgarri ditugulako min eta urradurak. Ezin dut besterik pentsatu Antxoni aurrez aurre so egitean.

Koaderno itxi, gauzak jaso, eta patiora goaz paseatzera. Hemengo jendeak ez du, itxura

denez, orduak eta orduak patioan paseatzen igarotzeko ohiturarik. Itzuliren batzuk eman eta ostera barrura sartzen da jendea. Telebistaren parean eserita ematen dute denbora. Partxisean edo xakean jokatzeko gutxi batzuek, edo ping-pongarean jo eta ke. Ibiltzekotan, egongela bertan paseatzen dira, eskuak patriketan, zereginik gabe dabilen edonoren antzera, ardi galduen tankeran, orduak amatatu zain. Egunak eta asteak ez ezik urteak ere honelaxe pasatzen dituztela konturatze hutsak itolarria eragiten du.

- Igande honetan ez dut bisitarik izango -esan dit Antxonek.

Lagunen bisitetarako baimenak eskatuak ditugu denok, baina inori ez zaigu erantzunik heldu. Arreba, koinatua eta iloba bere senarrarekin etortzen zaizkio Antxoni. Iloba horren haurrak ere ekartzen dituzte. Beste iloba, Txemi, kartzelan dago, eta hura bisitatzerako ere joan behar izaten dute. Eta ezin denera iritsi. Azken aldaketan Valenciako Picasentera *hurbildu* dute Txemi.

- Txikiak zirenean espageti luzeak prestatzen nizkien iloba biei -jarraitu du Antxonek-. Erdi jo-

lasean eta kantuan jaten zituzten nire espageti luzeak.

Kolorezko hari batzuk gehiago lortu ditu Antxonek, eta kartoï karratuekin gerrikoak egiten jarraitzen du eskulanetako tailerrean.

Mediku kontuekin dabil kezkatuta. Beldur naiz edozein egunetan ez ote duten norabait eramango. Antxonen historia amaitu nahi nuke lehenbailehen, hemen dagoen bitartean. Bera ere beldur baita eramango ote duten.

Venezuela

Abailduta nengoen. Lanbro batean nekusan dena, lausotuta. Donostian ez zitzaidan erraza ezeri ekitea.

Venezuelara alde egin nuen. Santanderren hartu nuen ontzia, gerra garaian Arroxelara joateko hartu nuen leku berean... baina mendebalderantz. Nire bizitzako bidegurutzetako bat zirudien Santanderko leku hark.

Sei hilabeteko egonaldia egin nuen Venezuelako lehen joanaldian. Orduan ezagutu nuen Rada, Plus Ultrako mekanikari nafarra, besteak beste. Venezuela osoan barrena ibili nintzen: Andeetan, Orinocon, Margarita uhartean... Margarita ospetsua zen bere perlengatik kolonia garaian. Uharte honetan lurreratu zen Lope Agirre, eta bada han hiri bat El Tirano deritzana, haren omenez. Iritsi bezain laster fraideen priorea garbitu zuen Lope Agirrek. Handik Cumanara joan zen. Barquisimeton setiatu zuten gero, eta han-txe hil zuten.

Venezuelan izan nuen Euskadi Ta Askatasuna erakundearekin lehen kontaktua, 1968ko abenduan. Esana dizut, lehendik ere banuen ETArekin berri, ez ninduela erakartzen, ez zitzaidala gehiegi interesatzen, nondik zetorren kontuan hartuta. Baina banuen Erakundearekiko sinpatia. Geure zerbait bezala sentitzen nuen, gauza gutxi izan arren. Ezarian-ezarian indartzen zihoan erakundea zen. Halako zerbait amestu izan nuen beti; halako zerbaiten premia gorria ikusten nuen; baina etsiak jotzen ninduen Donostiako giroak. Gerora, ETA lortzen ari zen oihartzuna ikusirik, apur bat ilusionatzen hasi nintzen, nahiz eta itxaropen berezirik ez izan, EAJrekiko nuen mesfidantzarengatik batik bat.

Baina 68ko hartan izan ziren gertakariak konbentzitu ninduten. Benta Haundin Txabi Etxebarrieta hil zuten uda hasieran. Urte hartako abuztuan Meliton Manzanasko kriminal torturatzailea garbitu zuen ETAk. Gertaera haiek konbentzitu ninduten erakundean sartzeko. 68ko gertaera horien ondoren aldaketaren bat izango zela ziur nengoen; alegia, EAJtik erauzi, eten eta bere bitetik abiatuko zela, itsasontzia portutik irtenda

abiatzen den bezala. Mugimendu abertzalea eta soziala gidatuko zituen erakunde baten sorrera ikusi nuen hor, eta luzaroan itxarondako gauza zen hori niretzat.

Horregatik, bada, Venezuelan nengoela, ETA-rekin harremanetan jarri eta militante egin nintzen. Kontaktu horren ondoren, 1969ko udaberrian itzuli nintzen Amerikatik Donostiara. Euskal Herri berri bat aurkitu nuen. Herri baten iratzartzea izan zela esango nuke, gerraosteko lausoaren ondoren argi izpi baten begiztatzea. Halako zerbaitekin amets egina nintzen, baina errealitatean gerta zitekeela itxaropenik gabe. Eta orain gertatzen hasia zen, ametsa egia bihurtzen. Gizarte mugimendua, mugimendu abertzalea eta ETA indartzen ari ziren nabarmen, hazten. Eta era berean errepresioa ere bai, jakina; gero eta bortitzagoa, basatiagoa. Saldoka egiten zituzten atxiloketak, tortura izugarriak kuarteletan eta komisaldegietan... Sasoi hartan igaro ziren txakurrak jipoietatik eta zapladetatik torturara, tortura sistematikora.

Burgosko Prozesuaren bitartez Euskal Herriak lehenago inoiz ez bezalako sona eta eran-

tzuna lortu zuen European. Prozesu horretatik aurrera jada ezberdina izango zen dena. Amesgaizto baten ondoren gertatzen den antzera, beraz, gerraoste luzearen tabua, autozentsura eta mututasun beldurtia puskatu egin zen behin-betiko, eta errealitate ezberdin baten bidea ireki. Orduan hasi zen ETA gerora izango zuen garrantzia eta legitimitatea bereganatzen.

Venezuelan sei hilabeteko egonaldia eginda itzuli nintzen Donostiara, baina berriro ere Amerikara itzultzekotan, bigarrenez.

Nire egoera eta animo pertsonala aldatuxea zen jadanik; hobeto nenbilen, Paristik itzuli ondorengo larriak-eta apur bat baretzen hasita. 1970eko azken aldera abiatu nintzen Venezuelara. Han lana aurkitu nuen, Donostiako Garatetar batekin. Garate hau Caracasen bizi zen 50etatik. Kroaziar batekin harremanetan ipini ninduen. Parque Central Simon Bolivarren kontratua zeukan kroaziarrak, eta subkontratista moduan hasi nintzen pisuak papereztatzen. Subkontrata horretan 45 pisuko 8 eraikuntza neuzkan, eta pisu

bakoitzak 15 apartamentu bikoitz zituen. Sei urte iraun zuen nire lanak.

Amaitu nuenean... beste bi dorre eskaini zizkidan kroaziarrak. Dorre bakoitzak 65 pisu zeuzkan. Beste zazpi urte iraungo zukeen lanak gutzira. Nire gogoia, ordea, Euskal Herrira itzultzea zen, baita hara joan aurretik ere. Ez nion eskaintza onartu. Ez nengoen han gehiago luzatzeko.

Kroaziarrarekin bazkaltzen ari nintzen batean kontatu zidan bere bizitza. Jugoslaviatik hanka egin beharra izan omen zuen, Alemaniako Armadako SSetakoa izan zelako. Esku hutsik heldu zen Venezuelara. COPEI eta AD alderdiekin eta Administrazioarekin negoziotan sartu zen, eta aberastu. Kontrata izugarriak lortzen zituen. Berak eskainitako bigarren subkontrata onarturik han geratu izan banintz, aberastuko nintzen, bai horixe. Halakoxea zen pagotxa! Zortzi erai-kin egin nituenak eta azkenean errefusatu nituen bi dorreak, konplexu oso bat zen guztia, dena bat. Azpi-azpian zituen hiru pisuko gara-jeen bitartez, eta komertzio eta ofizinekin goian zituen beste hiru pisuren bitartez, elkar komuni-

katurik zegoen konplexu osoa: Parque Central Simon Bolivar erraldoia.

Sei urteko egonaldiak lotura estuak sortzen ditu, ez dago dudarik. Itzultzekotan joan arren, bertakotu ere egin nintzen apur bat. Venezuelako jendearen apaltasunak eta xalotasunak arre-ta erakartzen zidan; gustukoa nuen jende hura. Hala ere, injustizia soziala higuingarria zen, batzuen aberastasun gehiegizkoa eta besteen txi-rotasun larria. 1973 inguruan barrika petrolioa-ren prezioa izugarri igo zuten; 20 dolar urtebe-tean, 3 dolar balio izatetik 23ra. Baina herria mi-serian eta injustizian bizi zen. Aski zenuen Cara-cas gaineko muinoetara begirada jasotzea gizar-teko ezberdintasunak eta injustizia latza ikuste-ko. Nire ustea da, 30etako petrolioaren eta beste gai batzuen aurkikuntzak eskulan-eskari handia sortu zuela bat-batean, eta laborariak eskulan-premia horretara bideratu zituztela trumilean, nekazaritza lurrak hustuta. Lehen urte haietan langile ugari behar zituzten, baina gero petrolioa ateratzeko ez da ia eskulanik behar. Langabe-zian geratu zen jende hura guztia, hirietan pila-tuta, noraezean. Jendearentzat errazagoa zen,

langabezian egonik ere, hirietan eskean bizimodu ateratzea, berriz nekazaritzara itzultzea baino. Esango nuke, Espainiarentzat Amerikara iristea eta han zegoena ustiatzea bezalatsu izan zela Venezuelarentzat petrolio aurkitzea. Ameriketatik harrapa zezakeen guztia lapurtu zuen Espainiak, aberastasun iturri osoa hirietara ekarri; eta orduan, jendeak hirietara jo zuen.. Askok, fabrika textilean lana eginez baino gehiago irabazten zuten eliz-atarian eskale jardunda. Venezuelan horrelako zerbait gertatu zen nekazaritzan aritu izandako jendearekin, petrolio aurkitutakoan.

Petrolio zen estatuaren aberastasuna. Nahiz eta nekazari produkzioa zeharo geratu, atzerritik ekar zezaketen nahi edo behar beste. Hara!: Japoniatik ekarritako arrautzak ikusia naiz! Guairako kaia itsasontziei erantzun eman ezinik izaten zen; kaian husteko lekua egin zain egon behar zuten itsasontziek, barratik kanpora. Hogeita lau ontzi zenbatuta nago han, itsasoan, portuan lekua egin zain. Merkantziaz beteta zetozen. Itzela zen hango ontzi trafikoa. Aberastasun handiak ditu Venezuelak, baina aberastasun guztia

esku gutxi batzuetara joan zen, jakina. Gaur ere biztanleen %80 pobrezian bizi da.

Caracas inguruetako muinoetan bizi zen jendea, rantxitoetan, etxolatxoetan, Brasilgo favelen modukoetan. Ez urik eta ez kristorik zegoen rantxitoetan; ez estolderiarik eta ez ezer. Eta rantxito miserable haien ondoan, hirian, egundoko txaletak zeuden. Txalet haietako zenbaitetan lan egitea egokitu zitzaidan... Urrezko iturriak zeuzkaten!, Italiatik inportatutako urre mazizozko iturriak, aizu! Eta hango autoak! Parisen ere ez nuen ikusi nik Caracasen adina Rolls Royce. Venezuelak 10 milioi biztanle zuen orduan, eta proportzioan Ingalaterrak berak baino Rolls Royce gehiago zeukan; proportzioan, Bavieran baino garagardo gehiago edaten zen, eta Eskozian baino whisky gehiago. 70etan hori.

Uholdeetan jendea itota hiltzen dela esaten dute, baina hangoak ez dira urarekin itota hiltzen, muinoetan lur-jauziak izan eta euren rantxito eta guzti azpiratzen dituelako baizik. Han bizi diren haurrentzat ez dago eskolarik; hango emakumeentzat ez dago haurgintzarako ospitalerik. Behin nagusi kroaziarrarekin joan nintzen

ospitale batera. Egundoko emakume pila zegoen ohatiletan, korridoreetan, edozein lekutan, denentzat oherik ez zegoelako. Garrasika ari ziren haurgintza minetan.

Rantxitoetan eta kalean ezer gabe bizi zirenek nola edo hala bizimodua atera behar zutenez, zeure autoa zaintzea eskaintzen zizuten. Zainduko bazizuten, ordaindu beharra zenukan; eta haiek zaintzerik edo haiei ordaintzerik nahi ez bazenuen, akabo zure autoa; txasisik ere ez zenuen aurkituko itzultitakoan.

Herri langilea, noblea eta demokratikoa da venezuelarra, jende apala. Unean unekoa bizitzea gustatzen zaiona. Baina ezberdintasun eta injustizia sozial iraingarriak pairatzen dituen herria da. Ni han egon nintzen garaian horrela zen behintzat. Horixe da gustatu ez zitzaidan bakarra.

Oihana

Bizi edo egon izan naizen inguruak arakatzea gustatu zait beti. Banuen autoa, gasolina musutruk zegoen ia. Behin baino gehiagotan irten izan nintzen etxetik egunkaria erosi asmotan autoa hartuta; eta segi eta segi, beharbada bostehun kilometro egin. Noizbait geratu, zerbait jan, inguruak ikusi, horrela ibiltzen nintzen. Bakarrik nengoen, loturarik gabe. Aise ibil nintekeen modu hartan.

Nire kontura Venezuela ezagutzen saiatu nintzen, jendeak eta bazterrak. Caraima, Margarita eta abar ezagutu nituen. Andeetan birritan izana naiz. Munduko teleferikorik altuenera igo nintzen, bost mila metrora, Pico Espejora, Merida hiritik gora.

Inori kontatu ez nion bidaia bat ere egin nuen, hango osaba-izebei ere kontatu ez niena. Apaiz euskaldun baten bitartez egin nuen ibilaldi zoragarri hura egiteko modua; Orinocotik gora Rio Negroraino, Caño Casiquiaretik igarota. Apaiz euskaldunak egin zizkidan antolaketak:

abioneta batean joan nintzen Caracastik Ayacu-chora, eta han elkartu nintzen indigena batekin. Jeremias deituko nion aurrerantzean. Curiara bat zeukan Jeremiasek, ontzi luzea, hamabi metro edo gehiago dituen; enbor bat da berez, barrua husten diotena, ibaietan ibiltzeko. Curiara horiei motorra ipintzen diete batzuek, eta gureak ere bazuen popan Yamaha eder bat. Abiadura handi samarrean zihoanean, ontziari muturra altxa egi-ten zitzaion ur-azaletik gora.

Orinocon gaindi bazterretik joaten ginen, ibai erdian handiegia zelako uraren indarra. Eta albo-etan, zelako oihan hertsia! Gaua igarotzeko ibai ertzeko lauguneren batean geratzen ginen, txaradirik gabeko soilgunetxoren batean, txintxorroetan lotan. Hamaka modukoa da txintxorroa, indigenek erabiltzen dutena. Zuhaitz batetik bestera lotu eta, bertan etzan ondoren, saretxoa botako duzu zeure gainean, eltxoek jango ez ba-zaituzte.

Orinoco pirañaz josita dago, baita Orinocora datozen ibaiak ere. Gorantz gindoazen heinean kontatzen zizkidan Jeremiasek haien izenak, oihanean eta ibaietan zer zegoen, inguruan ikusi

edo entzuten genituen txori izenak. Yanomamien tribuak non zeuden eta haiek nola bizi ziren esaten zidan. Indigenen tribuekin topo egiten genuen batzuetan; jende oso abegitsuak. Jeremiasek sekulako arraintzarrak harrapatzen zituen, eta haiekin egundoko otorduak egiten. Ez gindoazen ezeren faltan. Baneraman garagardoa ere. Baina, arraina afaldu ostean, Jeremiasek gauetan beste zerbait jaten zuela ohartu nintzen, kutixiarik ederrena balitz bezala, haragi zuria zeukan zerbait. Sua egiten genuen afaltzerako, eta su haren ertzean ipintzen zuen zerbait. Ez nekien zer demontre zen.

- Jeremias, kutixia horren gozoak dastatu nahi ditiat -eskatu nion behin batean.

- Zer den ikusita edo ikusi gabe?

Halaxe, hurrengo gauean jakin nuen zer zenuen ertzean prestatzen zuen kutixia: tarantula, armiarmatzar iletsua, armiarma galanta. Pixka bat erre zuen... eta neuk ere ahora! Orduetik aurrera Jeremiasekin batera gauero jan nuen tarantula. Kutixia da, bikaina benetan, haragi zuri-zurikoa. Txangurro bat ematen zuen, Donostiako tabernarik onenetan pintxoan artean lotsa-

rik gabe ipintzekoa. Tarantulak inportatzen edo nonbaiten hazten hastea gomendatuko nieke Arzak, Argiñano eta horiei.

Ibaian gora egun batzuk eginda iritsi ginen Caño Casiquiarera. Orinoco eta Rio Negro lotzen dituen kaño edo kanal naturala da Casiquiare, 350 kilometroko luzerakoa, munduko kanal natural bakarra. Zenbait urte sasoitan Orinocoren uretatik %20 Rio Negrorra omen darama Casiquiarek, eta Rio Negrotik Amazonasera.

Caño Casiquiare igaro ondoren, beraz, Rio Negrorra heldu ginen. Erabat ezberdina da ibai hau; Orinocok ur horiak ditu, eta Rio Negrok, ize-nak dioen moduan, ur ilunak, beltzak. Santa Rosa abiatu ginen Rio Negron behera. Han egun batzuk igaro eta ostera Puerto Ayacuchoa buelta, kroaziarraren lana zain baineukan. Sei aste inguruko bidaia izan zen, inori aipatu ere egin ez nion ibilia.

Gosaldu, solaserako mahaira eseri, eta ia ohar-tu gabe jo digu bazkalorduak. Kafea hartu dut tartean-tartean, puruari tiraka... Antxonek bere

kontakizunak luzatu eta zabaldu dituen bitartean.

Hizlari asperrezina da; harritura nauka bere memoriak: honenbeste leku izen, horrenbeste mapa, hainbeste xehetasun. Ikusitako lekuen argazkia oroimenean gordetzea ezinbestekoa izango du haien izenak gogoratzeko. Venezuelako maparen kopia eskatu dugu liburutegian, eta Antxonek esan bezala agertzen dira herrien eta ibaien deiturak. Bila asko saiatu beharrik gabe erakutsi dit non dauden halako edo holako. Mapari begira urtu zaigu goiza.

Fusilamenduak

Centro Vascora ez nintzen ia azaldu ere egiten, noizean behin besterik ez: Santo Tomas egunez, Urte Zaharrean eta horrelakoetan, baina askoz gehiagotan ez. Han ez zegoen giro abertzalerik. Beste ingurune batean ibili ohi ginen gure taldetxokoak; Bilboko Arnaizen inprimategian elkartzen ginen lanaren ondoren, zahar eta gazte. Tabernetara joan, garagardoren bat hartu, berriketan egin...

Koadrila hura elkartu gineneko aldi batez, 36ko gerra kontuak ekarri genituen hizpidera. Santandertik Arroxelara joateko ontzia nola hartu genuen aipatu nuen nik. Taldean bazen adineko gizon bat nire kontakizunari adi, baina isilik, txintik atera gabe. Nire haurtzaroko ibilera modu haiek kontatu ondoren, ordea, hara non esaten didan gizonak:

- Ni izan nintzen ontzi hartako kapitaina, *Habana* ontziko kapitaina.

Aho zabalik utzi ninduen.

- Ingalaterran utzi nuen itsasontzia. Arroxelan utziz gero, frantsesek Francori itzuliko zioten. Ingalaterrara eramanez gero, Errepublikari emango zioten. Arroxelan ontzia hustu eta Ingalaterraraino joatea deliberatu nuen.

Irrati eta egunkarien bitartez jarraitzen genituen Euskal Herriko gorabeherak. Txiki eta Otaegiren epaiketak eta heriotza zigorrek oihartzun handia izan zuten nazioartean, eta han ere bai, gure artean. Epaiketen jarraipena egiten genuen, manifestazioak antolatu... Haietako bazuetan enfrentamenduak izan genituen Polizia-rekin. Gogoratzen naiz, kontzentratuta geundela, poliziek lurrera, gure oinetara botatzen zituztela fogeoko tiroak. Zalaparta batean Iberia agentziako kristalak zartatu genituen, Espainiako kontsulatuaren aurrean protesta eta salaketak egin ziren, enbaxadorearen etxe harresitura ere joan ginen talde bat.

Fusilamendu egunean izan ziren protestaldi gogorrenak. Txiki eta Otaegiren ohoretan elizkizunak egin ziren euskal koloniak antolaturik. Hi-

leta haien ondoren manifestaldiak egin ziren, hauek guk antolatuta. Venezuelan, erosketak egiterakoan paperezko poltsak ematen dituzte gauzak gordetzeko; bada, guk harriz beteta eramaten genituen erosketa poltsak manifestaldietara, ibai bazterretako harri koskor leunduak. Gogoan dut gure zirkuluan zegoela orduan Balentín Solagaistua.

Ni beti izan naiz baikorra, baina garai hartan ilun ikusten genuen dena, oso goibel eta triste. Hala eta guztiz, bistakoa zen diktadoreak ez zuela luzaroan iraungo, azkenetan zela tiranoa. Txiki eta Otaegiren eta FRAPekoen fusilaketen testuinguruan sortutako giroa itzela zen, eta Francoren azkenarekin batera aldaketaren bat etorriko zela pentsatzen genuen.

Molinotarrak

1976ko ekainean bueltatu nintzen Euskal Herrira. Neure konturako bidaia bat egin nahi nuen lehen-lehenik: Olotera. Haurtzaroko espazio haietara bisita egiteko gogoz nengoen. Venezuelan sortu zitzaidan burutazioa, Girona alderako asmoa. Gerratean izan arren, oso zoriontsu izan nintzen han. Haurtzaroko egunetara eta geografiara itzuli nahi nuen, dena berrikusi.

Amerikatik etorri bezain laster prestatu nintzen bidaia horretarako: bizikleta, motxila, lotarako zakua eta trasteak. Etxetik irten eta Zudairera joan nintzen, nire arrebaren senarraren izeba baten baserrira, han baitzegoen arreba abuztuko egun batzuk pasatzen. Arrebari esan nion bidaia hura egiteko irrika nuela, baina koinatuak esaten zion ez nuela egingo, ez nintzela kapaz izango bidaia modu hari ekiteko. Gero jakin nuen arrebak eta koinatuak apustua eginga zutela; errendituko nintzela koinatuak, ezta pentsatu ere arrebak. Goizean abiatu nintzen Zudairetik, bizikleta zamatuta, Lizarratik aurrera, Eu-

nateko ermitaren paretik aurrera... Ezagutzen ditudanetatik ederrena da Eunate, erromanikoa, arku dobelatuz inguratua itzuli osoan.

Galsoroak ebaki berriak zeuden abuztuan, bero itzela, ni izerdi patsetan. Bizikletak izango zuen artoa batetik gorako pisua, hiru piñoikoa. Aldapa bakoitzaren hasieran lurreratu behar izaten nituen oinak, ordeka edo malda behera helzen zen arte. Agoizko bidegurutzean geratu egin nintzen zuhaitz baten gerizpean. Lehertuta nengoen, egarriak ito beharrean. Galtza motzetan nindoanez, eguzkiaz erreta neuzkan izterrak. Bizkarreko motxilatik zintzilik zahatoa eta zartagina. Zelako planta! Zuhaitzaren itzalpean, etsi samartuta, atarramentu hartan nora ote nindoan galdetu nion neure buruari. Eraitsita nengoen egon ere. Kara edo kruz pentsatu nuen txanpona airera botata. Kara ateraz gero, patuaren mandatua izango zen aurrera ez jarraitzea eta etxera itzultzea; halabeharrak derrigortuta bueltatuko nintzen... baina ez neure gogoz... duintasuna babestu behar nuen, badakizu. Kruz ateratzen bazen, aldiz, bidean aurrera jarraituko nuen. Airetik erori zen txanpona... kara! Patua-

ren agindua eta nire arindua! Buelta etxera. Baina modu hartan itzultzea ere ez zitzaidan itxurosoa iruditu. Patuari berriro galdetzea pentsatu nuen. Jaurti dut txanpona airera... eta ostera ere kara!, etxera alegia.

Tira, patuari aurka egin beharko niola erabaki nuen hantxe, Agoizko bidegurutzean, eta segitu nuen Huescarantz. Esa aldera, bide ertzeko etxe batean arkumea ikusi nuen zintzilik, larrututa, salgai; erosi egin nuen eta urtegiko kanpianean bapo jan, gautu baino lehen. Hurrengo goizean, Jacara heldu nintzen; han konpondu nion bizikletari izorratutako kable bat. Sabiñanigora jarraian, gero Mont Repos portua oinez igo, bizikleta arrastaka. Ez neukan presaka ibiltzeko asmorik; bidaiari hilabete egin edo hiru, berdinberdin zitzaidan. Nahi nuen lekuan jan, gogoan ematen zidan tokian lo. Errekastoan amuarrainek zelan jauzi egiten duten ikusi, zelan murgiltzen den martin arrantzalea... Lleidako kanpianean pasa nituen bi egun. Ingurumariak frutarboleaz josita zeuden: udare, melokotoi, sagar... zer ez zegoen han. Txikituta heldu nintzen Tarraگونako lehengusinarene etxera, akituta, lur jota.

- Etxera itzuliko naiz -halaxe esan nion lehengusinari.

- Ningún Molino se rinde -erantzun zidan.

Zauriak eta erredurak sendatu zizkidan lehengusinak. Indarberritu nintzen haren etxean hiru egunean, Bartzelonara abiatu aurretik. Egun bakarra eman nuen Bartzelonan, eta hotelean lo egin. Gironara bitartean geldialdi batzuk egin, eta iritsi nintzen azkenean Olotera.

Berehala ezagutu nituen umetako etxe eta karrikak, orduan ibili nituen bidexkak eta zidorrak... ni arineketan, balak bilduta sutara botatzen... «Hemen behar du, ba, harrizko untxia zuen iturriak» esaten nion neure buruari, eta, etxe kantoia pasa ondoren, hantxe agertu zen lau muturreko iturria, gainean harrizko untxia zuela; «etxe-paretako horma-konkako santu irudiak hemen behar du ba», eta hantxe zegoen aurreraxeago. Eta bonbak neskatxoak zapartatu zuen lekua... Eta amonaren hilobia...

Urdaiazpiko eder bat erosi nuen arreba-entzat; bizikletaren eskulekuan lotu nuen eta itzulerari ekin nion, Tarragonatik eta Jacatik pasa gabe, Zaragozatik barrena, presarik gabe, joane-

koan egin nuen era bertsuan. Hilabete t'erdi inguru igaro zen etxeratzeko. Orduan jakin nuen arrebak irabazi zuela apustua... eta gainera nik ekarritako Oloteko urdaiazpikoa.

- Molinotarrek ez dute amore ematen.

Demokrazia

Aldatua aurkitu nuen Euskal Herria, hoberako aldatua, jakina. Hiru urte ziren Carrero Blanco garbitu zutela. Ekintza haren aintzan abestiak jotzen zituzten edozein herritako jaietan. Bazurdi bizi-bizirik irauten zuela almirantearen azken moduarekiko pozaldiak. Eta gainerakoan ere halatsu, dena ilusioa. Kemena eta indarra sumatzen zen nonahi. Hori banekien Venezuelan nengoen bitartean ere, baina gauza bat zen han egonik jakitea, eta bestea, arras ezberdina, Euskal Herrian bertan bizi izanik dastatzea. Franco hilik, hauteskunde eta gisakoen leihoa irekitzen ari zen. Ilusioa bai, baina ilusionismoaren garaia ere bai, zoritxarrez. Indar politiko gehienentzat, demokrata omen zirenentzat eta 68ko iraultzaile askorentzat posibilismo garaia zen. Eta oportunoaren garaia. Zintzo zebilen askok ere pentsatuko zuen, une horretan amaitzen zela aurreko erregimenaren zama, eta bide demokratikoe-tatik, hauteskunde formal batzuen bitartez, aldaketa orokorra etorriko zela, demokrazia eta nahi

beste iritsiko zirela. Eta horrela, konpintxeo lotsagarrian, ezkerra eskuinarekin tratuetan hasi zen, mahai-inguru lotsamangarrietan konponketak egiten. EAJ bide posibilista horretan abiatu zen, eta Euskadiko Ezkerra ere bai. Posibilismo-tik ilusionismora, ilusionismotik formalismora, formalismotik itxurakeriara.

Niretzat, 45 urterekin, beste momentu bat zen hura, beste erronka bati ekiteko unea. Amnistia aurretik enfrentamendu giroa bizi zen; gizartea oldarrean zebilen: grebak, manifestaldiak, txakurren jazarpena... etengabeko gatazka. Bultzada azkena izan zitekeen uholde harena; kinka erabakigarria izan zitekeen: edo zer gertatu edo ezerezean geratu.

Euskadi Ta Askatasunaren ondoan jarraitu nuen, lehen baino aktiboago nahi baduzu. Ikastaroa egin nuen beste batzuekin batera, hainbatetik egina izango duten moduan Erakundearen historian. ETArekiko harremanaz eta jarduera pertsonalaz ez naiz ariko, hau ez delako horretarako lekua, eta beti daudelako isilik gorde beharrekoak.

Zaputzaaldi inpresioa utzi zidan Parisko 68ko maiatzak, frustrazioarena; gauza txikia izan zela, alegia, izan zitekeenaren ondoan. Maiatz hartan autoritate eta agintari guztiak gainezkatu egin zituen gizarte mugimenduak; armada eta polizia indarrak ere larritu egin zituen tupusteko iraultza-hats hark, eta egoera goren hura beste apur batez luzatu izan balitz, gehixeago iraun izan balu, urrunago iritsiko ziren ondorioak. Baina norbaitek edo zerbaitek desegin egin zuen hura guztia, zapuztu.

Euskal Herriko 78ko giroa pareka liteke, hein batean, Parisko maiatz hartakoarekin. Hemen ere, Euskal Herrian, autoritateak eta autoritatearen indarrak gainezkatzen ari zen gizartea. Modu horretan jaikitzen eta kaleratzen denean, indar izugarria da gizartea, geldiezina. Txakurrak eta indar publikoak inpotente ikusten dituzu, ezgauza; batez ere, autoritaterik gabe. Horrelako une erabakigarrian zuzen eta zintzo gidatuz gero, amarru eta tranpak zapuzten jakinez gero, aldaketa handia eragin dezake mugimendu indartsu baten bultzadak gizartean. Baina sasi-amnistiarekin dena desmontatu zuten, sasi-amnistiarekin

eta hauteskunde eta abarrez irekitako bide posibilistarekin. Dena lardaskatu, eta hurrengora arte. Espero dezagun, hurrengoan behin-betiko izatea gure herriaren mesedetan, bake eta demokraziaren mesedetan.

Moduluko lau adiskideok, Antxon, Karlos, Koldo eta laurok, bakoitzak baditugu geure zeregin txikiak.

Karlos begetarianoa arduratzen da lauron partez korrika eta kirol apur bat egiteaz. Animoak ematen dizkiogu patioan paseatzen gabiltzan bitartean.

Koldok instantzia, salaketa eta gainerako idatzien kontu egiten du. Gerra pertsonala dauka aditz formekin, orriak eta orriak zirriborroz be-tearazten dizkiona. Temoso eusten dio hala ere bere trintxerari, harik eta ginearrarekin xakean jokatzera joaten den arte.

Nik praka bete lan daukat Antxonen idazkari izate kontu honekin.

Hemezortzi urte luze daramatza gatibu Antxonek. Espetxe mordoskatik pasatua da, gehiegi.

- Hemezortzi urte hauetan asko aldatu da kartzeletako egoera, bai jendearen izaera bai jende modua bera. Baina denboraren bereizketarik gabe ere, egoera oso ezberdinak aurkitzen dira espetxe batetik bestera. Castellonen zegoen preso jendea izan edo hemengoa izan, alde handia dago. Harrigarria da: hemen ia inor ez da diru eske edo zerbaiten eske hurbiltzen!

Halaxe da. Kartzela honetan ez da ikusten jendea azken gabeko eske negartian, zigarro ziztrin bat bi-hiruren artean erretzen... Dirudienez, ez dago eskasiarik. Gehienak espainiarrak ez direnez, ez da ikusten drogarik ia batere; dauzkaten diru pixarrak ez dituzte papelinetan ahitzen, beste presondegietan bezala.

Antxon, beti txapela buruan, aljeriar batekin berriketaldi luzean hasi da. Aljeriako gerraz, harkiez eta auskalo zer gehiago. Marokoarrak ere hurbiltzen zaizkio, eta latinoamerikarrak... Venezuelar beltxaran batekin egundoko kontuak iza-

ten ditu, Antxon han egon zeneko gorabeherak seguru asko.

Espainiar gutxi dago modulu honetan; laurogeitik sei-zazpi baino gehiago ez dira izango. Valentziar gazteak ez du bere burua espainiarren artekotzat. Iruditzen zait, nola dabiltzan ikusita, preso espainiar horiek badutela hemengo kartzeleroeekin korporatibismo moduren bat, sentimendu komunak bat. Nazionalismoa izango da beharbada, euren nazionalismo zentzu propioa, Babel honetan. Arabiarrak, Afrika beltzekoak, latinoamerikarrak, alemanak, frantsesak, espainiarrak, euskaldunak... Taiwan eta Asiako beste herrialderen batzuetakoak ere badaude, eta hauek ere aise bereizten dituzte espainiarrak eta euskaldunak.

Asiarrak isilak dira oso. Ez dute beste kultura eta herri batzuetakoek adinako espanturik eta zalapartarik sortzen. Ezta hurrik eman ere. Arreta pizten digun gauza da. Arabiarrak otoitzean aritzen dira eskolako edo patioko ertz batean, Mecara begira jarrita. Horietako askorentzat urruti behar du izan Mecak; bai baitirudi behin eta berriz zurrumbilo berean eroriz eta hortik ezin

irtenean dabiltzala, paradisuaren bila abiatu eta kartzelara itzulirik. Hala ere, otoitz egiten dute.

Euria ari du, euri xehea. Castellonen horrela-ko euririk gutxi egiten zuela diosku Antxonek.

- Xirimiriak Euskal Herria gogorarazten dit-
-esan du, eta euripera joan da, patiora, bakar-
bakarrik paseatzera.

Tortura

Asteazkena zen atxilotu ninduten egunean. 1981ean erori nintzen, azaroaren 19an, goizeko ordu biak eta erdietan. Detaile horiek ez dira ahazten: noiz eta nola etorri zitzaizkidan bila... Nire taldekidea atxilotuta zeukaten ordurako; txakurrek eurekin ekarri zuten gurera, eta etxe-ko atean deitzera behartu. Txirrina jo eta ireki nezala esanarazi zioten. Nik atea ireki bezain bizkor agertu ziren txakurrak alde guztietatik, goitik, behetik. Zalapartan sartu ziren, orro eta garrasika. Lurrera jaurti ninduten. Egundoko kulatazoa eman zidaten matrailean, begi ondoan. Eskuturrak lotu ordez, atzamar lodi biak lotu zizkidaten zepo txiki batekin, eta halaxe erabili ninduten lehen egunetan. Zepo haien eraginez, sei hilabete inguruan iraun zidan atzamarretako in-tsentsibilitateak; azala ere erori egin zitzaidan.

Galtzontzilo hutsetan eraman ninduten Gobernu Zibileko komisaldegira. Elektrodoak izan ezik, txakurkeria guztiak egin zizkidaten han, epailearen aurrera heldu arteko hamar egune-

tan. Nortasun agiriak egiten zituzten bulego azpiko gela batera eramaten ninduten tortura saioetara, marmol zurizko harmailetan behera jaitsita. Hantxe zeukaten txakurren habia ezkutua, tortura tokia: bainera, barra... Lehenengo denetik egiten zidaten, txakurkeria guztiak, eta gero, tortura saio batetik besterako tartean, barra batean zintzilikatzen ninduten, bakailao baten moduan. Gogoan dut, bi zutaberen artean ipinita zegoela barra. Bazen txakur bat, nonbait horretan espezialista izan behar zuena, edo maniatiakoa, eta zintzilik nindukaten bakoitzean barrabiletatik heldu eta bihurritu egiten zizkidana. Prakak dena bustita neuzkanez, praken tintak bere eskuak tindatzeraino bihurritzen eta estutzen zidan. Modu hartan hanketatik zintzilik egotearen ondorioz, hiru urte inguruan eduki nuen erre-duraren marka.

Beste batzuetan lurrian etzanda ipintzen ninduten, besoak eta hankak zabaldua, lau txakurrek eusten zidatela, eta bosgarren batek kolpeak ematen zizkidan luzaroan soin osoan; itozten nintzela sentitzen nuen halakoetan, arnasa hartu ezinik.

Kalabozoetan atea zabalik edukitzen ninduten, besoak kanpora nituela, lehen aipatutako zepo horiekin atzamarrak lotuta, eta zutik. Ezin nuen atsedean hartu; ez eseri ez etzan ez ezer. Nire aurrean eserita egoten zen txakur bat, eta begiak ixten edo lokartzen ikusten ninduen bakoitzean ostikadaz esnatzen ninduen. Egunak joan ahala, nekea eta suntsipena gailendu ahala, aluzinazioak izaten ere hasi nintzen. Zomorrotegi bihurtzen zen ziega haietan ikusten nuen itzal oro: harrak, zomorro higuingarriak... xehetasun eta zehaztasunez ikusten nituen, handitzen eta neuregana hurbiltzen, ugaltzen eta soinean gora igotzen... Ahoraino heltzen zitzaizkidan, eta sekulako itolarria izaten nuen. Aluzinazioetako batean garagardoa eskuan nuela ikusi nuen neure burua, aurrean neukan txakurrari neure bizitza pribatuaz hitz egiten... Eta bat-batean ohartu nintzen, zerbait bitxia gertatzen zela han, zerbait ematen zidatela urarekin edateko.

Mendian zuloa neukan lekura ere eramanez ninduten, gerrikoarekin lepotik lotuta. Han ez dakit zer gertatu zen, baina, konortea galdua

egon ondoren, txakurren oinei begira esnatu nintzen lurrean.

Barran zintzilik edukitzen ninduten tarte haietan, barrabiletatik heltzen zidan hartaz gainera, bazen beste txakur bat joka aritzen zitzaidana, gerri-barrenean karate kolpeak ematen zizkidana, giltzurrunen inguruan-eta, beti minez eduki ohi nuen lekuan hain zuzen. Hernia lunbarren kariaz, oso gaztetatik ibili izan bainaiz gaizki gerritik. Baina txakur hark ez zekien halakorik. Kontua da, txakur haren karate kolpeak zerbait ukitu edo mugitu izan behar zidatela, eta haren «tratamendu» berezia zela bide, egundo ez naiz gerritik hobeto ibili azken hemezortzi urte hauetan baino. Txakur hark gaiztoz emandako karate kolpeak zuzendu behar izan zidaten zerbait gerri aldean. Berriki egin didaten erresonantzia magnetiko batengatik dakit hernia lunbarra daukadala hogeita hamar urte nituenetik edo lehenagotik.

Komisaldegiko egun haietan, tortura haiek gehiago ezin jasanda, harmaila batzuen ertzaren kontra bota nuen neure burua. Zauri itzela egin nuen bekoki gainean, odol jarioa hasi zitzaidan.

Txakur batzuek ospitalera atera nahi ninduten, baina arduradunak ezetz, berak konponduko zidala hura, eta ez ninduten inora atera.

Gobernu Zibilean, kalabozoen gaineko salan, bazen zutabe koltxoitu eta eskaiz forratu bat. Sala hartan nengoela ikusi nuen Ballesteros komisarioa, zutabearen kontra jartzen eta, oniritzia eman bezala, beste txakurrei keinuak egiten. Ondoren lotu ninduten bizkarra zutabearen kontra nuela, eta aurrez aurre abiadura hartuta etorriz, ostikada eman zidan barrabiletan taldeko buru egiten zuenak. Hiru aldiz errepikatu zuen ekintza!

Ballesteros, Meliton Manzanos eta horiek lehenagotik ezagutzen nituen ikustez. 50etako lehen urteetan Legarda tabernan elkartzen ziren. Orduan Okendo kalean zegoen Gobernu Zibila, eta aldamenean Legarda taberna.

Donostiatik Madrilera eramanez ninduten, DGSra. Donostiatik irteeran Mendizorrotz ikusi nuen; Donostiari agurra. «Inoiz ikusiko ote zaitut osterara?», edo antzeko bihozkada izan nuen.

DGSkoa beste modu bateko tortura izan zen: psikologikoa. Zapladak, irainak... modu oso ja-

rraian, era kalkulatuan. Soinean min emateko baino, nortasuna pitzatzeko asmoz egindako tortura.

Urte hartan ez dakit atzeratu egin ote zuten Francoren heriotzaren urtemuga edo zer gertatu zen, baina DGSn nengoen egun haietako batean ari ziren txakurrak haren oroitzapenetan, eta go-goan dut denak mozkor arraio eginda zeudela. Txakur haien artean buru egiten zuenetako bat ikusi nuen, ni ninderamanari esaten geroxeago ostera eraman nintzala hara, bere aurrera. Keinu adierazgarria egin zion buru egiten zuen hark, eta keinu hura geratu zitzaidan buruan. Eta, jakina, ostera noiz deituko eta piztia mozkor haiengana noiz eramango ote ninduten zain eman nuen gau osoa, erabat urduri eta egonezinean. Zain egote horixe da, agian, egun haietatik dudan oroimen latzenetako bat.

Donostian bainera egitean, ontzi handiaren ertzarekin dena ubeldu egin zitzaidan bularra. Pomada ematen zidaten, eta pomadaz lirdingaturik iritsi nintzen Madrilerara; DGSn dutxarazi, eta berriro pomada... Forentsearen aurrera eraman ninduten. Emakumea zen forentsea edo zena ze-

lako hura. Txakur mordoa eta forentse horren aurrean biluzarazi ninduten gela batean... Kome-dia bat! Beste inspektore bat edo halakotzat hartu nuen nik forentse modu hura. Azken aldi batez dutxarazi zidaten epailearen aurretik igaro baino lehen. Ez ditut ahaztuko dutxa haiek, dena krakaz beteta...

Epailearen aurretik pasa ondoren, Caraban-chelera zuzenean. Han zeuden lagunen artera heltzea etxera heltzea izan zen, zerura iristea, zerurik baldin bada. Porrusalda bikaina prestatu zidaten, inoiz jan dudan ederrena iruditu zitzai-dana. Komisaldegiko hamar egunak ezer proba-tu gabe pasa nituen.

Carabanchel

Gatibatu eta hilabete batzuetara hasi ziren epaiketak. 1983ko irailean egin zidaten azkena. Guztira hamahiru-edo. Carabancheldik Puerto de Santa Mariara eta Puertotik Herrera de la Mancha izan zen nire orduko ibilbidea, hitz gutxitan esateko. Nire azken epaiketarako eraman ninduten Puertotik Alcalara, eta han nengoela eraman zituzten Puertoko lagun guztiak Herrerrara. Bi hilabeteren buruan eramango ninduten neu ere Herrerara, azken epaiketa amaitu ondoren. Negu betea zen, beraz, eta Herrerara sartzean soinean neraman guztia kendu zidaten, baita txapela ere, eta buzo bat eman zidaten janzteko.

Orduko epaiketetako parafernalia oraingoa bezalakoa zen. Pezera kristalezkoan sartu, tribuna ez zenuela ezagutzen eta horrelako zera bazuk bota (aukerarik ematen bazizuten), eta ostera behera, kalabojoetara. Hamahiru epaiketatik bat bakarra egin nuen osoa, beste mutil bat libratzeagatik. Gauza ziurra zen, gaur bezalaxe,

sala hartan ez zela epaiketa bat egingo, antzerki eta itxurakeria bat baizik.

Baina goazen astiro.

Carabanchelgo hirugarren galerian sartu ninduten, presorik konfliktiboenak zeuden lekuan. Hantxe geunden gu, euskal preso politikoak. Lis-karrak, borrokak... noiznahi izaten ziren han, labanekin-eta. Hilak ere astero izango ziren seguru asko.

Behin, Sotero Etxandi eta biok patioan paseatzen genbiltzala, preso arruntak bazterretan multzoka elkartuta zeudela erreparatu nuen. Giro arraroa iruditu zitzaidan. Patio erdian mutiko bat bakar-bakarrik paseoan ari zen. Bazen zerbait ondo ez zebilena, normala ez zena.

- Alde egin behar diagu -esan nion Soterori.

Gora joan ginen, galeriara, ziegetara, eta leihotik patiora begira jarri ginen. Handik ikusi genuen, taldeka zeuden presoak nola hurbiltzen zitzaizkion patio erdian bakarka zebilenari, eta nola hasi zitzaizkion denak labanak eta zorrozkiak aterata ziztaka, gorputz osoan: hanketan,

sabelean, saihetsean sartzen... Ping-ponga eta horrelakoak zeuden lekura ihes egitea lortu zuen mutilak nola edo hala, baina berehala agertu zen atzera patiora, galdu-ordean, norabait ihesi beharrean. Hantxe, patio erdian errematatu zuten labankadez!

Bakar batzuk ikusi ditut kartzelan hiltzen, baina ez modu hartan, hain basatiki, ehizakia se-tiatu eta akabatzen den moduan. Gogoratzen naiz, mutil hura modu hartan ikustean, nola edo hala laguntzera jaitsi nahi izan zuela Sotero Etxandik. Baina ezinezkoa zen guztiz. Inpresio izugarria egin zion ikuskizun hark Soterori, urdu-ri jarri zen erabat. Gutxi ezagutu ditut Sotero bezain pertsona prestuak, beti laguntzeko gertu, borrokan ere dena emateko, aitzakiarik gabe. Ahazten ez dudan lagun zintzo eta apala da Sotero, hainbat xake partidatoko aurkari grinatsua. Laster elkar topatzea espero dut, sagardotegiren batean. Duela gutxi jakin dut arreba hil zaiola. Garai hartan, Carabanchelen ginenean, hamazazpiren bat urte izango zituen Soteroren arreba horrek. Gaztetxo izanik ere, azkar ikasi zuen zer zen presoak bisitatzen ibiltzea eta laguntza ema-

tea. Etxeko tomate eta azenarioak ekartzen zizkigun, entsaladak presta genitzan. Emakumeak, beti emakumeak... Inork ez ditu egiten horrelako lanak beraiek bezala.

Orduan ere bake une handirik gabea zen gure kolektiboaren bizitza. Berrogeita hamar urte nituen kartzelara sartu nindutenean; adinaren zama sentitzen hasten den sasoi hori, beraz, eta komisaldegiko tortura egunak igaro ondoren are gehiago. Baina kartzelak ez dizu bakean bizitzen uzten, nahiz eta zaharra izan eta jubilatzekeo garai hobean egon.

Kartzelara heldu eta hamabost egunera gose greba bati ekin genion, Puertoko lagunekin elkartasunean. Hogeita hamasei eguneko gose greba egin genuen. Hogeita seigarrenean izorratuta ikusi eta erizaintzara eraman gintuzten Urru eta biok. Komisaldegiko egonalditik suspertu ezinik nengoen artean, eta gose grebak erasan gogorra egin zidan. Hogeita seigarren egun horretarako ez nintzen ezertarako gauza. Trapu zaharra nintzen. Enfermerian, gose greba uzteko eta

uzteko esanez aritzen zitzaidan sendagilea. Whisky botila bat eskaini ere egin zidan sendagile hark, sendagileen zuzendariordea zenak, gose greba uztearen alde. Ez nuen utzi! Baina... greba amaitu ondoren aipatu egin nion whisky botila; eta baita ekarri ere.

Gose grebarik egin gabea nintzen artean. Alde handia dago lehenengo gose greba izan edo bigarrena edo hirugarrena izan. Esperientziak, eskarmentua emateaz gain, asko laguntzen dizu horrelakoetan. Neurria hartzen diozu urari, ibiltzeari eta abarri, gorputzak beti berdin erantzuten ez badizu ere. Lehenengo gose greba hura negu erdian egin genuen, eta hotzaz askoz gehiago izorratzen zara; ez da jakiten, ea jateak eta ahuleziak edo hotzak izorratzen zaituen gehiago. Baina gorputzak gaizki erantzuten badu, gose greba laburrak gehiago izorra zaitzake luzeak baino. Esperientziak erakutsi dit hori.

Baina, lehenera itzuliz, Carabanchelgo aurreneko greba hura gogorra izan zen niretzat. Ezer-tarako gai ez nintzela geratu nintzen. Lau lagun geunden enfermerian, ziega berean: Urru eta biok zeharo jota geundelako, eta Txino eta Ra-

fael gu zaintzera joan zirelako. Hauek ere greban zeuden, baina gu baino hobekixeago haatik. Egundoko sagu pila zegoen enfermeriako bazterretan. Nik ez dakit non ezkututzen ziren eta nola konpontzen ziren, baina arratsaldetan eta iluntzetan alde guztietatik agertzen ziren saguak. Hormak ez ziren guztiz lauak, pikordunak baino, eta horman gora armairu gainera, ohe gainetara eta edozein tokitara heltzen ziren. Saguak etortzen zitzaizkidan burkora, etzanda nengoen ohera; eta burkotik bekoki gainera, eta bekokian jolasean sagua! Demonio haiek uxatzeko ere ez neukan indarrik eta ganorarik. Urru ere nire antzera zegoen; hari bizarrean ibiltzen zitzaizkion saguak, habia egin nahian edo. Egoera horretan, hain ahulduta, mugitzeko ez ezik hitz egiteko ere ez duzu gogorik eta aldarterik izaten.

Sukaldaritza liburu bat irakurriz egin nuen gose greba hura, pentsa! Liburua irakurriz hartzen ninduen loak, eta hantxe zabalik geratzen zen liburua. Bazeuden bakailaoa prestatzeko hirurehun errezeta! Harekin ikasi nuen bakailaoa txuri-txuri uzteko trukoa, esnetan bustita, alegia.

Hogeita hamasei eguneko greba amaitu ostean, ezjakinaren kontuak edo obsesioarenak, jaten hasitakoan ez nuen ederki pasa. Iruditu zitzaidan idiak adina jan nezakeela, eta halaxe hasi nintzen. Barazki purea prestatu ziguten lagunek, eta tragoan hartzen hasi nintzen puretik egundoko ontzikada. Ondoezik jarri nintzen berehala. Hil behar nuela iruditzen zitzaidan. Luze-ra gabe pasa zitzaidan, baina gorriak eta beltzak ikusita.

Carabanchelen egin genuen bigarren gose greban ardi gazta bidali zidan lehengusuak. Ordiziako gazta txapelketan bigarren saria hartutakoa oparitu zidan, hain zuzen, debozio guztiarekin. Zilarrezko paperean bilduta gorde nuen, greba bukatutakoan usterik biziotsuenarekin jateko. Eta halaxe, grebaren ondoren apur bat susperturik, hasi naiz lehengusuaren gazta prezia-tua ateratzen, papera kentzen, eta... dena ustelduta! Jateko moduan ez behintzat. Ez zidan pena makala eman.

Integral aldizkari bat heldu zen nire eskuetara bigarren greba hartan, 81eko abenduko edo 82ko hasierako *Integral* alea. Egiptologo batzuek

hilobi batean antzinako telar bat aurkitu zutela zioen. Marfilezko plaketa batzuk aurkitu zituzten, launa zulorekin, eta haiekin egindako zapi zatiak; hortik atera zuten nola egindakoak ziren, zer marrazkirekin eta abar. Hura irakurriz hasi nintzen burua astintzen, tentatuta. Baina gose greban ez neukan indarrik ezeri ekiteko, ez launa zuloko xaplarik ez bestelakorik. Hilabete batzuk geroago lotu nintzaion kontu hari, gerrikoak egiteari: kartoi laukiak ebaki, launa zulo egin kantoietan, hariak zuloetatik pasa... Lehengoan oker ibili nintzen hariren batekin, eta ez zitzaidan nik uste nuen marrazkia atera. Bizkor zuzendu nuen, eta baita asmatu ere neuk nahi nituen marrazkiekiko gerrikoak egiten. Jendeak ikasi zuen poliki-poliki nola egiten nituen, eta Carabanchel gerrikoz josi zen. Polimiliak, GRAPOkoak, anarkoak eta geu izango ginen han geundenak... eta preso sozialak, jakina. Denek ikasi zuten gerrikoak eta eskuturretakoak egiten, hariez eta kartoiez.

Motina

Puerto de Santa Mariara eramán ninduten 1982ko uztailean, baina bi hilabeteren buruan Carabanchelera berriro, epaiketetarako. Hantxe egongo nintzen hurrengo urteko martxora bitartean.

1983ko martxoan motina egin genuen Carabanchelen, Puertorako trasladoen aurka. Puertora zigorrez eramaten baitzuten jendea, presoon-tzat ez ezik senideentzat ere zigorra zelako.

Motina hasterako, giltzak kendu genizkien kartzeleroei. Preso sozialak euren ziegetan zeuden. Geuk itxi genizkien ateak, hura gure kontua zelako eta saltsa hartan nahas ez zitezzen, arazorik izan ez zezaten gerta zitekeenagatik. Inork ezin asma zezakeen hura zelan buka zitekeen, eta arazo hura geuri zegokigun soilik. Kontua da preso politikook egin ginela hirugarren galeriaren jaun eta jabe. Sarrerako atea itxi eta zaborrontziak pilatu genituen ate ondoan, gomazko ontzi handiak alegia. Galeria osoa apurtu genuen

ondoren, aurrean harrapatutako guztia txikitu. Hara ezin sar zitekeen kartzelerorik.

Polizia heldu zen halako batean. Atea ireki ezin zutenez, sopletearekin ekin zioten, burdinazkoa eta barrotezkoa baitzen atea. Sopleteaz ordea, su hartu zuten guk pilatutako zaborrontzi gomazkoek. Sutan eta ketan hasi zen kautxoa. Ito behar genuela zirudien. Galeria eta ziegak kez bete ziren, ke beltz kutsagarri horrekin. Itoko ginela etsi nuen, halakoxea zen hango kea! Ez zegoen keari ihes egiteko modurik; ziegako ohean etzan nintzen. Jendea han zebilen batera eta bestera, ahal zuen moduan. Rekalde etortzen zitzaidan tarteka, ea zer moduz nengoen galdetzen. Txarto pasatu nuen nik, eta besteak ere halatsu ibiliko ziren.

Noizbait ireki zuten atea soplete horrekin, libratu zuten bidea, eta sartu ziren polizia *nacionalak*. Ziegetara etorri zitzaizkigun fusilekin apuntatuz. Ilaran atera gintuzten galeriatik kanpora. Harmailetan behera nindoala, egundoko kulatazo bi eman zizkidan txakur batek sorbaldan, eta bi zartada haietatik ezker aldean eman zidana izugarria! Urteetan egon nintzen ohean

ezkerreko aldearen gainera etzan ezinik, min ematen zidalako. Galeriatik behera, zentrora jaitsi eta Guardia Zibilaren esku utzi gintuzten. Eta guardia zibilek furgoirra, jakina. Fernandorekin bikote eginez lotu ninduten, besoa bihurrituta, izan zitekeen erarik deserosoenean; horrela egin genuen Puertorainoko bidaia. Horixe da Carabancheli egin genion agurra.

Mundu propioa, mundu aparte da kartzela. Liburutxo batean kontatzeko baino historia txiki gehiago emango lituzke presondegiko edozein egonaldik, eta zer esanik ez egonaldi luze batek. Etxe modu hauetan urte batzuk daramatzagunok ere harritu egiten gara denbora gehiago daramatenen historiak entzunez. Kartzelaz ezer gutxi dakigula iruditzen zaigu batzuetan, zenbait garai eta egoeratako kontuak entzutean. Urteekin aldatu egin dira espetxeak, eta jende modua ere aldatu egin da. Kartzelerokoak dira, edo kartzeleroen jokamoldea da aldatu ez dena, kasu askotan behintzat. Francoren garaian kartzeleroko zirenak ezagutu ditugu gutxi edo gehiago, oraindik

kartzelero direnak. Garai haietan preso egonak ere bai bakarren batzuk, oraindik labirinto haue-tatik atera ezinik dabiltzanak, askatasunean irten arren, behin eta berriz zulo hauetara jausi direnak.

Preso arrunten ingurunetik landa, gure kolek-tiboan ere badira frankismoan kartzelan egonda-koak. Antxon 1981etik dago kartzelan, eta ho-rren aspaldiko kontuak frankismoaren lausokoak iruditzen zaizkit; oso antzinakoak nolana ere.

Antxon gaztea zenean, urruti baino urrutiago ikusten omen zuen 2000. urtea, eta milurte ha-siera horretan non eta nola egongo ote zen gal-detzen omen zion bere buruari, etorkizun as-maezinari begira galdetzen den moduan, ia fan-tasia denari begira aritzen garen bezala. Duela hemezortzi urte ere, atxilotu zutenean, artean urrun eta ia harrapaezin ikusiko zuen seguru asko 2000.aren muga hori; baina iritsi zaigu, eta hemen gaude, muga horren atarian, muga asko-ren atarian beharbada. Eta zutik gaude, eusten. Adinean aurrera joana izan arren, ez dauka An-txonek agure bentzutuaren tankerarik, ez dauka nekeak eta etsipenak jotakoaren itxurarik.

- 1982an *Egin* egunkariko kazetari bat sartu zen Carabanchelera -gogoratzen du Antxonek-. Elkarrizketa edo galdera batzuk egin zizkidan. Nik esan nion: «Kalean jendeak gogor jarraitzen badio, gazteek batez ere, guk eutsiko diogu hemen!» Eta eutsi egin diogu, eta emaitzak ikusten ari gara.

Puerto de Santa Maria

Baldintza tamalgarriak ziren Puertokoak, inhumanoak ziren, batere exageratu gabe. Norbera gaizki egon, baina txartoago ikusten zenituen lagunak. Oso latza zen hango kontua. Norbera gaizki dagoenean ingurukoak okerrago ikustea gogorra da, eta horixe gertatzen zen han.

Lehen pare bat hilabetez egona nintzen Puerton. Carabanchelgo motinaren ondoren heldu ginenean, harrera aparta egin ziguten. Denok hormaren kontra ipini gintuzten, binaka, eskuak elkarri lotuta genituela artean, burua hormaren kontra eta oinak atzera... Pikoletok ostikadak ematen zizkiguten, oinak atzeragotu genitzan. Ez zizuten uzten libre zenuen eskua hormaren kontra ipintzen. Azkenean, pikoletoen eskuetatik kartzeleroenetara pasa eta arakatuak izan ondoren, *usategira!* Isolamenduari deitzen zaio han usategia, goian baitago, bigarren solairuan. Tei-latu ondoko galeria bi dira; baten azpian enfermeria dago oker ez banaiz, eta bestearen azpian

dutxak. Patio txiki bat ere badago bertan, goi hartan.

Usategia, sasoi hartan behintzat, nik ezagutu dudan isolamendurik txarrena da. Ekonomatetik ezin zenuen ezer erosi, ezta tabakorik ere. Egunez ezin zinen ohean etzan edo eseri; aulki bat bazen mahaian esertzeko, baina ez zeneukan eserita egoterik. Kartzeleroa isilka ibili ohi zen galerian, ateetatik begiratzen, eserita edo etzanda harrapatzen zuenaren ateari ostikadak eta zartadak emateko. Bihotza eztarritik ateratzeko moduko sustoak ematen zizkizuten sasikume haiek.

Soinean generamanarekin atera gintuzten Carabancheldik, eta halaxe heldu ginen Puerto-ra. Beraz, usategian ez geneukan ezer, ez aldatzeko janzkirik ez libururik ez kristorik. Deus ez. Usategiko ziegan aldizkari baten orria aurkitu nuen, eta, besterik ezean, orri huraxe irakurri nahi nik! Baina nire betaurrekoak ere Carabanchelen geratu ziren, eta ez nezakeen zipitzik irakurtzen ahal.

Usategian bazen preso sozial bat zazpi hila-bete zeramatzana eta ekonomatoan erosketak

egiten uzten ziotena. Hari ematen genion nahi genituen gauzen zerrenda eta dirua, eta tabakoa edo zena zelakoa erosten zigun. Patioan ezkutatuta uzten zuen tabakoa, teilatu ertzean, ahal zuen tokian, gu irtendakoan eskura genezan. Irratiak-eta, aldiz, bizitza normala egiten ari ziren lagunek uzten zizkiguten bisitetako kabine-tan, eurek bisita egiten zutenean. Irratia neur-tuan erabili behar zenuen, berriak entzuteko doi-doi; behin pilak ahituz gero, ez baitzeneukan besterik erosterik.

Hogeita zortzi egun egin genituen usategian. Egonaldi hura amaitzear zelarik bidali zizkiguten Carabanchelen geratu zitzaizkigun trasteak. Baina nire betaurrekoak ez ziren berehalakoan agertu! Geroago baizik, Joseba Sarrionandiaren idazmakinan sartuta.

Laurogei lagun inguru izango ginen Puertoko lehen moduluan, modulurik okerrenean. Kartze-leroeekin erabateko enfrentamendua geneukan, tirabira amaiezina. Kartzelero batek aitortu zidan egunean bederatzi parte sartzeko agindua zeu-

katela. Izan zitezkeen bederatzi edo lau, baina kontua da setioa ezartzen zigutela, unez uneko jazarpena, edozer huskeriarengatik zigorrak ezarriz. Ziegako harraskan ile bat aurkitu zidatelako sartu zidaten behin partea! Eta niri bezala besteiei. Hango egoera oso tentsoa zen, atsedetik gabeko jazarpena, atergabea.

Orain ere gaiztoa da Puertoko kartzela. Eskasak dira baldintzak eguneroko bizitzarako, ikasketak eta eskulanak eta horrelako ariketak egiteko. Egituraren kariatz dena da eskasa, txabolotan bakarrik zaude, eta nahi duzuna egin dezakezu, ohiko mugen barruan. Baina txabolotik kanpo, behean zaudenean, edo patioan egon behar duzu edo pasillo moduko barrunbe txiki batean... Patioan ez dago aterperik. Eta pasillo moduko barrunbe horretan pilatuta egon behar duzu hainbeste jenderen artean, ezer egiteko lekurik gabe; guztiz itogarria eta deserosoa da, eserita irakurri, idatzi edo antzeko zerbait egiteko inolako modurik ez dago.

Bestalde, eltxoen kontua ez da txantxetakoa. Egundoko eltxotzarrak izaten dira, handiak gero! Garai hartan bertan Puerton egindako poema li-

buru batean ere agertzen dira marrazkiak, *Eguberri amarauna* liburuan. Multzoka, andanan, paretan belzterainoko eltxo mordoa izaten da han. Edozein hormatan mantxa beltz ederra ikusiko zenuen. Ez pentsa exagerazioa denik! Txaboloko leioa zabalik geratu zitzaizulako-edo, ez zegoen lo egiterik. Eltxoen ziztada txarra bazen, gau osoan egiten zuten burrunba ez zen hobea. Goizetan edozein agertzen zen aurpegia handituta, ziztadengatik. Kartzeleroena bezain zitala zen eltxoen kontua. Esango nuke aliatu onak zirela eltxoak eta kartzeleroak.

Eta janaria? Txarra, txarra. Harrak agertzen ziren saldan! Eta demandaderotik tomatea besterik ez ziguten ekartzen, eta niri tomatea ez zitzaidan asko gustatzen. Kanean eta aske izan nintzenean, jatetxeren batera joan eta entsalada ekartzen zidatenean, tomatea jan gabe laga ohi nuen. Puerton, ordea, gustura asko jaten nituen, zer erremedio. Gosea pasatzen genuen han; mokadu goxoa zen tomatea, besterik ezean.

Haizea ere atergabea da, haize bortitza gainera. Eta haizearekin, patioan hotz galanta. Zer-bait egin beharra zegoen eguna igarotzeko: ari-

ketaren bat, eskulanak, irakurri. Nik gerrikoak egiten jarraitu nuen, Carabanchelen bezala. Haize hark hariak eta gainerakoak nahasten zizkidan, baina Txapelen laguntzarekin -Iñaki Ojeda Martinez de Butron, gero Barakaldon erail zuten gaztea- nola edo hala konpontzen nintzen hariak zuzen ipintzeko.

Zauden lekuan zaudela, egoerarik izorrantee-
nean ere, lagunartean baldin bazaude beti aurki-
tzen duzu espazio kutunen bat, etsaiak zaparta-
tu ezin dizun gunetxo bat. Horietako bat, txiki-
tandiko nire musika zaletasunaren asegarri,
kantu gregorianoa izaten zen. Gogoan dut, adis-
kide batzuen gregoriano saioak entzuten egoten
nintzela, Anjelek eta Fernandok abestuak batik
bat. Zeinen ederki kantatzen zuten! Gustura en-
tzungo nituzke haiek berriro.

Larunbat goizetan kiroldegia tokatzen zaie
gure moduluari eta bigarrenari. Hara goaz,
beraz, laurok, eta bigarren moduluko beste lau
adiskideekin elkartuko gara: Kitxu, Jokin Santxo,
Raul eta Ramon. Futboleak jokatzen hasi dira

preso batzuk; berehala egin dituzte taldeak, inon aurki daitezkeen internazionalenak. Talde bietan daude marokoarrak, ginearrek, nigeriarren bat, italiarrak, espainiarren bat edo beste, nafarra omen dena ere bai... Bazterreko eserlekuetan multzotuta begiratzen diegu guk zortziok, berriketan. Areto-futboleko jokatzeko ez ezik beste ariketa batzuetarako ere badira instalazioak kiroldegian, baina soberan daude guretzat, honela elkartzeko aukera daukagun bitartean behintzat.

Ordu t'erdi segituan joaten da solasean. Jokin izan ezik, gazteak iruditzen zaizkit besteak; Antxonon ondoan zer esanik ez. Antxon gazteekin ondo konpontzen dela ikusten dut. Ezin dut irudikatu herriko plazan eserita, eguzki izpi bila, jubilatutako mordoskaren inguruan, penak kontatzen edo zer esanak amaituta, denbora joan zain egon ohi diren aitona aspertuen moduan. Bere izaerarekin egokiago dagoke gazteekin berriketan edo eztabaidan tabernaren batean, ikasleekin matrakan.

- Hamasei-hamazazpi urtekoen aldean, txoro eta arloteagoak dira sarritan hirurogei urtekoak, edo berrogeikoak; koldarrago eta okaztagarria-

go. Gazteei burugabekeria egotziz zuritzen dituzte euren miseriak -esaten du Antxonek, egungo gazteen zalapartak, politikari publikoen kontuak eta horrelako zerak mintzagai ditugunean.

Egundo ez diot entzun gazteekiko destainazko hitzik, inoiz ez «gazte txoro horiek», «oraingo gazte ergelak» eta hain arruntak diren esaldi horietarik. Alderantziz, gaztetasunak bere baitan esperientzia eza eta horren ondorioak izan arren, esango nuke miretsi egiten dituela gazteak, errespetuz begiratzen diela euren ausardiari eta kemenari. Gure gazteen egitateak adorea ematen diola dirudi.

Munduan ibilia da Antxon, baina, dioenez, ez dauka urrunera joateko gogo berezirik. Aralar aldera edo horrelako lekuren batera joan nahiko luke kartzelatik irtendakoan, bakardade apur baten bila, zaratarik ez dagoen lekuren batera. Zarataren eraso amorragarri egiten zaio.

- Munduan eurak bakarrik baleude bezala aritzen dira batzuk beti, marmarrean eta iskanbilan, inori deseroso gerta dakiokela pentsatugabe.

Besteekiko ardurarik ezaz baino izorratzeko apropos aritzen direla dirudiela esaten du.

- Aralar toki aproposa izango da, inoren tentelkeriak jasan beharrik gabe denboralditxo bat igarotzeko. Borda batean hamabost egun, lasai ederrean. Ez dut gehiago eskatzen.

Herrera de la Mancha

1983ko uztailean atera ninduten Puertotik Alcalara, azken epaiketarako. Alcalan nengoela, urrian hain zuzen, Herrerara eramán zituzten Puerton zeuden adiskide guztiak. Eta epaiketa-
ren ondoren ni ere bai, abenduaren 27an.

«Zeukan izenik gogora ekarri ere nahi ez dudán Manchako basa-herri batean, orain denbora asko ez dela, aiton-
seme bat bizi zen, armatokian lantza gordetzeko, eta ezkutu zaharra,
zaldi argala eta galgo-zakur korrikalaria zeukaten horietatik bat». Horrelaxe hasten da *On Kixote* liburua. Bada, Herrerako orduko erregimenak zeukan izenik ez dut gogora ekarri nahi; ezagutu egin behar zen hura zelakoa zen sinesteko. Militarra zela esan izan da, baina halako erregimen militarrik ez da inon izango. Gu suntsitzeko eta deuseztatzeko ahalegina prestatu zuten han. Infernua zen espetxe hura, basa-etxe bat... Kixotearen lantzak eta ezkutuak eta zakurrak!

Alcalatik furgoian helduta, sarrera izugarria egin genuen Herreran. Bi hilabete lehenago hara

iritsiak ziren gure lagunak, eta haien sarrera ere horrelakoa izango zen, beldurgarria. Baina nik ez nekien zelakoa izango zen, noraino izango zen izugarria. Furgoitik jaistean «korridorea» egin ziguten kartzeleroek. Jantziak goitik behera erantzarazi zizkiguten. Biluzik nengoela, irribarre egin zidan kartzelero batek; hurreratu zitzaidan, kendu zizkidan betaurrekoak sudurretik eta puskatu egin zituen lurrean. Buzo urdin bat eta udako zapatilak eman zizkiguten, ez barruko arroparik ez galtzerdirik. Egin kontu negu gorria zela, sekulako hotza egiten duela Manchako basa-herri hartan, berehala izozten direla patio-ko putzu zulotxoak. Halaxe geratu ginen denok urte amaiera hartan: buzoarekin zapatiletan. Buzoa txikiegi neukan, sorbaldetan justu-justuan sartuta; izter artean oso estu, min egiteraino; sorbaldetan sartzeko hankartean gora tira egin behar nion!

Horixe izan zen nire sarrera Herreran. Txapela ere kendu egin zidaten, jakina; beti buruan nerabilen txapela ere bai. Madarikatua izan zen lehen gaua. Berogailurik ez, erdi biluzik, hotzak dardaraka... buzoa sorbaldetatik askatzen ba-

nuen hotzago, eta sorbaldetan sartuta, berriz, hankartean minez... Hurrengo goizean errekuentora jaitsi eta neure gauzak eskatu nituen. Alferrik. Hurrengo egunean instantzia bat bidali nion zuzendariari, txapela ematen ez zidaten bitartean ez nintzela patiora jaitsiko. Ziegan geratu nintzen. Hara: nik beti erabili izan dut txapela jantzita, hogeita zazpi urte nituenetik. Parisen, Almuñecarren, lanean, jaietan, tropikoan ere berdin bero jasanezina egin arren, baita Jeremias indigenaren ondoan tarantulak jaten nitueanean ere. Txapela beti buruan nerabilen nik, kendu gabe. Galtzontziloak bezain jantzi beharrezkoa zen, eta da gaur ere, nire buruan txapela. Ez da kapritxo edo folklore moduan darabil dan zerbait, gaur egun zenbait jaitako jendartera azaltzeko batzuek jantzi ohi duten moduan. Beharrezkoa nuen, eta instantzia hori bidali nion zuzendariari, nire txapelaren eske. Biharamunean ziegan geratu nintzen, neure temosoan. Eta hurrengo egunean eta hurrengoan.

Hamargarrenean sendagilea, zerbitziburua eta lau kartzelero etorri zitzaizkidan txabolora. Zer gertatzen zitzaidan galdezka. Hasi zitzaizki-

dan lotsagabekeria eta burlaize galantarekin. Baina kontua da, hamaikagarren egunean eman egin zidatela txapela, eta orduan jaitsi nintzen patiora. Arropak eta beste gauza batzuk ere eman zizkidaten. Falta ziren batzuk, tartean irratia eta zenbait liburu.

Erregimen harekin ezinezkoa zen bizitzea. Indarkeria etengabea zen, goizetik gauera, pairaezina. Beraien kalkulua eta xedea zen, zalantzarik gabe, kolektiboa suntsitzea, birrintzea. Atsedetik gabe setiatzen gintuzten, sosegurako tartetxorik utzi gabe; txaboloan bezala galerian eta galerian bezala patioan edo jangelan. Jazarpena eta oldarra! Goizean jaiki orduko, leiho ondoan jarri beharko zenuen zutik, esku ahurrak aurrera begira, errekuentoa pasatzeko. Gosaria, bazkaria... hamar minututan; txaloa jotzen zutenean, dena bertan utzita jaiki. Galerian lagunekin hitz egitea debekatuta zegoen. Kartzeleroak txaloa jotzen zuenean jaitsi behar zenuen galeriatik patiora, txaloa jotzen zuenean egin behar zenuen hau edo hura. Beti bazen kartzeleroaren txaloren bat edozein aitzakiarekin. Jasanezina.

Herrerara iritsi nintzenerako, lagunak batzar-
rrak egiten ari ziren egoera hari aurre egiteko
moduren bat prestatu nahian. Ez zen gauza erra-
za, erabat setiatuta geundelako, kartzeleroak
harro eta garaile ageri zirelako, itomena gaindi-
tu ezinik genbiltzalako, gose grebez izan ezik
beste borroka eratan esperientziarik ez geneu-
kalako, eta beste hainbat arrazoirengatik. Batzar
ugari eta eztabaidak luzeak izan ziren. Txapeoa
egitea erabaki genuen azkenean.

1984ko otsailean hasi genuen txapeoa, zen-
bat iraun zezakeen jakin gabe; hori ez zegoen
asmatzerik. Txapeoari ekin genion goizean, egu-
nero bezala, errekuentoa egiten hasi ziren kar-
tzeleroak. Galeriako lehena zen nire txaboloa;
neu kontatzen ninduten lehenengo, eta jarraian
gainerakoak. Errekuentorako leiho ondoan zutik
egon behar zenuen, esan dudanez. Goiz hartan
ordea, ohean aurkitu ninduten, jaikitze-
ko asmo-rik gabe. Jaiki eta leihoaren ondoan jar nendila
agindu zidan; nik ezetz, buruarekin egin nion
ezetz. Ustekabe handia izango zen hura kartze-
leroarentzat. Txalo jo eta hau, txalo jo eta hura,
horrela ohituta zeuden; panpinak bezala erabil-

tzen gintuzten. Bat-batean goizeko errekuentoan ez nintzela jaikitzen eta kasurik egiteko asmorik ez neukala ikustea ezin izango zuen sine-tsi. Nonbaitera joan eta zerbitzuburuarekin itzuli zen. Jaikitzeke agintzen aritu zitzaizkidan berriro, eta nik ezetz berriro. Eta beste ziegetako lagunek berdin.

Goiz huraxe izan zen, ziur aski, kartzelako egonaldian izan dudan goizik zoriontsuena.

Ohetik euren aginduz ez jaikitzea ekintza xumea dirudien arren, euren eskema guztiak apurtu genituen horrekin. Beraien aginte guztia, ahalmen eta botere osoa erori zen ekintza xume batekin. Aginte makila hautsi genien. Eta guretzat liberazioa izan zen haien agintea onartu beharrik ez izatea, haien kapritxozko gestuei jaramonik ez egitea. Ordura arteko tentsio guztia bat-batean hustu genuen. Geure indarraren potentziala neurtzea izan zen; gure boterearen sentipena, Herrerako egoerarekiko erabaki ahalmena eta agintea geure eskuetara pasa izanaren sentipena. Kartzeleroen aurpegian ikus zenezakeen ezina, inpotentzia. Liberazioa izan zen.

Lehen egunetan jarraitu egin zuten kartzele-roek goizetan eta euren orduetan ateak irekitzen eta errekuentoetarako zuti gintezen agintzen. Baina jaramonik ez genien egiten. Ordura arte guztiz debekatuta geneukan leihoetatik elkarrekin berriketan aritzea. Eta gu txaboloetako leihoetatik elkarrekin hitz egiten hasi ginen, alde batekoak bestekoei deika, txantxetan... Egun osoan txaboloan geunden; ez genuen errebistarik pasatzen, ez ginen jangelan jaikitzen, ez kristorik. Deus ez. Erabateko haustura. Komunikazioak, bisitak eta gainerakoak eten egin genituenez, ez zeukaten txantajerik egiteko erarik, zeri heldurik.

Bisitarik ezin egin arren, astero etortzen ziren lagunak eta ahaideak. Leihoetatik ikusten genituen autobusetan joandakoak kanpoan, kartzelaren inguruan. Oihuka eta garrasika zerbait hitz egin ahal izaten genuen eurekin. Kontsignak aldarrikatu, halako edo horrelakorentzat agurrak bota... Bisitarik ez, eskutizik ez... hunkigarria izaten zen astebururo etortzen zen jendea leihoetatik ikustea. «Hor daude», esaten zenion zeure buruari edo alboko lagunari; «hor dauzkagu, ez

gaude bakarrik, ez gauzkatu ahaztuta». Bizi izan ez duenak ezin irudika lezake zein mailataraino zaizun lagungarri animo emaileen atxikimendua. Ez dago hitzekin esaterik, ez dago ezagutu ez duenari bere osotasunean adierazteko modurik.

Lelo eta kontsigna haietako batzuk, manifestaldietan-eta oso ohikoak direnak, edonork aise ikasteko modukoak ziren, memorian itsaskorrak. Horrela bada, asteburuak joan eta asteburuak etorri denbora aurrera zihoala, hilabeteak ere joan ziren, negua eta udaberria igaro ziren, eta uda heldu; negu oso hotzak bezala, oso beroak dira udak Herreran, baina ilunabar freskagarriekin; uda hartako ilunabar beranduetan leihotetan egoten ginen elkarrekin berbetan; eta halako batean ohartu ginen, gure senideek oihukatzen zituzten leloak entzuten genituela kanpoan astegunetan ere. Ordu haietan ez zegoen han gure ahaide edo lagunik. Haurren oihuak ziren guk ordu haietan entzuten genituenak... Kartzeleroen umeak ziren! Presondegi inguruan bertan bizi ziren kartzeleroen umeak, ilunabarreko freskuran jolasean ibiltzen zirenak, korrika, ezkutuka, euskaldunon leloak errepikatzen:

- Gora ETA militarra! -batek.
- Jo eta ke, irabazi arte! -besteak.
- Presoak kalera!
- Gora Euskadi askatuta!

Surrealista zen, kontuan hartuta haur haien gurasoak buruz buruko tirabiran ari zirela gurekin.

Hamar hilabete luzekoa izan zen txapeoa.

Kartzelero bereziak ziren, garai hartako egoerari eta guri aurre egiteko propio hautatuak. Errepresioa gustatzen zitzaien, sadikoak ziren, komisaldegietako txakurren antzekoak. Baziren kartzelaz kartzela gurekin bateratsu aldatzen zirenak, Carabanchelen gurekin egonak, gurekin Puertora joanak, eta gero Puertotik Herrerara heldu zirenak. Hauetakoa zen La Gitana deitzen geniona.

Ni nengoen moduluan zegoen La Gitana, bigarrenean. Inor jazartzaile eta sadikoa izatekotan, huraxe zen. Agintzea maite zuen, plazer hartzen zuen, aski nabarmen igartzen zitzaioenez. Gaixotu egin zen txapeoa hasi eta bere

aginduei jaramonik ez geniela egiten ikusi zue-
nean. Nonbait ezin zuen ulertu nola ausartzen
ginen bere manu sakratuei kasurik ez egiten,
bere agintea aintzakotzat ez hartzen. Horretan
oinarritua izango zuen nortasun guztia, eta hori
erortzen ari zitzaiola ohartu zenean, gaixo jarri
zen. Hiru hilabetera desagertu zen Herreratik.
Geroago jakin genuen, beste kartzeleroren batek
esanda, urdaileko ultzera bat sortu zitzaiola eta
alde egin beharra izan zuela lan hura utzita.

Itxialdiko lehen sei hilabeteetan ez ginen txa-
bolotik atera ezertarako. Ondoren erabaki ge-
nuen, dutxatzera behintzat jaistea. Txapatuta
egoteaz gain, ate joka ere jarduten genuen, ordu
jakinetan, egunean zenbait aldiz. Ostikoka, ko-
muneko ateaz, ahal zenuenaz jotzen zenuen txa-
boloko atea, eman ahal guztian ematen. Lau mo-
duluetakoa lagunak, denok ordu beretan eta bate-
ra atea modu hartan kolpatuz, egundoko du-
rondia eta zarata ateratzen genuen. Ziega ba-
rruan egonik eta atea jotzen ari zinela hain izu-
garria iruditzen ez bazitzaizun ere, kanpoan
egonda, galerian edo behean, jasanezina bihur-
tzen zen, edozein erotzekoa. Behin batean, txa-

bolotik kanpo, dutxatik bueltan harrapatu ninduen ate jotze saioak. Ikaragarria! Borroka hartan, Herrerako kartzeleroen plantilla erdia inguru psikiatrarengana bidali genuen, baja hartu behar izateraino.

Irakurtzen ematen nituen egunak txapeoan, gaueko ordu biak edo hirurak aldera arte askotan. Zenbat eta liburu lodiagoa, are gusturago. Orduan irakurri nituen Sholokhoven *Don bakesua* eta horrelako mardul batzuk. Lagunen artean trukutzen genituen liburuak, leiho batetik bestera karroaz pasata. Leiho batetik bestera luzatzen den lokarria zen karroa, muturrean poltsa lotu bat mugitzen zuena. Besoa atera eta ondoko leihora botatzen duzu, eta albokoak harrapatzen duenean tira diezaiola, eta hark hurrengoari, eta horrela galeriaren punta batetik besteraino. Liburuak, janaria edo behar dena pasatzen ahal da horrela.

Aurrerago, beste borroka batzuk ere egin izan ziren Herreran: gose grebak, txapeoak, planteak. Horien artean gogoratzen dut gose

greba bat, nik gaizki pasa nuena lehen egunetan, botaka eta urik edan ezinik. Gogoratzen ditut bi txapeo luze samar, lauzpabost hilabete-koak; hauetako bat 87ko hasieran, Herreratik beste kartzela batzuetara lagunak sakabanatzen hasi zirenean. Protestan, atea jotzeko zerbait behar-eta, txaboloko zokaloa, baldosa zatia harrotu nuen, eta harexekin jotzen. Pintura zartatu eta erori egiten zitzaion ateari. Auskalo zenbat pintura geruza zeuzkan ate hark, lehenengo emandako minio geruzaren gainean. Bada, kolpatzen nuen lekuan pintura jauzaraziz eta minioa bistaratur, zerbait marrazten hasi nintzen. Egunean hiru-lau aldiz joko genuen atea, eta joldi bakoitzean bost minutu edo izango ziren. Tartetxo horietan soilik kolpa nezakeen atea, joldi horiek bakarrik neuzkan nire marrazkia lantzeko. Emakume baten aurpegia marrazten hasi nintzen kolpez kolpe, aldirik aldi. Ate jotze saioaren ostean ohean etzaten nintzen, eta begira egoten nintzaion, hurrengoan non kolpatu, non luzatu marra, bekaina norantz egin pentsatzen... Bost minutu haiek baliatu behar nituen, eta ez zen lan erraza ateari pintura kentzea, gogotsu jo

beharra neukan. Eta beste saio baten ostean, hurrena non joko begira ohetik: kokotsa, ilea, begiak, ahoa... Halako batean amaitutzat eman nuen emakume aurpegia, erliebean egina. Baina txapeoak aurrera jarraitu behar zuen, eta ate jotzeek ere bai. Beste txabolo batera aldatu nintzen. Laga egin nuen bi urte inguru egin izandako ziega. Beste txabolo batera aldatu nintzen, beste marrazki bati ekiteko. Irudi landuagoa nahi nuen: baserri bat eta mendia, hemen meta bat, hor zuhaitza, teilatuaren hegala, detaile guztiak. Ziega haietatik igaro direnek ikusiko zituzten nire marrazkiak; gaineratik pintatu arren, erliebean geratuak. Batek baino gehiagok galdetuko zion bere buruari: nola demontre eginak ote dira?

Krakas, Kirruli, Lopetegi

Tentsio aldi gogorak bizi izan genituen Herre-ran. Planteen ondorioz, pikoloak espetxeko ku-pulan egoten ziren, eta modulueta sartzen ji-poika, bortxazko biluzketak eginez, umilazioaren bila.

Sendagileen arduragabekeria garesti ordain-du zituzten adiskide batzuek. Gure Kirruli han geratu zen, tuberkulosiaz. Krakas hil zen. Mikel Lopetegi... Hirurena izan zen latza, baina nire-tzat Kirruli eta Mikelena gogorrena, neu nengoen moduluan gertatu baitziren. Kirruliren gorpua zaintzen egon nintzen goizean, Elurtxurirekin ba-tera. Sinestezina zen garai hartan tuberkulosiaz hiltzea! Urte hauetan guztietan jende mordoska ikusi izan dut hepatitisarekin eta tuberkulosiare-kin. Tuberkulosia ez da gainditua dagoen gaixo-tasuna, ezta gutxiago ere. Nik zortea izan dut alde horretatik. Gaztetan gaixotasun hori pasa izanak nolabait indartu egin zituen nire defen-tsak.

Gertatuak gertatu, Herrerako borrokak erabakigarriak izan ziren. Zuzendaritzari aurkeztu genizkion eskari eta baldintza asko eta asko lortu genituen. Irabaztea izan zen hura, oso garrantzitsua. Esango nuke, gaur egun, hamabost urte geroago, garaipen haren etekinak dastatzen ari garela neurri batean, bai maila pertsonalean txapeo hartan parte hartu genuen artean, baita kolektibo moduan ere. Lehenagoko Puertoko egonaldiaren ondoren, hango suntsipenaren ondoren, eta Herreran bertan aurreneko aldiak geneukan egoera hura kontuan hartuta, gure indarra eta sendotasuna erakutsi genizkien txapeoek eta grebez. Kolektiboaren ahalmena erakutsi genion etsaiari. Eta guretzat, indarberri-tzea eta geure buruarengan konfiantza hartzea izan zen. Borroka hura galdu izan bagenu, edo batere borrokarik egin izan ez bagenu... ez dakit zer egoeratan egongo ginatekeen gaur egun.

Castellon

1987ko urriaren 26an eraman ninduten Castellonera, beste lau lagunekin, Herreran lau urte eskas egin ondoren. Ordura arte talde handi samarretan egonak ginen Carabanchelen, Puerton eta Herreran, baita Alcalan ere. Ordutik aurrerakoa, beraz, gure kolektiboa sailkatzeko eta zatikatzeko ahalegina izango zen etsaiaren aldetik: sakabanaketa. Erreparatu besterik ez dago nolako komentarioak egiten zituzten garai hartan politikariek, komunikabideetako eta gainerako pultreek. Gure suntsipen fisiko eta psikologikoaren bila egindako plangintza abiarazi zuten.

Preso sozial batzuk gu erasotzera bultzatu zituzten hasteko, ordainetan mesedeak eskainita. Hala ere, etsaiaren kaltetan gertatu zen eta gertatzen da, preso *arriskutsuenak*, lehen graduan eta guztiz jazarrita edukitzen dituzten preso sozialak alegia, ez baitira izaten kartzeleroei mesede egitekotan. Preso *arriskutsu* horiek izan ohi dira, hain zuzen, nolabaiteko klase kontzientzia daukatenak eta duintasun gehien dutenak, eta

bizi-baldintzen egoera gogorragatik gurekin txukunen konpondu ohi direnak ere bai, jakina. Preso horien eta gure artean enfrontamendua sortzen saiatu zen etsaia, baina gaizki atera zitzairen jokaldia. Bortxatzaileak, salatariak eta giza-lakasta modu guztiak izaten dira kartzeleroen konfiantza dutenak, inolako duintasunik ez dutenak gehienetan; kartzeleroak ere ohartuko ziren horiekin ezin zutela euskal presoon aurka-ko gerrarik egin espetxeetan. Dena dela, preso sozialak gure aurka erabiltzeko saiakerak inoiz ez dituzte amaitutzat eman. Hor daude Puerto edo Alcalako kasuak, Ermuko mamuarekin batera indartzen saiatu zirenak, eta abar. Era askotako jendea izaten da kartzeletan, eta, orokorrean preso sozialak gure aurka jartzerik lortu ez duten arren, inoiz ezin liteke jakin eroren bat zertara bultza dezaketen.

Ez dugu ahaztu behar, kartzeleroengandiko jipoiak sakabanaketaren ondoren hasi zirela batik bat; talde txikitan edo bakarka geundela ikusirik, horretaz baliatu ziren basakeriak eta gehiegikeriak egiteko, eta berdin jarraitzen dute gaur egun ere. Ez soilik presook suntsitzeko,

baita senide eta lagunakumiliatzeko ere. Kartze-
la aldaketak, sakabanaketak, txakurren zafral-
diak kundetan... bakean ez uzte horren barruan
ulertu behar ditugu. Begi-bistakoa da egonezina
lortu nahi dutela presoarengan, antolatu ezina,
ezertara jarri ezina. Inor eta inon bakean ez
uztea da euren xedea, ez ikasketak egiteko, ez
deuserako.

Norberaren bizitza antolatzeko eragozpenak
nagusitzen ari dira. Ezin dugu geure eskura
gauza handirik eduki; ez liburu, ez arropa eta ez
horrelako asko, noiz aldatuko ote gaituzten zain
gaudelarik. Alde batetik besterako bideetan tras-
teak galtzea, desagertzea edo dena apurtzea
eguneroko kontua dira. Hara: hamabost egun
badira hona heldu nintzela, eta nire trasteak ez
dira inon ageri: arropa gehienak, liburuak, esku-
lanak... Castellonen utzi nituen, agentzia baten
bitartez hona bidaltzeko, ezin naitekeelako ibili
traste guztiekin hara eta hona. Ba, orain ez
omen daude Castellonen, eta ez omen daude
hemen ere. Zelako misterioa! Ez omen dugu ha-
rritu behar, jakinik zelakoa den kartzeletako bu-
rokrazia, zelan funtzionatzen duen denak! Beti

izorratze aldera egiten dituzte gauzak, ez behintzat laguntzeko edo errazteko. Horrelaxe, kartzelerorik mozoloenak ere bere pixkatxoak ipiniz, saiatu dira urtez urte kolektiboa eta kolektiboko banakakoak handik edo hemendik izorratzen.

Agerian daude jazarpenarekin eta sakabanaketarekin lortu dituzten emaitzak: itota eta gehiago jasan ezinik euren buruaz beste egin duten lagunak, esate baterako; ez dituzte menderatu, baina urkamendira bultzatu dituzte. Eta hor daude damutuak ere; nire ustez, damutuak baino ukatuak eta etsitakoak besterik ez direnak.

Baina sakabanaketa eta isolamenduen gaineratik, etsaiaren zafraldi eta suntsiketa saioen gaineratik, ahal dituzten txakurkeria eta umilazio eraguztien gaineratik jarraitzen dugu kolektibo batua eta tinkoa izaten. Badakite ez dutela asmatu damutuen politikarekin, damutuez egin duten erabilera narrastiarekin, momentu jakinetan telebistan agerraraziz, prentsan aldarrikapena eskainiz... Eta ez dute asmatuko, ezta ere, presoen eskutitz pertsonalak aireratzeko kartzeleroen

eta txakurren eta kazetarien artean dagoen sintonia eta erakarmen-kimikarekin.

Bakardadea izan zen Castellonen lehenengo aurkitu nuena, lagun falta. Herreran modulu osoa ginen kolektibokoa, eta Castellonen bost baino ez; gure inguruan preso sozialak, ordura arte ezagutzen ez genuen giroan. Argi zegoen preso sozialekin nahastu eta haiekin parekatu nahi gintuztela, haien artean *urtu*, nolabait esateko. Baina, aldi berean, gurekin harremanetan edo lagunartean ikusten zutena begitan hartuko zuten berehala; laster hasiko ziren kartzelerokoak hari jarraipen berezia egiten. Gurekin mintzatzearren bakarrik sartzten zizkieten parteak eta zigorrak. Bestalde, modulu berean eta lehen graduan preso sozialekin egon arren, siesta denboran gu patiora irtenarazten gintuzten. Jokamolde eskizofrenikoa edo paranoikoa zen hura kartzeleroen eta zuzendaritzaren aldetik. Itxuraz, eurek ere ez zuten sinesten preso sozialekin batera jarriz desegingo gintuztela.

Bostok modulu berean elkarrekin egin genituen lehen bi urteak. Gero beste modulu batera eramán gintuzten Juanito Nazabal eta biok, eta beste hirurak modulu banatan bakartuta. Kartze-la berean egonik ere, beste sakabanaketa bat gehiago ezarri ziguten! *Noziboen* modulura pasá ginen Juanito eta biok, *arriskutsuen* modulura, euren sailkapenaren arabera. Hamabost-hogei preso baino ez ginen han.

Sei urte eta erdi igaro genuen horrela, eta ordutik aurrera hasi ziren tarteka moduluz aldarazten, bat hona eta bestea hara, trukatzén bezala. Eta ziegaz ere aldatzen gintuzten, hiru-lau aste-ko tartearrekin, hutsik egin gabe aldatu ere gainera. Guztira hamabi urte egin ditudanez Castellonen, pentsa zenbat ziega pasa izan ditudan!; neuk ere ez dakit. Zenbat ziega zikin garbitu izango nituen han!

Lehen graduán egin ditut Castellongo hamabi urteak. Goizetan patioan, arratsaldetan txaboloan. Goizetan eskulanetan aritzen nintzen: lehen aldian kutxak eta horrelakoak, gerora itsasontziak eskalan egiten. Erraztasunik ez zuten ematen. Bizarra kentzeko kutxillekin moldatu

behar izaten nuen, ahal nuen moduan lortutako tresnatxoekin. Eskulanengatik ez dut erredentziorik izan, ezta egun bakar bat ere. Ez nintzen erredentzioen itxaropenez aritzen eskulanetan, probetxuzko zerbait egitearren baizik. Ez dit horrek burukominik ematen. Kartzelan ezin zaitezke bizi erredentzioei begira, erredentzioengatik erreguka; are gutxiago zergatik gauden kontuan hartuta. Ahal den guztia kendu behar zaio kartzelari; eta erredentzioak kenduz lehenago kale-ratu ahal bazara, ederki, oso ondo; baina ezin zaitezke horri lotuta bizi, negarraren letanian eta labirintoan erori nahi ez baduzu.

Kartzelaldirik luzeena Castellongoa izan dut. Hantxe bertan hamabi urte hona eta hara, baina inora mugitu gabe. Hala ere, kartzelaldiak denboraren arabera neurtzea ez da haizu. Puertoko egonaldiak, eta Herrerakoak batez ere, askoz gai gehiago ematen ditu kontatzeko, askoz bizipen gehiago Castellongoak baino. Aurreko urteetako kartzelaldiekin alderatuta, zalantzarik ez dago monotonoagoa izan dela Castellongoa, eta neket-suagoa ere bai.

Esango nuke, sakabanaketa plangintza hone-tan, nahiz eta agindu orokorrak Madrildik bideratu, kartzela bakoitzeko zuzendaria edo zuzendaritza taldea izan dela leku bakoitzean bere arau propioak ezarri dituena. Zuzendaritza talde horiek izan dira lekuan lekuko tirania propioa ezarri dutenak presoengan eta senide eta lagunengan, beren aburuen araberako jazarpena eta jarrapena eginez, deserosotasuna sortuz, Madrilekiko helburuetan beren apurtxoak aportatuz. Kartzela bakoitzak bere berezitasun propioak ditu horrela, eta kartzela batean denboraldi luzeagoa edo laburragoa egin izanak ez dauka beti horren araberako eragin zuzena. Zenbait kartzelatan, egonaldi labur batean desegin dezakete presoaren osotasuna, edo horretan saia daitezke behintzat. Kartzela batzuek epe laburrera ez dizute hainbesteko erasanik egingo, baina luzera itogarririk bihurtuko zaizu egonaldia, gauza txikietan izorratzen zaituztelako, gairitu ezinezko eragozpen txikiekin topo egiten duzulako beti. Horrelakoa da Castellongoa, beti trabak asmatzen, nondik zirikatuko asmatzen zebilen tiranotxo osatutako zuzendaritzarekin. Ez dago garai bate-

ko Herrerako edo Puertoko erregimena, ez da basatia modu horretan. Baina beste era batean bideraturik, helburu berdineko erregimena dela dudarik ez da. Lantzean behin bizimoduz mudatzea, txaboloz sarri aldatzea, kartzela bereko lagunengandik bereizita edukitzea, suntsipenerako armak dira denak. Eta zer esanik ez kartzelaz kartzela aldatuz bazarabiltzate, adiskide batzuk erabili dituzten bezala. Ezertarako patxadarik ez dizute uzten... Eta kalbarioa da senideentzat.

Zekena zen Castellongo zuzendaritza, erabat. Kartzela ere, berez, egituraz eta baldintzez, oso eskasa da. Eta jasangaitza hezetasuna.

La Moraleja

Dueñaseko presondegi honek La Moraleja du izena. Kontu, ipuin, fabula edo istorio batetik ondorio gisa ateratzen dugun irakaspena edo antzeko zerbait da moraleja. Horixe izan behar du. Kartzela bakoitzean atera ditzakegu ondorio eta irakaspenak geure izateaz, kartzelaren funtzioaz, kartzeleroen lanaz... Horretara ezkerro, egun bakoitzari aterako diozu bere ondorioa eta moraleja. Urte hauetako historiaren ondorio eta irakaspena bi mailatakoa aipatuko dizut: pertsonala bata, kolektiboa bestea.

Su-etenaren aurretik atergabeko prediku sorgogarrían aritzen zitzaizkigun denak, esanez: armak utziz gero, su-etena emanez gero, dena izango da posible, edozertaz hitz egin ahal izango da, edozer konpon liteke; beraz... zertarako luzatu! Orain, ETaren su-etena eta urtebetera, hurbilketa egin digute preso politikooi. Lehen dispertsioa deitzen ziotenari hurbilketa deitzen diote orain; eta horrela, neure iloba adibidez, Txemi Arteaga, Albacetetik Picasentera hurbildu

dute, Valenciara alegia. Lehen lagunekin zegoen moduluan, orain bakar-bakarrik dago; lehen elkarrekin egiten zuten bisita Albaceten zeuden lagun guztiek, orain egun ezberdinetan egin beharra daukate Picasenten; lehen baino komunikazio okerragoak dauzka orain nire arrebak bere semea bisitatzeko. Eta abar, eta abar.

Teo Izagirre Puertotik Jaenera hurbildu dute; Txonta Valenciatik Bonxera; Palo Valenciatik Ourensera... Zertarako jarraitu! Lehen kartzela berean zeuden senar-emazte edo bikote batzuk bereizi eta leku ezberdinetara *hurbildu* dituzte. Argi dago zein den hainbeste hitz eta pitz eta promesa aldarrikapenen ondorioa eta moraleja. Gezurra, faltsukeria eta joko zikina. Hori guztia da kolektiboa garen aldetik inposatzen diguten «generosidadea».

Alde pertsonalari dagokionez, berriz, hamazazpi egun egin ditut bidean, Castellondik modulu honetara. Sendagiletan nenbilen Castellonen, eta handik atera ninduten egunean, irailaren 13an, azken kontsulta izan behar nuen neurologoarekin. Kartzelako sendagilearekin, Hospital Provincialeko traumatologoarekin... ibilia nin-

tzen. AERSA klinika pribatuan erresonantzia magnetikoa egin zidaten; erresonantzia horren araberaren hernia lunbarra, deshidratazioa, eta alturaren merma dauzkat. Neurologoak plakak azterzea eta ondorioak argitzea falta zitzaidan; horretarako neukan kontsulta irailaren 13an. Kontsultara eramanez, hona *hurbiltzeko* kundan atera ninduten. Hona heldu eta hamalagarren egunean medikuak esan dit, Castellonera itzuli beharko dudala azken kontsulta hori egitera. Honetatik ere aise atera liteke beste ondorio bat Instituciones Penitenciarias-eko sendagileek euskal preso politikookin duten etika deontologikoaz.

Dena den, gorabehera hauen guztien gainera, beste bat da irakaspen eta ondorioz sendoena. Alegia, euskal preso politikook sakabanaketa eta oldar mota orori aurre egiten asmatu dugula, zutik irauten eta eusten jakin izan dugula, geure izaerari tinko eutsi diogula. Eta hemen gaude. Jipoiei, gaixotasunei, jazarpenei gainditu gatzazkie, eta hemen gaude. Gure ahaide eta lagunak ere eutsi egin diote urte luzeetako erasoari, eta hor daude, zutik.

1982an, Carabanchelen geundela, *Egineko* kazetari hari esan nion: kalean jendeak, gazteek batez ere, borrokan jarraituz gero, guk eutsiko geniola barruan. Eta eutsi diogu. Orain berriro esan nezake, kalean jendeak eusten badio, guk eutsiko diogula barruan, behar den denbora guztian. Gure eustek ekarriko du etsaiaren hertsitasuna haustea. Denbora lekuko, ikusten ari garen ez.

Zorte on!

Antxonek itsasontzi txiki bat darabil eskuartean. Hori amaitu nahian joan da tailerrera. Beste preso batzuei hariekin gerrikoak nola egin erakusten ere badabil. Beti dauka egitekoren bat. Unetxoren bat beretzat hartzen duenean ere, eskutitzei erantzuten ikusten dut, edo patioan paseatzen.

- Oraindik Castellonera eramango naute hauek! -esaten du-. Beste hainbeste eguneko kunda bat eginarazteko kapaz da sendagile mardarikatu hori!

Lehendik eskatua zuen Martutenera joatea, osasun arazoengatik, baina ez du ametsik egin nahi. Reizabalek adierazi dio, agian ez dela uste-kabekoa izango Martutenera eramatea. Epailea ere etorri zaio gorabehera horren inguruan zer-bait jakin nahian.

Gaur arratsaldean, azaroak 8, patiora jaisteko galeriara irtendakoan, bere poltsak prestatuta ikusi dut Antxon. Kundan doala esan diote, Martutenera. Bapo! Espero genuen, baina ez

hain azkar. «Kauen!, umezurtz geratuko gaituk» diot neure artean. Poz ematen dit etxetik hurbil izango dela jakiteak, behingoz begiratu eta zaindu ahal izango dizkiotela hernia lunbarra eta gainerakoak; arrebarengandik ere gertuago...

Poltsak jaisten hasi naiz. Koldo eta Karlos ere badatoz laguntzera. Antxon jaitsi denean, modulu osoa inguratu zaio: arabiarrak, latinoamerikarrak, beltzak... Eskua eman diote banan-banan.

- Zorte on!

- Nora zaramatzate?

- Han hobeto egongo zara.

Harrituta begiratzen diot panoramari. Hilabete inguru egin du moduluan, eta patriarkatzat hartu bide zuten denek. Kartzelerok zain daude sarreretako modulura eramateko, harrituta horiek ere, ondamuz beharbada; Antxonen inguruan dagoen jende multzoari so daude.

Kiroldegi ordua dagokigu orain, eta bigarren moduluari ere bai; zorte apur batez agurtu ahal izango ditu bigarreneko adiskideak kiroldegiko atean... Abiatu gara azkenik, Koldoren eta Karlosten eta hiruron artean Antxonen trasteak aldean... Han, badatoz bigarren modulukoak kirol-

degitik! Itxoin dezagun. Jokin, Raul eta Ramonek agurtu dute besarkada estuz. Kartzeleroa albotik begira daukagu.

Kitxu txapatuta egoten da arratsaldetan.

- Agurtu hura, ahantzi gabe -esan die Antxonek-. Agurtu neskak ere. Eta Onditzi [kolektiboko gazteenari] musuak zaharrenaren partez...

Sarreretako moduluan laga ditugu poltsak. Gure besarkada banatan ez ditu urruti malkoak.

Kiroldegira goaz bueltan. Han elkartu gara beste moduluko hirurekin. Zazpi gizon eta lau emakume bakartu baino ez gara hemen, Antxonen faltan.

La Moralejan, 2000ko otsailean.